

IGANDERO'KO

BÉRIONA

Iruretagoyena'tar Jon

APAIZAK

EGIÑA

II ZATIA



ITXAROPENA ARGITALDARIA

ZARAUTZ

1936

Igandero'ko Beñiona



A-4131

R-666

ATV
607

Igandero'ko

Beñiona

IRURETAGOYENA'tar JON
APAIZAK
EGIÑA

II ZATIA



ITXAROPENA ARGITALDARIA
ZARAUTZ

1936

Nihil obstat
IGNATIUS IZTUETA
Censor deputatus

Imprimatur:
† MATTHAEUS, EPISCOPUS VICTORIENSIS

Victoriæ, die 31 Octobris, 1935.

Be'rogenaro'ko lenengo Igandea

Math. Don. IV, 1-11.

Espirituak Jesus basarteruntz bideratu zuan etsai-beltzagandik exekatua, zirikatua izateko. Eta be'rogei egun eta be'rogei gautan barau egin ondoren, gose izan zan. Eta zirikalaria beraganaturik, esan zion: Jainkoaren Seme bazera, esazu a'ri auek ogitu ditezela. Jesus'ek erantzunaz, esan zion: Idatzia zegok: ez dek gizona ogi utsez bizi, anbat noski Jainkoa'gandik datorkion itz oroz ere. Orduan etsai-beltzak berekin eramane zuan uri doneruntz, eta Eleiz galdorean ja'ri zuan, eta esan zion: Jainkoaren Seme bazera itzul zaitte goitik bera, idatzia bait-dago: bere Aingeruz zaituko zaitu ta beren eskuz oratu-ko dizute, baezpadan ere zure oi'ña a'ritan easan ez dezazun. Jesus'ek esan zion: Baita ere idatzia zegok: Ez dek ire Jainko Jauna zirikatuko. Be'riz ere etsai-beltzak berekin eramane zuan mendi buru garai batera ta lurbirako jaure'fi, e'feinu guztiak eta beren garaintza begien a'urean ja'ri zizkion eta esan

zion: Au guztia zuretzat (emango dizut), auzpezturik goraltzen banazu. Orduan Jesus'ek esan zion: Alde emendik, Satan: idatzia zegok, bada: Ire Jainko Jauna jauretsi zak eta berari bakarik moñontz akiok. Orduan etsai-beltzak aldegin zion: ta oña Aingeruak bertaratu ta bedoñekatzen, ornimenetan zegozkion.

Gaurko Beñona asten da esanaz: Espiritu Doneak Jesus lekarora (basamortura) eramán zuala. ¿Zer egin bear degu, Jesukristo gure jauna bezela gu ere Espiritu Doneak bere bidetatik eramán gaitzan? Lenengo, egi-egiaz gure anima zeruratu nai izan, anima zeruratzeko bide zuzenetik, bide zintzotik ibili nai izan, bizitza garbi bat egiteko asmoa euki ta asmo ta gogo auetan irauten duanak entzungo ditu Espiritu Donearen deiak eta Espiritu Doneak bere bidetan baruna eramango du bere nai bidetsu ori iristeko, baña bide zuzen eta zintzotik gabe, bizitza garbi ta eratsu bat gabe, bide okeretan kutsutuaz, eskubian eta ezkeréan leku artu ta nastuaz ibili nai duanak Espiritu Doneari atea itxitzen dio, ta loñatz nabar oñi jaraiturik laister luñeko ederen zoramenez liluraturik lausotu ta itxutuko da, bere begiak ez dute ikusiko Espiritu Donearen argirik, bere belarñiak ez dute entzungo Espiritu Donearen deirik, eta Espiritu Donearen bide jakiña nundik dan ez dakiala, nasturik eta bidea galduta geldituko da, bere animaren irabazia eta zeruratzea egiaz nai izan et-zualako.

Oregatik, bada, Espiritu Doneak bere bidetan baruna eramatea nai badegu, egiaz gure anima zeruratu ta bide zintzo ta garbitik joan naia erakutsi bear diogu lenbizi gure gogo, asmo ta burubidetan.

Eta ¿nora eraman zuan Jesukristo gure Jauna Espiritu Doneak? Lekarora, basamortura; au da otoitz eta bakartasuneko lekura, etsaiagandik zirikatua, eraso ta esetzia izan zedin. Ora Espiritu Doneak erakusten diskigun bideak ogenean (pekatuan) ez jausteko, erasoan aurrean zutik irauteko. Otoitza, au da gizon argalaren indar bikaña ta guztiok argalak gera gerenez, baña otoitzak ematen digun jainkozko indararen bidez, baita ere guztiok bikañak gera ta etsaiak zirikaldi, eraso ta esespenik gogorenaz lizkatzzen, zaztatzen eta zulatzen bagaitu ere bere mendean atxitzearen, ezin azpiratu gentzazke ta danik eta eskeintza ta leunkeririk guri ta labañenak egiten badizkigu ere ezin bigundu ta bere oinpera jausiazi ta easan gentzazke ta beti ta beti zutik iraun dezakegu otoitzaren bidez irizten dan Jainkoaren eskua ta laguntza gurekin degula. *Omnia possum in eo qui me confortat*, esan dezakegu Pablo bidali donearekin. Etsaibeltzaren eraso galen guztiak zapaldu dezazket otoitzean iritxi-tako Jainkoaren laguntzarekin.

Espiritu Doneak erakusten digun bigaren bidea bakartasuna da. Ez du esan nai bakartasun onek bakañik ibili bear degula ta leku bakañetan geienean ibili bear degunik; erakutsi onek adierazten digu, ogenean, pekatuan jausteko eretztasun, zio ta elorhoa dagon tokitik iges egin bear degula; badakigu onelako bilera, jolas, lagunartera joan ezkerro ogenean, peka-

tuan jausteko irizpidean, labaiñarian, laprastegian jartzen gerala; badakigu onelako egunkari, aldizkari, irakurgai, ikuskizun gaizto ta loiak artu ezkeru ogenerako zorian jartzen gerala; badakizu len gertatu zaizunagatik ala besteren bateri gertatu zaionagatik bide jakin batzutan lasaitu, zabartu ezkeru érez ogenean jausi zinezkela ta ortik igestea, lizkar oretan ez sartzea, bide oiek utzi ta lagatzea, bide oietatik igesi ta urutiratzea eskatzen dizu ta au da Espiritu Donearen bakarlekua.

Ora, bada, gaurko Beñionak gure buruak donezteko jartzen dizkigun bi oñariak, bi bide nagusiak: otoitza ta bakarlekua. Otoitza gure biotzak berotu, indartu ta kementzeko, ta bakarlekua gure griñen sua piztu ta azi ez dedin, eta etsaibeltzaren zirikaldira ta erasoak somatzen ditugunean, otoitzean gureganatutako indarren bidez azpiratu ta itzali ta atzerazi ditzagun.

Garizumaren (Barautearen) lenengo igandeko Beñion onen lendabiziko esaera onek daukan jakintza naiko izango litzake lurbira guztiko idazti guztiak bete ta geiagorako ere. ¡Ainbesterañoko sakontasuna dauka izan ere, Espiritu Donearen egintza ori azaltzen duan esaera orek! Baña gu emen aldi labur baterako bakañik etoñiak izanik, aurera jaraitu beaean nago, gaurko Beñion bikain onen beste erakutsi eder batzuek ere, txit laburki bada ere azaltzeko.

Onela, bada, Beñionak dio: Espiritu Doneak lekarrora, basartera eraman zuala Jesus, etsaiagandik eraso izateko. Mirari aundia N. E. M. Jesukristo gure Jauna, egiazko Jainko ta egiazko gizona etsaibeltzagandik zirikatua ta eraso izatea. Onenbesteraño eratxi zan Jesukristo gure Jauna gu zeruratzearen.

Eta Jesukristo gure Jauna etsaiagandik erasoia izan bazan ¿nork uste izango du norbera esetsia, erasotua ez izatea? Ez dago lur onetan bizikerarik etsai erasoakandik zearo aldentzen duanik, ez dago unerik etsaia bere esespenaz, erasoakaz etoñi ezin litekenik, ezta lekurik ere gure animen etsaibeltza sartu ezin litekenik. Okeñerako erasoia lur onetan Eba'renakin asi zan eta bere ondorengo guztitan jañaitzen du. Berdin erasotzen dio etsaiak doneari ta pekataritari; naiz etxe bañuan eta naiz gizartean; naiz gaueko ixiltasunean eta naiz iskanbilēn erdian. Etsaia, azkenez, donetasunera era berezi batean emanak dauden lekaide, relijiosoen bakartasunerañe ere eldutzen da, ta Jainkoari otoitz, añen eta eñeguak egiten ari diran bitartean ere zirikatzen eta erasotzen ditu utzegin dezaten.

Eraso auek eramān beañā beargai latz eta mingañā iruditzen zaigu, bañā Jainkoaren bideak auetxek dira ta galbide, añisku ta eloñio aundiak etortzen bazaizkigu ere, berak menderatu ta azpiratzeko laguntza beti ematen digu ta oñela irabazten degun sari ta ordañā ere aundia da.

Itz labur, bañā mardul eta naro auekin Beñion'ari asiera eman ondoren oñela jañaitzen du: *Jesukristo gure Jaunak beñogei egun eta beñogei gau barau egiñaz igaro ondoren, gose izan zan.* Eta zirikalaria, lizkaria beraganatu ta esan zion: *Jainkoaren Seme bazera, esazu, añi auek ogitzeko.* Berak erantzunaz, ezan zion: *Idatzia zegok: ez dek gizona, ogi utsez, ogiz bakañik bizi, baita Jainkoagandik datorkion itzez ere.*

Bi gauza ikusten ditugu Beñion'eko itz auetan, etsaiaren maltzurkeria ta Jesukristo gure Jaunaren ja-kinduria. Beñion Doneko itz oietatik ateratzen degunez zirikatzaile maltzur onek aurrena Jesukristo gure Jaunari begiratzen dio ta bere egoera aztertzen du, Beragan argaltasun bat, bide bat, éreztazun bat arkitu naian bera menderatu ta azpiratzeko ta ikusirik, gau ta egun berogei egunean barau eginda, goseak arkitzen dala, bide uraxe derizkio érezena, argalena ta egokiena ta oñela gose ura asetzeko an inguruko ariak, aitzak ogi biur ditzala esanaz, erasotzen dio.

Argi asko adierazten digu Pedro Bidali doneak ere itz auetan, etsaibeltzak bide auxe artzen duala gu erasotzeko: *adversarius vester diabolus tamquam leo rugiens circuit quærens quem devoret*. Gure animaren etsaia leoia muñuzkaz bezela gure inguruan dabil biraka, nundik gure anima atxitu ta iruntziko.

Eta Loyola'tar Iñaki Doneak dio, beriz, kapitan edo gudalburu batek gaztelu bat artu nai duanean bere bira guztiari begiratu ta beraren inguruan dagon lekurik argalena, érezena ta solena bilatu naian ibiltzen dan bezela, gero bertatik ekin, jo ta alegin guztian eragin eta zuloren bat iriki ta bertatik sartuaz bera atxitzeko, era berean etsaiak guri eraso baño len ernaitasun aundiaz begiratzen digu, aretaz eta arduraz gure egoera aztertzen du, gure bear eta gogoak, gure asmo, zaletasun eta joerak, gure izaera ta griñak barundatu ta ikusten ditu; ta gure baruan arkitzen duan lekurik argal eta aulenetik jo, lizkatu ta erasotzen gaitu, era onetan érezago erori gaitezen bere sare maltzurétan.

Etsaiak Jesukristo gure Jaunari jañi zion aukera ez da berez gaiztakeria, pekatua. Berogei eguneko Baraute goñiaren ondoren daukan gosea asetzea, ez da pekatua; baña etsaiaren erasoari bide egin eta ontzat artzea, etsaiaren erasoari mirari baten bidez atzema-tea, bere burua laztu ta ilduratzeko (mortifikatzeko) zuan asmoari lur jo erazitzea izango zan eta gañera etsaiari bidea irikiko zion ur̄ena eraso aundigoaz etor-tzeko. Onelaxe urbiltzen zaigu, bada, guri ere etsaia, ez dizkigu jartzen lendabizi legien aur̄ean ogen, peka-tu aundiak, geiegi izutu ez gaitezen: berak nai duan ogenetara eramateko pizkanaka eusten, eldutzen digu, olañuak bere eñoen ertzakin janariari eusten dion be-zela; aur̄ena goiz ar̄atsetako otoiz egiteak eta meza entzuteko oiturak utzi erazten dizkigu, ur̄ena agurtza (eñosario) donea otoizteko (eñezatzeko) oitura aztu-azitzen digu, gero jai egunetan jaunartzea ta elizkizu-netarako atzeratzen gaitu ta onela gure biotza oztu ta gure sinismena argaltzen duanean bien bitartean pe-katu txiki ta aundixka askotan jausi eraziaz, orduan da bere garaiburua, orduan jartzen digu ogena, peka-tua begien aur̄ean, baña orduan ere gauza eder, gau-za gozo ta atsegin bat bezela, bera iritxi ezkerro go-zamena, zoriona ta atsedena eskuratua, iritxia balego bezela, ta une artan bertaratzeko aizkuretu ta igiraz-ten du, azkenez pekataria bertan jausi erazi ta bañun-go naigabez, minberaz eta espenez beterik utziaz.

Auxen da etsaiaren bidea anima bat bereganatze-ko ta auxe egin nai izan zion Jesukristo gure Jaunari Berion'eko gertakari onetan, baña Jesukristo gure Jaunak berealako batean atzeratu zuan, itz birekin

zanpatu ta ageñazi zuan bere maltzurkeria esanaz: Ez dek gizona ogi utzez bakarrik bizi, esan nairik gizona uritasunak, ezak, beartasunak estutzen duanean, an gelditzen zaio oraindik ere Jainkoaren itza, Jainkoaren laguntza ta itxaropena, ta ez dauka bere esku ongileagandik bear duan laguntza artuko ez duala zer etsirik, batzu-batzutan berankoa bada ere, ez da egundano azkoa-ta.

Etsaia lendabiziko zirikaldi onetan garaitua ta zapaldua izanik, eta ikusirik Jainkoaren laguntzan eta itxaropenean bere ardura jariaz lotua ta zirikatze-ko biderik gabe utzi zuala goikoz-bera aldatzen du bere sare maltzura.

Onela, dio Beñionak: *Txeñenak Jesukristo artu ta uri donera eraman zuan, eta eleizaren galdor erpiñean jafi zuan, eta esan zion: Jainkoaren Seme bazera jalki zaitez goitik bera, idatzia baitdago: Bere esku dauzkan Aingeruak bialduko dizkitzu, ta eskuetan bilduko zaitue, iñola ere zure oñak aitzik jo ez dezan.*

Arokerizko zirikada, eraso maratiltzen, irutzen, jartzen dio oraingoan etsaibeltzak Jesukristo gure Jau-nari; lengo zirikaldian ikusi zuan bere gogoa Jainkoarenakin baturik zeukala, ta oregatik orain Jainkoaganako uste ta itxaropen geiegira eraman eta geiegizko uste ta itxaropen ortan atxitu nairik zirikatzen du.

Saritan darabil baita ere gizonarekin etsaibeltzak orelako maula, marafil zitala. Gizona, oretarako lendabizi leunkatzen du, arotu ta berotzen du bere bikaintasuna beraren iritxian, buruan puztu ta aizetuaz

eta orduan gozo-gozo, pizkanaka amilañira darama. Zoaz oñelako tokitara, dio etsaiak kristau zintzoari, ez bildurik izan, zure gaurko otoitzak gartsuak izan dira, zure onbide, birtuteak aundiak dira, Jaunak lagunduko dizu, aingeruak berak etoriko dira bear bada zuri laguntzera; jañai zazu adizkidetza oñetan, ikus-taldi oietan, beste batzuentzak bear bada labain, limuritsua izan liteke, baña zuretzat ardura pizka bat jañi ezkerro ez dauka bildurik, eta gañera bera ondu ta bide oneratu dezakezu, bere izaera arin eta tentela zentzu, galgal onera erakañiaz. Zoaz onelako gizar-tera, jolasetera, ikuskizunetara ardura pizka bat eukiaz ogen, pekatu egin gabe iraun dezakezu-ta. Onelaxe gozo-gozo, ez tiro zirikatzen ditu etsai maltzurak kristau onak eta bere loxentxa gezurtiai belañia iriki ta berakin izketara abiatzen badira, laister dira bere esan naspiletan bilduak, laister dira ogen ertzean, pekatuaren atetan, amilañi ezpañari ikutzen eta bere inguruan iristaka, laprastaka ta orduan Jainkoaren laguntza berezi bat, Jainkoaren indar eta argi miraritsu bat bearako du, bere zabarkeriz iritxi dan amiltegi beltz artan buruz bera jausiko ez bada.

¿Zer egin gure gogoa, anima estuasun kizkalgañi artan egundo ez ikusteko? Begira gaurko Beñona'ri. *Non tentabis Dominum Deum tuum*, dio Jesukristo gure Jaunak. Ez dek ire Jaun eta Jainkoa lizkatuko, zirikatuko. Aor gure olentza, salbazioa, ez izpiderik eman, ez entzun egin, ez bere itzik jaso ta lenengo unetik, batere itz arterik eman gabe, esan biribil eta sendo Kristo gure Jaunaren itz oiek: *Non tentabis Dominum Deum tuum*. Ez dek ire Jaun eta Jainkoa lizkatuko, zirikatuko.

Etsaiak bere burua jaramonik gabe, bere itzak aintzakotzat artu gabe gelditzen zirala ikusirik, estanda eragingo zuan berebiziko zirikaldia arildu zion.

Artu zuan, Beñona'k dionez, Jesukristo gure Jauna ta mendi galant-galant batera eraman zuan, eta lurbirako éreindi guziak eta beren lairontza, alaitza erakutsi zizkion, eta esan zion: *guzti auek zuretzat emango dizkitzut*, (nere aúrean) *auzpezturik gurtutzen banazu*. Orduan Jesus'ek esan zion berari: *Oa emendik Satan ori, idatzia zegok, bada. Ire Jaun eta Jainkoa gurtuko dek eta bera bakafik omenalduko dek*.

Zirikaldi au gertutzeko aukera-aukerakoa zan Beñogeirena zeritzaion mendi-txuñuaren galdoña, erpiña, bertatik ikustadi bikaña agertzen zan Jeriko alderuntz, Jordan ibai aldeko ordekek eta an sakonagoan Perea ta itxaso laren urertzak milizkatzen zituan zelai zoragañiak agertzen ziran. Araxe eraman zuan, bada, etsaibeltzak Jesukristo gure Jauna, esan zion: «Begira, nor naizen, lurbira onetako nagusia naiz: oña or nere éreindiaren zoragaña» ta une batean, agindu batez bezela, gaizkatzalearen (Salbatzalearen) begi aúrean éridirik ederenak, itsasalde apain, mendi liluragañi, uri loratsu, zarate (kai, puerto) ornitu, itzal gozo ta ugarte atsegiñak jartzen dizkio. ¡Ura zan lurbiraren zoragaña!

Onetan etsai galdua, gezur argiz txotil eta ikusgañi Jaunaren aúrean jañirik dio: Oña, begira nere alaitzaren eder-atsegiña, au guztia zuretzat nere aúrean auzperturik gurtutzen banazu.

Uste zuan etsaibeltzak oraingoan Jesukristo gure

Jauna atxitu ta menderatu bear zuala. Baña ¿nola itz dagio etsaibeltzak oñela? ¿bereak alditu, ordea, eskeintza oiek? ¿darakuskion eñeindi, aberastasun, zorion, alaitza oiek, bere eskuz, bere almenez egiñak ote dira? eta ala ez izanik ¿zer eskubidez dio bereak dirala? ¿nola eman lezaizkioke? ¿nola ausartzen da bera eskeintzen Jesukristo gure Jaunari bere mende-tzaren ordañez? gezurti utsa dalako, gezuraren aita izanik gizonari gezuratan eskeintzarik oparoenak dagizkion eran, Jainko berari ere lotsaren apurik gabe egiten ausartzen dalako.

Ona emen etsaibeltzak gizonarekin saritan dabilkin zirikaldi ta zirikapidea, gizona eñen agintaritza, nagusitasun naian bere buruaren galentasan aizez ikusten duanean berak agintaritza iristean izango duan zorion eta pakea zurikeriz irudikatzen dizkio.

Nagusitasun ori iristeko, bere eskuratzeko, ordea, eragozpen asko aurrean jartzen zaizkio ta saritan bidez garaitu eziñak, eta orduan bere griñak aizkuretu ta bere aundinaikerian liluratuaz onela zirikatzen du. Agintaritzako zorion, aintza ta gain-gaiñeko pake ori izan nai badituzu bearekoa da oñetarako dauzkazun eragozpenak onez ala txarez austeia, onelako gizon kaluniz betetzea ta eñiaren aurrean burua jasotzeko nor ez dala uztea, beste alakori bizibidea bidegabe galtzea, besteari bere aberastasun eta etxe ondasunetan kalteak egitea, zure aldeko ez diranai eñukirik gabe gaitz egitea, itz batean zure anima neri ematea, ta orduan nagusi, buru ta eñiko zoriontza zurea izango da.

Gezura ta gezurazko eskeintza esan nezaioke done askorekin, ez daukak, bada, ik zorionik eta ez daukanak ezin inori eman. Ala dio Isaias Igarleak ere itz auetan: *Non est pax impiis*. Ez dago pakerik, ez dago egiazko zorion beterik, ez dago animako aserik gaiztoentzat, beren gaiztakerien oroimenak, bada, beti atzetik jaraitu ta esetziko die ta beren pakea ausiaz mikaztu, ozpindu ta garaztuko dute beren zoriona.

Jaso dezakegu baita ere Beñion onen itz auetatatik beste erakuspide garai bat. Etsaibeltzak, gizon adimenari ainbestez eragiten dion aingeruzko adimen argiaz, lurbirako ondasun eta zoriontza guztia eskeintzen dizkio bere animaren ordañez. ¿Buruz ote dabil etsaibeltza eskeintza au egitean? Anbat, eta bai maltzurkeriz ere. Ongi daki, bada, animaren ondarte (coste, precio) askoz geiagoa dala, lurreko narogari guztiena baño, garbi dakuskigu egi au, Jesukristo gure Jaunaren itz osasungari aietan: *Quid enim prodest homini si mundum universum lucretur, animæ vero suæ detrimentum patiatur*. Zer aureratzen du gizonak, lurbirako ondasun guztien jabe egiten bada, bere animaren ondamendia bere buruari dakarkiola. Eta au ongi ikusten zualako, Jesukristo gure Jaunak itz maltzur aiei sendo erantzunaz bere begien auretik laister batean uxatzen du txerren beltza. Gertakari onetatik atera dezakegu ondo gure anima zer dan eta zenbateko ardura jari bear degun bere betiko osasuna iristeko.

Etsaibeltza bere azkeneko sare maltzurrean arapatua ikusi zanean igesari eman zion eta bereala

aldatu zan Jesukristo gure Jaunaren inguruko izakera. Arkaitz soil-ikaragariz jositako menditarte bakar ura, zorionleku baretsu biurtu zan. Jaunaren aingeru doneak agerturik, maia eder jantzi ta oturuntzarik opa-roena auñera ekañi zioten bere gose goña guriki asetzeko, ta begirune ta maitasunik biozkoñenaz agur, goramen eta zorionik gozagarrienak zegizkioten. Kristo gure Jaunaren garaipen ondore onek zeruko atarialdea zirudian. Atsedena ta pakezko zoriontzaren abiera pozkidatsua.

Ona emen N. E. M. lur onetako gure bizitzaren irudi bizia. Guztiok etsaiaren zirikadaz erasoak izan giñezke edozein une ta lekutan, baña Jainkoak ez du uzten atergabeko, etengabeko zirikadaz gu etsaigandik erasoak, esetsiak izaterik, eta erasoaren menderatze ta garaipenaren ondoren atsedeen eta gozamenenez asetzen, ezitzen gaitu.

¡Pozkidatsua benetan, etsaiaren zirikaldi, esespen eta eraso gogoñari luzaroan arpegi eman ondoren, gure biotzeratzen dan poz eta barealdi ezti-gurena! Auxen da unerik egokiena gure indañoak bildu, sendotu ta mardultzeko ta auñerantzean izan dezazkegun gudatetarako gertutzeko.

Gertu gaitezen, bada, otoitz eta biotz garbiaz eta batez ere Jaunartze doneko aingeru ogiaz gure animaren almenak sendotuaz Jaunaren gudaketak gogo leyatsuaz jokatzera, lur onetako garaipen pozkidatsuen ondoren, Jaunaren betiko bazkari zoriontsuan bildu gaitezen.

Ala izan bedi.

Beñogenaro'ko bigarren Igandea

Math. Don. XVII, 1-9.

Jesus'ek Pedro ta Jakobo ta Juan bere anaia lagun artu ta mendi guren batera igo zan: eta aien aurrean argibefitu zan. Eta aren arpegiak eguzkiak bezela irargi egin zuan: aren soñekoak, beñiz, elufa bezin zuri biurtu ziran. Onetan Moises eta Elias berakin jardunean agertu zitzaizkien. Pedro'k, beñiz, artan tarte artuaz, Jesus'i esan zion: «Jauna, goxo, eder zaigu emen egotea: gogoko bazaizu, dagizkigun bertantxe iru bizitegi, Zuretzat bat, Moises'entzat bat eta Elias'entzat bat. Oraindik itza aozuala, odei argi batek bañunpean artu zituan, eta odeitik asperenak onako au zion: Auxe da nere baitako nere Seme kutuna, entzuiozute berari. Ta ikasleak ori entzutean, auzpez erori ziran eta oso beldur ziran. Eta Jesus berenganatu ta ikutu zitun eta esan zien: Zuti zaitezte ta ez beldur izan. Aiek, beñiz, begiak gora jasorik, Jesus izan ezik, etzuten beste inork ikusi. Eta menditik bera zetoztela Je-

*sus'ek aginduz esan zien: Ez esan iñori ikusita-
korik, Gizonaren Semea ilen artetik piztu arte.*

Gaurko Beñion doneak, N. E. M'ak, Jesukristo gure Jaunaren bizitzako gertaerarik argitsuenetako bat edesten digu, Berari jañaitzeko biotza irazeki ta berotzen digun gertaera alai-gogoangaria.

Jesukristo gure Jaunak bere eriotzaz lur au utzi bear zuan garaia ureratzen zetoñen, eta bere esku ongile guzieldunak beartsuen alde, makal, eri eta elbarrien alde egin zituan mirari arigariak et-ziran naiko izan, Judaeri'ko askoren biotz gogoñak biguntzeko, apaltzeko; et-ziran aski izan gaiztakerira jañiak zeuden aien begi itxuak iriki, argitu ta bideratzeko ta aietako asko ondu ta zuzendu bearean are ta geiago gortu, gaiztotu ta itxutu ziran, Jesukristo gure Jaunaren mirari arigariak alde, bide txaretiko egitadak bezela artuaz, deabruaren, txerenaren indarez egiten zituala uste izanaz eta besteai, gañontzekoai ere alaxe sinistu erazi naiaz.

Jesukristo gure jaunak Judea erian zerutar azia zabaltzen, mirari arigariak egiñaz eta alde guztitan bere almen eta eskualde guzieldunaren azteren goitarrak utzirik iru urte igaro ondoren, etsai gaiztoz inguraturua arkitzen zan, bera sare maltzuretari arapatu ta eriotza gogoñaz ondatu nai zuen etsai gaiztoz inguraturik. Au guztia ongi zekian Jesukristo gure Jaunak, au guztia argi ikusten zuan Jesukristo gure Jaunaren jainkozko begiratuak eta ikusi ez ezik, esan ere

egin zien bere bidali ta ikasleai onela mintzatuaz: Igarleak gizonaren Semea'gan idatzitako guztiak beteko dira. Jentilai saldua izango da, txoska, zigorka, azonaz ta txistuka ibiliko dute; ta azonatua izan ondoren, il egingo dute ta irugañen egunean piztuko da.

Bidaliak Jesukristo gure Jaunaren aotik itz aiek entzun zituztenean, (otz-otzik) izozturik, ormaturik, ezertarako arnas eta ausarpenik gabe gelditu ziran, ezin beren buruak artu zezaketen, bada, ezin ulertu zuten, nola gizon sail batzuek Jainko Berbera, beren irudimen eta ustetan Israel'go jaun eta agintari izateko etoñi zana, ainbesteraño beratu erazi zezaketen.

Jesukristo gure Jaunak, ordea, beren mindura gogor ura zerbait arintzeko, beren sinismena sendotu ta sustrai bikañetan ezartzeko ta beragan egizko uste, sinizta ta konpiantza osoa euki zezaten mirari berezi ta txit arigañi bat egin nai izan zuan beren aurrean. Artu zituan, bada, berekin Pedro, Santiago ta Juan Bidaliak, gero Jetsemani'ko baratzen bere atsekabe gañatz eta erio lañian lagunduko zioten aiek berak, eta Tabor zeritzaion mendi goi bateruntz igo zan. Mendigañiera eldu ziranean Jesus otoitzean asi zan bere ikasleakin eta onetan ari zala zearo irudiberitu zan. Bere arpegiak eguzkiak bezela argi egiten zuan, bere soñekoak eluñ bezin zuri biurtu ziran eta odei ditzikor batez zearo inguraturik gelditu ziran. Garai berean Jesukristo gure Jaunaren alde banatatik Moises eta Elias agertu ziran zorionez beterik eta Berakin izketan:

Bidaliak ikustean ikuskizun aren zoragarí ura, ariturik gelditu ziran. Eta Pedro'k zorion aren pozak eramanda esan zion Jesus'i: Jauna ementxe bizi bear degu: nai badezu egin ditzagun bertantxe iru bizileku, bat zuretzat, bestea Moises'entzat eta irugarrena Elias' entzat. Alako zorion ase aren aurrean ez da bere buruarentzat batere oroitzen, bera bizilekurik gabe ere ongi dago, Jesus era berí artan ikusirik bizi ezkerro, ez derizkio geiago ezeren bear danik. ¡Ain zoriontsu ta atsegiñez zeuden izan ere Pedro ta beste Bidaliak leku onetsi, bedeinkatu artan!

¿Nundik zetorkion Jesus'i diztirasun arigarí ura? Bere jainkotasunetik. Jainkotasunak zabaltzen zuan bere gorputz guztira argitasun ura, Kristo'ren gorputzean estalirik arkitzen zan diztiramen arigarí ura. Et-zeto'ren beste inongandik eta beste lekutatik, bere baruan zeukan jainkotasunaren ageri bat zan. Jesukristo gure Jaunak emengo bizitza ilko'rean, jainkotasuna ixil eta ezkutaturik zeraman bere baruan eta bere eskuaz eusten zion bere argitasuna ez azaltzeko; baña irudiberitze onetan, bere aintza ta gloriari azkatasuna emanaz, bide utzi zion bere gorputz donea argitasun eta diztiramen bereziz eder agertu zedin.

Loretegi eder bat naiz gauez eta naiz egunez berez ain ikusgaría izan a'ren, eguzkiaren printza bi-ziak argitu ta alaitzen dutenean, askoz ere apañago ta atsegiñagoa azaltzen dan eran, Jesukristo gure Jaunaren gorputz donea ere, lengoa berbera izan a'ren argitasun eta diztirasun aien bidez, bereziki ikusgaríagoa agertu zan.

Baña ¿nola adierazi zenbaterañoako argitasun eta edertasuna artu zuan Kristo'ren gorputzak eta bere ingurualde guztiak? guretzat ez dago argitasunez eguzkia baño argi nagusiagorik; eguzkiaren argiak argitasunez beste argi guztiak austen ditu ta eguzkia piztutzen, agertzen danean beste argi guztiak bere aurrean moteldu egiten dira: beste ainbeste esan dezakegu elur ikutu gabearen zurtasun eta garbitasunakiko ere. Onegatik, bada, gizonak nolabait adierazteko Jesus'en gorputzaren argitasun eta diztiramena, eguzkiaren argiakin berdintzen du eta bere zurtasun eta garbitasuna elurarekin antzeratzen du beste itzik eta esanerarik arkitzen ez dualako Jesus'en gorputzaren apainduri berezi te neurigabe ura, zan bezela aitatu ta adierazteko.

Ez da aritzeko, bada, Pedro Bidali doneak bere begiak iriki ta ikuskizun ain zoragarri aren aurrean arkitzean, itz eder aiek esatea: *Domine, bonum est nos hic esse*. Jauna, ondo gaude ementxe, bertantxe bizi bear degu, egiñik orretarako iru bizileku eder. Eta Pedro Doneak Jesus'en zorionaren txistil, tanto au ikustean, ainbesteko gañez, berotasunez itz eder auek esan bazituan, ¿zer izango ote da betiko zorion osoa ikustean? Pablo Bidali doneak gai onetan itzegiñez, esaten digu: gure begiak ikusi lezaketena, belarriak entzun ta gure gogoramenak asmatu ta iruditu lezaketen guztia, motza ta ezereza da, Jainko gure Jaunak bere seme zintzoentzat gertuta daukan egizko zoriona neurtzeko. Sari aundia benetan, sari bikaña, begiak betean beti berari begira bizi bear genuken sari neurigabea. *Merces tua magna mimis*. Gogorapen auek

saritan bere buruan zebilkialako: «Aurera, bizkortu zaite anai astotxoa» otsegiten zion Prantzisko doneak bere gorputzari donetasuneko bidean zerbait nekatzen zanean; bizkortu zaite, gero egunen batean eskeñak emango dizkidazu, bada, neke auekatik, Jesukristo gure Jaunaren antzekoak zeruan egiten geranean.

Eta ¿nor da gogorik egiten et-zaiona zorion onetara eldutzeko? ¿Nor da besoak gurutzetuta ezer egin gabe gelditu nai izango duana, betiko zorionaren itxaropena galduaz? Biotz gogoña, biotz beltza. N. E. M. orielakorik balitz, betiko zorigaitz ikaragarria bere gain artzera iya etsian dagona izango litzake Kristoren bidetan batere nekerik artu nai ez duan Kristau epel, zorigabe ori.

Eta ¿zer egin bear degu sari bikain ori, betiko zorion ori irabazteko? ¿Zer bideri jaraitu bear diogu Jainkoa begiz begi ikusten dan zoriondegira eldutzeko? Aita Betikoak adierazten digu gaurko Beñionean argi asko ta itz gutxitan zer egin bear degun gure betiko zorion ori irabazteko.

Beñionak dio: Pedro Bidalia lengo itz aiek esaten ari zala, odei argi-diztikor bat gañeratu zitzaiela ta erabat odei artetik itz auek entzun zirala: Au da nere baitako, neri ain atsegin zaidan nere Seme maite-maitea. Itz auek berak Jordan'eko Jesus'en bataioan ere aitortu zituan Aita Betikoak; baño gaur beste esaera beñi bat geiagotzen dio: *Ipsun audite*: entzun zaiozute berari ta auxe da gure betiko zorionaren bide bakaña ta beña: *Ipsun audite*: entzun berari.

¿Noiz itzegiten digu Berak? Ebanjelio Donetan, Eleizaren itz eta erakutsitan, Gotzai (Obispo) ta Apaiz

Jaunen itzalditan, Eleizaren gertaera ta mirari aunditan, Espiritu Doneak gure biotz eta burura bialtzen dituan goiargi ta gogorapen osasungaritan.

Erakutsi ta dei auek entzutera beartuak gaude, bada, lur onetako ilunpe ta laño artean zuzen ibiliko bagera betiko zorionera iristeko. Eta ez da naikoa azalez eta gorputzeko belariz entzutea, ez, gure barundik eta biotzez entzun bear degu, entzundako ori biotzez eta gogoz bete nai izanaz, entzundako sinismen ori gure egite ta bizitza guztian erakutsi ta azalduaz, bestela ezin giñezke Jainkoaren begitarako atsegiñak izan, Pablo Bidali Doneak dio bada, itz auetan: *Sine fide impossibile est placere Deo*: Sinismenik gabe ta sinismen ori gure bizitzan eta egitetan erakutsi gabe ezin giñezke Jainkoarentzat adizkide ta atsegiñak izan.

Jesus'en deiari jañaitzera beartuak gaude, beraz, betiko zoriondunak izan nai badegu. Eta onetarako lendabizi luñeko atsegin labuñak, aizeak eramaten dituanak, egun batean amaitzen diranak eta pekaturako bide labañak utzi bear ditugu, eñeztasun eta azkatasun areagoz Jesus'en deiak gure baruan entzun ditzagun, eta oñela luñeko pozkida zirtzil oiek uzten goazen bezela, gero ta geiago somatuko degu gure barunean Jesus'en egizko gozamenen zoriona ta pekatuaren ziztrinkeri guztietatik garbituaz Jesus'en gozamen sakoñetan ondo-ondoraño sartu nai izango degu. Gaurko iru bidali berezi auek bezela, Jesus'en baruko adizkidefasunean sartzen dan animak, Jesus'en adizkide artua egiten dan animak bein baño geiagotan esango du Pedro Bidali donearekin: *Domine bonum est nos hic*

esse. Jauna, zorionaren etxean bizi gera. Ementxe bizi bear degu. Eder, gozo da emen onela bizitzea.

Baña ez ditu eramaten Jesus'ek beti bere adizki-deak poz eta gozamenen bidetik, batzutan guruz-bidetik neke ta atsekabe artera eramaten ditu, negar erazitzen die bere leyaltasuna zenbaterañokoa dan ikusteko ta orduan animak bere oztasun, ilunpe ta neke artetik Tabor mendira, betiko zoriondegira begiratu bear du bere neke ta atsekabeen ordaña an dagola gogoratuz eta era onetan Jesus'en gurutzea eramateko gogoa beritu, suspertu ta indartuz.

Beñion Doneak esaten du: Aita Betikoaren itz aiek entzun zituenean Bidaliak ikaraz luñera jausi zirala, ta Jesus'en ikutuz beñiro jeiki ziranean Jesus bakañik ikusi zutela.

Jesus bakañik eta beste iñor ez da gure zuzentzale ta argi egilea betiko zorionaren bidea erakusteko. Bere itzak bakañik eraman gentzazke egizko bide zintzotik eta oregatik bere itza entzutera beartuak gaude. Eta lur onetan aberastasun aundi bat egin eta zartzarogan amar ala ogei urte onak igaro nai dituanak bere bizitza guztian lan eta lan jarduten dan bezela, baita ere kristau guztiok Kristoren itz eta erakutsiak entzun eta bere bidetik jañaitzera ta bein eta beñiz gure argaltasunez erortzen bagera ere, beñiro ta azkar jeikitzen leyatzera beartuak gaude, betiko zorion aundi ura irabazi ta Jesus'ekin betiko bizitzan sartu al izateko.

Asmo ta erabakiak artu ditzagun, bada, Kristo'ren itza entzun eta berari jañaitzeko, otzak bagera zintzo-

tzeko, ta zintzoak bagera oraindik geiago berotzeko,
era onetan gure bizitza labur onen ondoren betiko ain-
tzadian Kristoren gorputz done-argia ta bere arpegi
edeña ikusteko zoriona izan dezagun.

Ala izan bedi.

Be'rogenaro'ko iruga'ren Igandea

Luk. Don. XI, 14-28.

Jesus deabru, etsaibeltz bat ateratzen ari zan, eta etsaibeltz ura mutua zan. Eta etsaibeltza atera zuanean, mutuak itz egin zuan eta gizaketa aritu zan. Zenbaitzuek, ordea, esan zuten: Beelzebub deabru-nagusiaren buruz aterazten ditu etsaibeltzak. Beste batzuek txurikatuz, zerutiko ezaugarri bat eskatzen zioten. Berak, ordea, aien uzkurkeriak ikusirik, esan zien: Bere baruan naspildua dabilen efi oro makildurik, txauturik gelditzen da, ta etxea etxearen gain erortzen da. Beraz Satanas ere bere baitan buruausten, eziñetan badabil, nola tinko iraungo dute bere mendekoak? Eta, diozutenez, Beelzebub'en izenean aterazten baditut etsaibeltzak; zuen semeak norenetan jaurterazten dituzte? O'regatik aiek zuen epaile izango dira. Beraz Jainkoaren beatzez etsaibeltzak aterazten baditut, Jainkoaren menaldia eldu zaizute noski. Gizon bikañak izkiluz orniturik ezkaratza zaitzen dunean, lasai

daude bere mende dauzkanak. Ura baño bikañagoa etoñiaz, ordea, garaitzen badu, kenduko dizkio beraren indar ziran izkilu guztiak, eta kondañaulkiak banatuko ditu. Nerekin ez dagona, nere aurka dago; ta nerekin biltzen ez duana, pañaztatzen ari da. Etsaibeltz likitza gizonagandik ateratzen danean, lur etzetan barna dabil atsedean bila ta ez arkiturik, bere artean dio: Len erten nintzan nere etxera itzuliko naiz. Eta eldutzean, eskutaz txukundu ta apaindua arkitzen du. Orduan joan, ta beste zazpi etsaibeltz berekin lagun artzen ditu, ta sartuta bertan bizitzen dira. Ta gizon aren azkenak, lenak baño okeñago izaten dira. Onela mintzo zalarik, gizosteartetik emakume batek oyuka, esan zion: Zorionekoak zu ekañi ziñun sabela, ta txurupa ziñun bulafak, bañan arek esan zion: Are zorionagokoak Jainkoaren itza entzun eta zaintzen dutenak.

Gaurko Beñonean adierazten zaigun gertaera au, Jesukristo gure Jaunaren ageriko bizitzaren irugarren urteko Azaro aldean gertatu zan; beraz bere eriotza baño ilabete batzuek lenago. Garai onetan beñere baño beroago zebiltzan Jesukristo gure Jaunaren etsaiak bere aurka, ta alegin guztiak egiten zituzten bera azpiratzeko, eñiaren aurrean bere izena eratxi ta galtzeko, ta eñiaren biotzean irabazia zeukan mala irabazi ta berenganatzeko. Jesukristo gure Jauna, ordea, et-zan oregatik ikaratzen, et-zan atzeratzen eta bare, otzan-otzan azaltzen zan beren aurrea ta bein

eta beriz argitasunik garaienaz erantzuten zien beren galderai beren biotzak zerurako irabazi nairik, baña etsai maltzur aien buru goiak eta adimen itxuak Jesukristo gure Jaunaren esan eta egiak ontzat artzen ez bazituzten ere, beren inguruan Jesukristo gure Jaunari entzun nairik biltzen zan eria asko argitzen zuten, gaur egunean esan eta egi aiek berak gogo onez eta biotz zintzoaz entzuten dituna argitu ta bideratzen duten bezela.

Gaurko Beñionak dionez, bada, Jesus etsaibeltza, deabrua bialtzen ari zan, eta bera mutua, mintzula zan. Eta etsaibeltza bidali zuanean, mutu, mintzul zegoanari itza etori ta itzegiten azi zan eta inguruko guztiak aritu ziran.

Ez du esan nai gaurko Beñionak, Jesus etsaibeltz mutua aterazten ari zala esatean, etsaibeltz ura mintzula zanik, baizik bere mendean zegoan gizona mintzul, mutua zegoala, deabruak mututzen, etsaibeltzak mintzultzen zualako. Beraz Jesukristo gure Jauna eruki ta maitasunezko eginkizun bat egiten ari zan, eta egin ere egin zuan etsaia bidali ta mintzulari itza itzuliaz.

Jesukristo gure Jaunak bere bizitzan egin oi zituan mirari arigarri auek egitean bere jainkotasuna gure begien aurrean sendotuaz gañera, gure animaren onari zegokion erakuspenen baten irudi bizi izan oi ziran, eta alaxen da gaurko gertaera biozpera au ere.

¿Noren irudi da gaur Beñionean aitatzen degun gizonaren baruan zegoan deabru ura? Ogenaren, pekatuaren irudi berbera, zeatza, gizona bein ogen astunean jausten danean bere biotz eta animan ogena

nagusitzen da ta ez dio Jainkoari lekurik ematen, ez dio Jainkoak bialtzen dizkigun argitasunai biderik egiten, gure biotzera deika datozen Jesus'en dei maitetsuari atea itxi egiten dio ta oregatik Jesukristo gure Jaunak egunen batean oso zoñotz esango ditu, orain pekatariakiko kupiturik esaten dituan itz sakon oiek: *Vocavi et renuisti me*. Dei egin nizuten eta ez niñuzuten aintzakotzat artu.

Eta etsaibeltzak gizonaren baruan sartu zanean izpiderik gabe, mututurik utzi zuan bezela, pekatuak ere gizonagan nagusitzen danean Jainkoaganako izpiderik gabe uzten du, batez ere otoitz eta aitortzarako eragozpenik aundienak sortu ta saretzen dizkio.

Ondo daki etsaibeltzak otoitza dala gizonaren eskurik bikañena ta indarrik garaiena Jainkoagana biurtzeko ta oregatik bere alegiñik aundiena gizonari bide ori kentzeko, otoitza galerazteko zuzentzen du, ta ez da aspertzen kristauari otoitza zearo utziari arteraño.

Onetarako era askotako bideak erabili oi ditu, badaki batzuetan bide osasungariak ere aurean jartzten, aietxeekin bere naikeri galdua iritxiko duala iruditzen zaionean. Badaki otoitzean ari dan kristauari, bere pekatu beltzen kezka sortu ta jeikitzen, kezka oien lotsa ta gañaztazunez otoitza utzierazteko; kezka oien bidez minberatzen du, gogaitzen du ta otoitza goñotagañi egiten dio ta orduan kristauak gogorapen oiek ezin eramanik eta kezka oien laztasunaz mindurik otoitza laburtzen, gutxitzen joaten da, azkenean zearo utzi ta baztartzeraño.

Bein onetaraño eldu diranean, ari biribil bat amildegian bera pirilatzen dan bezin laister beratzen da gizona itxuturik pekatuak aundienetan ondo jotzeraño, ta otoitzaren oitura on ura emakume ta zaientzat bakarrik dala uste izateraño eldutzen da. ¡Baña gauza arigari ta egiaz ulerkaitza! Zenbat auetako pekatari aro jaurlari (gobernadore), endore (alkate) edo agintari baten aurrean burua makurtuta ibiliko ote lirake edo ibiltzen ote dira beren buruak luñeraño eraxi ta nabarmenduaz beren naiak iristearen, eta Jainkoaren aurrean belauna bikatzera ez dute jari nai beren buru aroen beratze ta azpiratze aundiegia derizkiotelako! ¡Zenbat auetako nekatu gabe jarduten dira erege ta agintariai eskatzen, nai ta itxaro dituzten onaldeak, oretarako egonbear, luzapen eta oztasun asko eraman eta ikusi bear izaten badituzte ere, ta ez dute lanik eta ardurarik artu nai beren ezpain eta aoa iriki ta Jainkoaganantz itzultzen, bere esku guzaldunagandik animarentzat bear dituan esker eta laguntza ugariak iristeko! ¡Jakín bezate, bada, gizon utzaño ta ezerez auek, gizona aundien, goien eta bikañen dala, jakintsu batek dionez, Jainkoaren aurrean belaunikaturik, bere zerutar laguntzaren eske dagonean!

Onezkero beste era batean biziko ziran, noski, kezka aiek entzun eta otoitz aiek egiñaz jaraitu izan balute pekatuan jausi ta etsaiaren mendean bizi ziran pekatari aiek, orduan, bada, kezka aien eta otoitz aien bidez Jaunagana ta aitortza on bat egitera etorriko ziran, biotzaren egizko pake ta zoriona arkiturik, baña onetarako jartzen du ain zuzen etsaiak eta pekatuak

bigarren eragozpena, onetarako mintzultzen, mututzen du, bere pekatuen aitortza aitortariari ez egiteko.

Gorputzaren gaitz larri edo zauri ilkor bat sendatu al izateko sendagileari azaldu bear izaten zaion bezela, gure pekatu larri ta ilkoak ere aitortariari aitortzera beartuak gaude erabat beren damutasuna eukirik, aien barkapen eta garbitasuna iritxi nai badegu. Gorputzaren gaitzik larri ta zauririk minkoena ere sendatu liteke, ordea, batzutan sendagilearen bitartekotzarik gabe, ez dago, bada, gaitz eta zaurien sendapena sendagileen esku bakarrik, baña animaren gaitz, zauri edo pekatu astun eta ilkoia Jainkoaren bitartekoa dan aitortariak bakarrik sendatu ta garbitu dezake; zeatz eta garbiro erabakia dago, bada, Idazti Donean utsegin ezin dezaketen Jaunaren itz auekin: Zuek luñean barkatuko dituzuten obenak zeruan ere barkatuak izango dira ta zuek luñean barkatuko ez dituzutenak, ez dira zeruan ere barkatuak izango.

Au onela izanik, bada, pekatariak berez, iñoren zuzpeirik gabe lenbaitlen joan bear lukete aitortzara, beren pekatuen barkapena iristeko, baña askok bestera egiten dutela ikusten degu; luzapenetan, geroko gerorako utziaz ta luzaroan etsaiaren maltzurkeriz mututurik bizi dira beren animen kalte aundiaz. Beste asko badira aitortzera joaten diranak, baña pekatuak lotsaz aitortu gabe uzten dituzte, ala zenbat pekatu larri egin dituzten esatean, diran baño gutxiago aitortzen dituzte ala ogenaren astuntasun eta aunditasunari dagozkion ajola aundiko xeetasun eta gauzak ixiltzen dituzte. Auek guztiak obe lukete aitortzara

ureratuko ez balira, guztiok dakizutenez, bada, lengo ogen guztiak atzera beregain artu ta donauste edo sakrilejio aundi bat geiagokin gelditzen dira-ta. Auek guztiak etsai-beltzak mutututa dauzka, bere izu, bildur eta lotsaz mututzen ditu, baña askotan ez die etsai maltzurak kristau auei zerurako itxaropena galtzen, baizik gero, eriotzako orduan ondo aitortuta damutuko dirala esaten die, ta tunel ilun luze baten azkenean arteerako zulo txiki bat eta argitasun bat ikusten dan bezela, beren eriotzako orduan oben guztien damua artu, aitortza on-on bat egin eta zerua irabaziko duten itxaropenaz arnasten ditu; baña eriotzako ordu lañi ura ureratzen danean, orduan jokutzen du etsaibeltzak bere joku ta boñokarik ikaragarriena, bizitza guztian bere atzapañetan euki duan anima ura ez du azkatu ta bere mendetik utzi nai, ta ordu ikaragarri artan berizkatzen eta aunizten dizkio lengo kezka guztiak, lengo bildur, ikara ta lotsak aundiagotzen dizkio, ainbesteko pekatu taldeak begien aurrean jañiaz, eta mirari aundia, bizitza guztian goñotatzen jardun dan Jainko azkengabe erukitsuaren egiazko mirari aundia bearako du estuasun lañi artatik ondo atera ta bere anima salbatuko badu, baña geienean eta iya beti onela bizi izan dan kristaua, Jainkoaren argi, laguntza ta erukia zapuztu ta baztañeratzen jardun dan kristaua ez da bide onera biurtzen azkeneko orduan eta geienean eta iya beti inpernuko leizbeltzera amiltzen da.

Gaurko Beñionak dionez, Jesukristo gure Jaunak deabrua bialdu zuanean, gizona itzegiten asi zan eta

orduan an inguruko gizataldeak aritu ziran mirari ura ikustean, baña aietako batzuek zioten: Beeltzebu etsaibeltzaren almenez deabrua bialdu du.

Ona emen luřeko gizonen izaera garbi azaltzen digun izpilu berdingabea. Guztiak Jesukristo gure Jaunak egindako mirari ongilea ikusten dute. Ala ere batzuetan mirari ta ontasun arek arimena, poza, sinismena jeikitzen du; besteetan, beriz, gořotoa, sumiña, kiskalmena.

Lenengoak miraria bařu paketsu ta bareaz, gogo ta biotz zuzen eta zintzoaz ikusten dute, bigařenak bařu eřeaz, ar gaiztoaz, etsaitasunez, griñaz, itxumenez, bekaizkeriz, berekoikeriz.

Jesukristo gure Jaunaren mirari beři arek eři ta gizatalde artan sortu zuan aritasuna bidezkoa zan, eta ořegatik gizatalde ura mirari ikaragaři ari begira ariturik zegoan, etsaiak bialtzeko ere almen aundia zeukala ikusirik.

Jesukristo gure Jaunaren etsaiari, ordea, ain zuzen eřiaren gar, goratasun eta alderamen onek miñik aundiena eman zien eta beren zitalkeri ta ezin-eramanaren erdian, mirari aren egia ezin ukaturik, eři guztiaren auřean gertatu zalako, biurikeri bat asmatu zuten esanaz, et-zuala Jesus'ek jainkozko almenez bidali etsaibeltza, baizik Beeltzebu deabruaren almenez. Onelakoak dira gaur egunean ere zital asko. Izan daitezke gizonik ongile ta zintzoenak, ez dute beren alde itz onik izango, egin ditzazkete nai badute ontasunik aundienak, ez dute berentzat esker onik izango, bekaizkeri ta gořotoaz begiratuko die, beren on-egite

guztiak alde txarretik artuko dituzte ta ainbeste laguntza bikain eta leyatsuk beren biotzetan maitasuna ta esker ona sortu bearean gofotia ta zitalkeria piztuko dituzte, bear bada, egunen batean beren bidegabekeritan jaraitzeko esia jari ta bidea eragotzi zielako. Ez da beren biotzetan egia nagusi, baizik berekoikeria.

Zer egin N. E. M. gizartean onelako nasketa, griña ta auzia ateratzen danean, nora jo egiazko bide ona arkitu ta berari jaraitzeko.

Gaur eguneko Beñionaren amaieran egiten digu Jesukristo gure Jaunak zalantza ta lausokeri auen erdian arkitzen geranerako argi-urátze bikaña, ona bere itzak: *Beati qui audiunt verbum Dei et custodiunt illud*. Zoriontsuak Jaunaren itza entzun eta gordetzen dutenak. Guztiok gabiltza lur onetan zorionaren egariz, zorionaren azteren bila. Gogo au berdiña da guztietan; ezberdintasuna, bakoitzak zorion ori iristeko jartzen duan oñarian dago. Egizko kristauak Jainkoagan, bere bidetan, bere erakutsitan, Jainkoaren eta lagun urkoaren maitasunean, itz batean esateko, Jainkoaren itza zintzo entzun eta osoro betetzean jartzen du bere zoriona, berekoikeria zuzendaritzat duala dabilenak, beriz, berari ondo ez datorkion guztia azpiratzen du, bere griñen lausotan nastu ta bidegabetzen da ta lur onetako aurerapenen egariz nekatu ta auna-turik amaitzen du.

Entzun dezagun, bada, asierik eta amairik ez duan Jainkoagandik betiko itz garden-beñarik gabe au, egi uts-utsa aitortzen digun itz oneri gogo onez eran-

tzuteko Beragana gure biotza otoitzean jaso dezagun eta apaltasunez gure okeñen aitorpena egin eta azkespena eska dezaiozun, eta bide onetatik Jaunaren itz gozoa, gure izamen guztira ixuriko da garai bakoi-tzari dagokion argitasun berezia, betiko zorionaren atetara eramango gaituan Jaunaren ornimen garaia izango degu.

Ala izan bedi.

Be'rogenaro'ko laugar'en Igandea

Yon Don. VI, 1-15.

Jesus Galilea'ko Tiberi itxasoan urez-ur bestal-dera joan zan, eta gizaketa aundiak ze'raikion, makal zeudenetan zegizkian mirariak ikusten baitzituzten. Ofela, bada, Jesus mendira igo zan ta an zegon eserita bere ikasleakin. Aurki zan Paskoa, juda'ren jai-eguna. Onetan Jesus'ek begiak jaso ta gizatalde izuga'ria ikusi zuanean beraganuntz zeto'ela, Pilipe'ri esan zion: «Nundik erosiko ditugu, oiek jateko ainbat ogi?» Ori, ordea, txuliatuz zesaion, bai bait-zekian zer egitera zijoan. Pilipe'k, erantzun zion: «Be'eun denariren ogiak u'ri dira, bakoitzak txindor, ezerki bat artzeko». Bere ikasletako batek, Simon Pedro'ren anai Ander'ek dasaio: «Bada emen mutiko bat, bost garagar-ogi ta bi a'raiz; ba'ña zer dira oriek o'renbestentzat?» Ala ere Jesus'ek esan zien: «Eser-arazi itzazute gizonak». Tokia belartsu zegoan. Eseri ziran, bada, gizonak, bost bat mila. Jesus'ek, beraz, ogiak artu ta eskef-

etsi ondoren, eserientzat banandu zizkien; era berean araietatik ere, bakoitzarentzat nai ainbat. Ta ase ziranean, bere ikasleai esan zien: «Bil itzazute kondafaulkiak, alpeñik galdu ez ditezen». Bildu zituzten bada, ta bost garagar-ogitatiek naiko janda geldi zitzaizkien puskaz, amabi otar bete zituzten. Gizon aiek orduan, Jesus'ek egindako mirari ura ikusita, zioten: Au da zinez gizadira etortzekoa dan Igarlea. Jesus'ek, ordea, igarñi zionean berari eldu ta eñege eginerazteko bereganatuko zirala mendiruntz ostera igesi zuan bere buruz.

Gaurko Beñion donean edesten zaigun gertarian Jainko ta giza-arteko kidetasun berezi bat azaltzen zaigu, Jesukristo gure Jaunak beraiekin artu-emanean zuan lautasun gozoa ta bere eskuaren jainkozko almen izugaria.

Ikusgaria zan gizaketak Jesukristo gure Jaunaganako zeukan jaidura; alderdi guztietatik berari entzuteko garnez arã arã etorñi oi ziran giza-salak, eta bere itza entzuten ordu luzetan arãetaz egon oi ziran entzunbeararen-entzunbearnez jateko zeudenik ere gogoratzen et-zitzaieia.

¡Ainbesterañokoa zan Jesukristo gure Jaunaren jainkozko itz biziak beren biotzetan irazekitzen zuan suspermen eta arãeta leiatsua!

Jesukristo gure Jaun eta bidaliak ainbesteko gizaketaren leiari erantzunbearnez ezin arterik, betarik

atxitu al izaten zuten beren otordu legea egiteko ta bea'aldi luzeen ondoren beren buruai atsedean txango bat emateko bakar-lekuren batera biltzen ziran.

Alaxe gertatu zan gaurko Be'ion doneak edesten digun aldi onetan ere. Jesukristo gure Jauna bere bidaliakin, txalupan, Tiberiades aintziran ba'una bestaldera igaro zan beren nekeai opo'aldi bat emateko asmotan. Leku autatu au Betsaida'ko inguru polit bat da, aintziraren ipa'ean ezker aldetik, Jordan ibaia itsasoratzen dan alderdian, Galaad mendi-le'ioaren o'nean dagon mendilautxo belartsu atsegi'ña. Uraxe aukeratzan du Jesukristo gure Jaunak eta antxe dago bidaliakin aintziraize leguna artuaz, oskarbi urdi'neko eguzkiaren u'rezko e'ra'ñu gozotan. Aintzirako ur urduriak birbira dagite eguzki izpitan, noizik bein itsas-aizearen ahal meaz axala kizkurtuaz. Bidaliak pozkarioz daude beren irakasle inguruan. Beragandik artutako ezkerzorianez biotza aserik dutela, au'erantzerako zuzenbideak gogoz eta a'retaz entzuten ari dira. Onetan Jesukristo gure Jaunak begiak jaso ta u'rutirantz so egi'ñaz, aintzira ertzetik beraganuntz dato'ren gizatalde bat nabaitzen du ta (bere) biotza e'rukitu ta bigundu egiten zaio artzai gabeko artalde gose ura ikustean. ¡Ikuskizun ustegabea Jesukristo'rena, biotza bigunberatu ta e'rukiarazi zion ikuskizun kupiga'ña!

Et-zuan, ordea, ikuskizun onek Jesukristo gure Jauna ikaratu ta koldartu, baizik eta lur onetako bere eginkizuna gogoan zualarik, beraren zuzenbidetza egiteko asmoa berealafik artu zuan, lur onetako beartasunen asemena ta befikorako argitasuna emanaz.

Ikasbide egokia gizatalde onek ematen diguna N. E. M., Jainkoaren itza bazter utzi ta beraren bitartez bere biotz aulak indartzeko betarik eta arietarik artzen ez duten ainbeste ta ainbeste kristaumentzat. ¿Zer gertatzen zaie, zer ondoren gañatz bere buruai dakarkie onelakoak? Idazti doneak erantzuten digu garbi asko. *Aruit cor meum, quia oblitus sum comedere panem meum* (Ps. 101,5). Nere biotza legortu, gogaitu egin da bere bizigaría, suspergaría neregantzea aztu egin zaidalako. Onelako kristauak zabarkeriaren zabarkeriz beren buruai, Jainko gure Jaunak bere eríari zematutako ari ura erakartzen die: Luñera gosea bidalduko det, ez ogiarena, ezta urarena ere egaría, baizik Jainkoaren itzarena, ta orduan zure neskatxen edertasuna lausotu, litzatuko da ta zure gazteen bikaintasuna aunatu, erkinduko da (Amos, VIII, 11). Ta auxe gertatzen da zeazki Jainkoaren itza baztertu ta oñazpiratu duten erietan. Gazte auen biotzak txepeldu, auldu egiten dira sinismenean, ez dute kemenik arpegi emateko eleizaren alde, aitortzera ta jaunartzera joateko zalantzan dabilta, besteren esamesai begiratuaz ez dute arkitzen beren biotzetan bear bezelako berotasunik, bederatziuren, eleizkizun eta eleiz itzaldiak entzutera saritan joaten lotsatu egiten dira, ta Jainkoaren itzari bear dan garaian jaramonik ez emateak beren biotzetan utsunea irikitzen du ta utsune onetan oztasuna ta iluntasuna nagusitzen dira ta orduan beren biotzetan somatzen duten zorionaren gosea asetzeko luñeko zorion aize ta usteletara jotzen dute. ¿Baña beren biotz gosea asetzen aldute? Ez.

N. E. M., len baño ere sukartsuago, zaluago gelditzen dira, luñeko osin usteletan ase nai lutekelako jainkozko ur garbiak bakañik itzaltzen duan egaña, zorion bideak bakañik ase ta bete ditzakelako beren gale ta naikariak. Alaxe aitortzen digu Jesukristo gure Jaunak samaritar emakumeari esan zizkion itz aietan: Ur oñetatik edaten duan iñor guziak beñiro egañi izango du; nere uretik edaten duanak, ordea, ez du iñoiz ere geiago egañirik izango. Guk ere gaur egunean begiratua jaso ta gizaldiz-gizaldi Jesukristo'ganuntz begiratzen badegu giza-zail galantak atergabe Jesukristo'ganuntz joaten ikusiko ditugu ta sinismen bizia berañgan jañirik beren buruen eta eñien gaizkapena iristeañen eskeintzarik aundienak egin eta laztasunik gogorñenak beren gain artzen ikusiko ditugu. Jesukristo gure Jaunaren ondotik joateañen naiz negar malko lodiak ixurtzen naiz zañetako odolaz luña goñitzen ikusiko dituzute. Pedro Donea gurutzean buruzbera zintzilik ikusiko degu, Pablo donea lepoa moztuta, Inazio donea legoien agiñetan zeatuta, Lorentzo donea añañbañilan eñeta, ta auen antzera eundaka ta milaka, batzuek urpean sartuta, besteak surtan eñeta, urangoak piztiak janda, ezurak atera ta etenda ta beste ainbat eratarra beren bizia eskeintzen ikusiko dituzute Jesukristo gure Jaunari al danik urenetik jañaitzeañen. Itz batean gizaldiz-gizaldi gizaketa ugariak beren bizitza ta eriotza Jesukristo gure Jaunagatik eskeñiaz beraren jainkotasun, nagusitasun eta eñegetza aitortuaz ikusiko ditugu, Jesukristo gure Jaunaren garaiko [gizatalde aundi arek egin nai izan zuan bezela.

Gaurko Beñonean aitatzen zaigun Jesukristo'gana etorritako gizatalde aundia, aintzira ertzetik bidez-bide iruzpalau orduan etorri zan eta Jesus, ura ikustean, bigundu ta biozperatu zan. Jesukristo gure Jaunak bereala ezagutu zuan ume, emakume ta gizaketa aundi arek bere jainkozko itza entzutearen artu zuan nekea ta beren neke ta beñaz kupiturik bereala artu zuan aiei asealdi bat emateko asmoa, baña bere bañuan gorde ta ixildu zuan.

Orduan Jesus'ek txantxetan eta zirika, baña erabat berak laister egin bear zuan mirariaren aunditasuna sendoagotuko zuan eran, bidaliak aizatzen ditu galdezka esanaz: «¿Nundik erosiko ditugu, oiek jan ainbat ogi?» Felipe'k, orduan, biotzetik zetorkion bezin lau ta bero, baño Jesukristo gure Jaunak ziona iñola ere ezin zitekeala adierazi, kuturtuazi nairik dio: «Jauna bereun denariren ogiak ezer gutxi dira, bakoitzak txindor bat artzeko ere». Andres'ek beñiz bere aldetik etsia emanaz bezela dio: «Badago emen mutiko bat, bost garagar-opil eta bi añai dituna, baña oiekin oñenbestentzat ¿zer egin?».

Auxe etsiazi, gogoan artuazi nai zien Jesukristo gure Jaunak bidaliai beren mirari bikain eta txalogarri ura egiteko zori pozgarri ura eldu zanean, alegia berezko ezintasuna, berezko indar ta almenez ezin gizadi aren asebidetik arki zezaketela. Guztiak bada uste onetan zeudela Jesukristo gure Jaunak itza artu ta bidaliai benaz esan eta agintzen die: «Eser-arazi itzazute gizonak».

Jesukristo gure Jauna muñoaren galdoñean zegoan, bere egalean eta aintzirañoako mendilautxoan

gizatalde galanta bere zai zeukan eta Jesukristo'ren aginduz bidalien esana entzun bezela guztiak belar eze gañean etzaten asi ziran. ¡Ura zan ikusgañiaren edeña! Bost mila gizon aur eta emakumeak zenbatu gabe mordo batean bezela zelai-mendixkan eserita. Atzean Galaad mendi-leñoak, aurrean aintzira bare-alaia eguzkiaren eñañutan dizdira kizkuñak egiñaz, bien bitartean giza-samalda galantak eta muñoaren gañean Jesukristo gure Jauna begi atsegiñez eta gozamenez guztiai begira. Guztiak bere semeak dira ta guztiak berari begira dauzka, bere aotik zintzilik. Onetan, bere eskuetan artzen du ogi bat bere gañean añaia duala ta besoak goruntz jasorik otoitz dagi zeruruntz bere Aita Befikoari eskeñak egiñaz, emanaz une auetan erakañiko dion aintzagatik. Onetsi ta bedein-katzen ditu ogi-añaiak ta bata-besteai banatzen asten da ogi puska bakoitzaren gañean añaia zatia ipiñiaz. Bidaiiak banan-banan guztiai zatitu-ala zabaltzen dizkie bakoitzari ogi-añaitik nai ainbat emanaz. Gizaketa ta bidali berberak ere añitzen daude ainbesteko mirariaren aundiaz eta añitasun au beren bañundik azalera jauzkatzen zaie laister, Jesukristo'ren goraldiz. Guztiak ogi miraritsuaz beren bañuak berdindu ta gosea ase zutenean, laister albo batetik eta bestetik pozaldi ta irintzika asi ziran Jesukristo gure Jaunaren gorape-
nez.

Oña gaurko Beñioneko mirariaren azalpen labuña. Jesukristo gure Jaunaren eskuetatik irten zan mirari pozgañi ta asegiñetakoen oñek, Jainkoaren esku ta almen neñigabea gogorazten digu. Jainko gure Jau-

nak bere eskuz ezerezetik luía ta eguzkia ta izaíaak sortu ta gizonarentzat eta gizonaren bizipiderako luíari eman zizkion agintza ta legeak gogorazten dizkigu. *Germinet terra herbam virentem et facientem semen, et lignum pomiferum faciens fructum juxta genus suum*, esan zion Jainkoak luíari Idazti doneak dionez. Erne beza luíaak belar eze aziduna, ta bere menduaren erako igalia emango duan zura igaliduna. Baña ariagaíak baldin badira Jainkoaren aginduz eta legez luíean biribilátzen diran mirariak, ala ere ez gaitue bear ainbat aítzen gertari zoragaíi auek, ez gaitue bear ainbat txunditzen, eta onenean Jainkoaren eskuzabal ainbeste ontasun ixurtzen dizkigunari et-zaigu eskeíaak ematerik ere gogoratzen, Agustin doneak dionez, mirari auek ikusiz ikustera-egin egiten geralako, *assueta vilescunt*.

Almen onetxen bidez, bada, lur landuan Jainko gure Jaunak ezaíi zuan legez, ereindako aleak alez ornitutako burua sortzen duan bezela, Jesukristo gure Jaunak jainkozko esku berberaz apuko artan ogi-aíai aiek ugaldu zituan, beregana eldu zan gizadi aren onez. Gaurko mirari ariagaíi onek eskutik bezela beste mirari ariagari batena narama. Igaíi diozute onezkero, noski, zer esan nai deten: Eukaristiko mirari berdingabea alegia. Jesukristo gure Jaunak Paskuko garai artan beragana zetoíren gizatalde ugari ura bezela ikusi zituan, uréngo gizaldi ta gizalditara irudimenaz begiraturik, beragan sinistuko zuten giza-saíl etengabeak eta bere gogo ta animak sendotuko zituan betiko janaria sortzeko, bere jainkozko almen eta maitasu-

naz zeru-lurak ariturik utziko zituan miraria egin zuan.

Mirari au da Jesukristo'ren ondorengo diran apaizen eskutan egunero, kristau zintzo ta garbien donefasunerako, beitzen dan ogi miraritsua. Aingeruen ogia izenaz deritzaiona, ta bera artzen duten gizonak aingeru biurtzen dituna. Sendi ta etxetan pakea ta onbideak zabaltzen dituan ogi miraritsua, gizartean anaitasuna ta alkar-laguntzarako zuzenbideak ernearazten dituan iturri ugaritsua. Au da Jesukristo gure Jaunak eleizaren erdian sortu duan bere gorputz, odol, anima ta jainkotasuna dauzkan bazkari miraritsua.

Entzun kristauak: Pasko aldian gaude. Jaunaren ondorengo diran apaizak garai onetan kristau eriarri diote: Eseri, jari Jaunaren bazkari miraritsua egitera; ta ez bost mila baizik beireun miloi ta geiago bertaratuko dira, ta jainkozko janariaz aseko dira. Ez bakañik aberatsak baita beartsuak ere, berdin soñeko zarpilez jantzitako eskale beartsua ta ure-goñi argiz apaindutako aberatsa, berdin agintaria ta mendekoa, nagusia ta maixteña. *Manducat Dominum pauper, servus et humilis*. Ainbesteraño biotz asegarria da, gaurko Beñoneko bazkari miraritsuak gogora ekartzan digun Eukaristiko jaunartze edo jainkozko bazkaria.

Baña gaurko Beñoneko Jesukristo'ren erakutsi bikañai jaraituaz, ez nuke baztar utzi nai bazkari ondorean Jesukristo gure Jaunak ematen duan agindu ezerez bat azalez, baño mamiz garantzirik aundienekoa duana. Bil itzazute, dio ikasleai, puska ondarak alpeñik galdu ez ditezen. Ez du nai Jesukristo gure Jaunak oparotasuna, ondamen eta alpeñik galtzearekin

nastu ta berdintzat artzerik, ta bere eskuzabal eta opakortasunaren erdian erabat ondasunai bear diogun begiramena erakusten digu. Ikaskizun garaia gizartearentzat. Bera bakarrik zintzo erabiliaz gizartearen pake ta osamena ekartzeko naikoa litzakena.

Ez dira zearo geure-geureak lur onetan gure esku dauzkagun ondasunak. Lur onetara esku utsik etorri giñan eta joan ere soilik joango gera. Luraren egile eta euslea dan Jainkoa da lurbirako izaki guztien Jaun nagusia ta lur onetan eskuratzen ditugun izakiak beraren zuzenbidez eta legeen tajuz eralki bearean arkitzen gera, bestela ondasunak itxumustuan, bidegabe ta bear dan neuririk gabe eralki ezkerro gizartearen ondoeza, bizieziña ta ondamendia sortzen dute. ¿Zer dio gai onetan gure barunak? ¿Ez al digu barungo arak imurtzi egiten ondasun oiek alperik ezezik, gaizki ta bear zanaren zearo bestera eralki ta ondatu ditugulako? Sar gaitezen gure baruan. Ikus ditzagun Jainko gure Jaunak ixuri dizkigun ainbat eta ainbat ondasun eta zer egin degun beraiekin. Begira gorputzaren aldetik zenbateko osasun eta indararak eman dizkigun, eta guk geure onerako ta Jainkoaren gorapenerako ala kalterako ta gaiztakerirako erabili ote ditugun. Animari ere dagokionez, geure burua donetzeko ta geideari, lagun-urkoari ikaspide ona emateko eman dizkigun ezaguera ta buruko argitasuna ¿ez ote ditugu erabili geure buruaren ondamen eta besteren gaizpide ta okerarako bidetan? Aberastasunak, Jainko gure Jaunak gure ezkuetaratuaz, gure bizitza erosotu ta beartsuari laguntzeko eman dizkigunak, ¿ez al ditugu

bidegabetu, ta zabarkeriz apainkeri, jolas eta atsegin labaiñetan eta gaiztakeritan ere sakabanatu? ¡A zenbateraño bide zabalak irikitzen zaizkion gure gogoramenari aurrean, ikusirik zenbateko zoriona letorken gizadiarentzat Jainkoak gure eskuetaratu dituan ondasunak bear dan bidez eta neuriz erabili ezkerok!

Azkenez gaurko Beñionak dio gizatalde arek Jesukristo gure Jaunaren mirari ariñari aiek ikustean beren errege izendatu ta egin nai izan zutela. Ora Jesukristo gure Jauna ezagutu ezkerok gure barundik berez sortzen zaigun naia, guraria.

Jesukristo gure Jauna gizadiaren zuzentzalea, argilea, aitzindaria da ta beragandik dator eguzkitik argi erañuak bezela, gizadia zuzentzeko egizko argia, ta argi orretan legeak oña artuaz biotzen zearoko asemen eta pakea. Bestera, beriz, argiera au utzi ta bide okeretatik jotzen badu, zenbat eta geiago aurreeratu orduan eta bere zorionetik urutirago ta bere ondamen eta bizieziñera geiago elduko da. Oregatik, au zeatzongi ezagutzen zutelako, guztiak ao batez goratu zuten beren errege ta zuzendari nagusi egin nairik.

Goratu ta ezagutu dezagun, bada, guk ere Kristoren erregetza, ta erregetza onek bere egizko ondorenak eman ditzan, gora dezagun gure agintaritzan, gure aldunditan, gure udal-etxetan, gure etxetan, gure eri guztitan, Kristo'ren argitasun, zuzenbide ta legeen alde zintzo ta osamenez lur onetan jokatu ondoren, bere erregetza gozoan bizi gaitezen egun batean betiko zorionean.

Ala izan bedi.

Lazaro Igandea

Yon Don. VIII, 46-59.

Jesus'ek zion judear gizaketari: ¿Zuetan nork ogenez sala nentzake? Egia badizuet, ¿zergatik sinisgogor zagozkidate? Jainkoarena danak, Jainkoaren itzak gogoz entzuten ditu. Orégatik ez dirazute entzunik ematen, Jainkoarenak et-zeratelako. Orduan judeařak erantzun eta ezan zioten: ¿Ez aldiogu bidez samariařa zerala ta etsai-beltza daukazula? Jesus'ek erantzun zien: Nik ez daukat etsai-beltzik: Nik nere Aita gorentzen det, eta zuek ni beztu nauzute. Ez nabil, ordea, ni nere aintza ondotik, bada nor, dabilena ta epaitzen duana. Zinziñez dizuet: nere itzari onez eusten dion iñork, ez du eriotzik egundaño ikusiko. Orduan judeařak esan zioten: Oraintxe ezagutu degu, etsai-beltza daukazula. Abrahan il zan, baita igarleak ere; ta zuk diozu: Zure itzari gogoz eusten dionak, ez du iñoiz eriotzik ikusiko. ¿Zu gure Aita Abrahan zana baño auřeragokoa ote zera, bada? igarleak ere il

ziran, bada. Nortzat daukazu zeure burua? Jesus'ek erantzun zien: Nere burua Neronek goresten badet, nere gorantza aizetsua da, nere Aita da, goresten nauna, zuen Jainkoa dala zuek diozutena ta zuen ezagun ez dana: nik, ordea, ezaguna det: eta esango banu ez dedala ezagun, zuen antzekoa nintzake, gezurfi utsa. Baña nik bere beñi badakit, eta bere itzari nagokio. Zuen Aita Abraham nere eguna ikusteko xedez pozkaritu zan, ikusi zuan eta gozartu zan. Judeaŕak orduan esan zioten: Oraindik ez dituzu beŕogei ta amar urte, ta Abraham ikusia zerala? Jesus'ek esan zien: «Egi-egitan dizuet: Abraham sortu izan baño lenagotandik naiz Ni». Orduan aŕiak artu zituzten berari aŕika emateko: Jesus, ordea, ostendu ta Eleizatik irten zan.

Gaurko Beñion donean, Jesukristo gure Jaunak bere etsai pilosoakin, zimatsuakin izan zuan auzirik irikatsuenetako bat, edesten zaigu. Auek Jesukristo gure Jaunaren erakutsi ta ikasbideai entzungor egiñaz gañera, berarentzat gaizki-esaka ta gezuŕezko salakuntzak egiñez ziarduten nun-nai, alegia (berentzat jai osoa zan) larunbatean lan egiten zuala ta samaritar eta pekatariakin ibiltzen zala ta Beltzebu deabruarekin artu-emanak zituala ta abar. Aien gurari ta asmoak zertara zijoazen ikusiak zeuden, eŕia itxutu, naspildu ta berenganatu nai zuten, gero Jesukristo gure Jaunaren aurka egiteko.

Jesukristo gure Jaunak, ordea, aien lera ta jokoia ezaguturik, bere bekoki garbia itzal eta baretasunik aundienaz jasorik lerdengi itzegiten die guztien auréan: ¿Zuen artean norik egiazko obenez sala nentzake? ¡Garbitaldi arigarria benetan Jesukristoren au! ¡Jesukristo gure Jaunak bakarrik egin zezakeana! Ezin egokiera, apuko oberik eskura eman zezakean ezer salatzeorik izan enean. Beren gaizki-esakari arpegi emanaz guztiak auréz auré easatzen ditu beren gaizkika aiek xuritu ditzaten. Ezin, ordea, Jesukristo gure Jaunari obenik egotzi, ezta obenaren luñunik ere.

Jesukristo gure Jauna beraz garbi gelditu zan gizataldearen auréan, ageriko salaketa artan.

Jesukristo gure Jaunak onela itzegitean erakutsi nai digu, bera zuzentasun eta donetasun berbera dala, ta ez dagola beragan erúaren kutsu ta izpirik ere. Egia da Jesukristo gure Jauna gizona dala, ta gizonari argaltasun eta aultasuna berez dagokiola zumeari berez biguntasun ta bikatasuna dagozkion bezela, baña zumea burnizko suntoi bateri tajutu ta berari eantzi ta lotzen zaiola, burnia bera bezin bigungaitz eta bikaitz egiten danez, Jesukristo gure Jaunaren gizatasuna ere bere jainkozko notiñarekin alkartzean, batutzean jainkotasun berbera bezin zut eta pekatua makurteziña gelditu zan. Oregatik ezmezik eta zalanzik gabe, ziñez esan zezazkean Jesukristo gure Jaunak, len aitatu ditudan itz aiek.

Eta aien uréna esan zien: Egia badizuet ¿zergatik neri sinisgogor zaudete? Au da, zuetan inork ez badezake egiaz neregana obenik jaurti, inork ezin ba-

nazake obendun bezela salatu ta kuturtu, zergatik ez diozute nere itzari belari eman eta sinisten, zergatik nere erakutsi ta esanai gofarena egiten diozute. Egia badiot nere erakutsitan, nere itzak legearen adierazpena, bizitzaren zuzenbidea ta egiazko zorionaren argia badira, zergatik gaitzikusi, entzungor eta zaputz egiten diezute? Egia baldin badiot nere erakutsitan, zergatik itxumen, gofoto ta erosgorkeriz entzuten didazute. Auek dira N. E. M. Jesukristo gure Jaunaren ezpa, asperen eta zinkurin biozkoak, gaur egunean ere asko ta askotan egin litezkenak, pekatuan eta galbidean dabiltzanak, bada, belariak itxi ta gofarena egiten die Jaunaren dei osasungarai, ta askotan suminez artzen dituzte, aurealdez eta bear dan garaian biozperaz eta kupidaz pekatariak egiten zaizkien oar zintzo, leyal eta zorotzak ere, ta ez dira ateratzen beren itxumen gaiztotik beren buruak gaizki ta ertenbiderik gabe ondatuak ikusi arteraño.

Onegatik kristauak beren bizi bidean arau nagusi bat izan zezaten eta eraldi guztitan nundik jo jakin zezaten, irakaspide bikain bat, erabat kristau zintzoen ezaugarri zeatza dan au, eman zien esanaz: Jainkoarena danak Jainkoaren itzak entzuten ditu.

Gizonak sari askotan, zerbait egin bear dunean, ez dio begiratzen Jaunaren legeak dionari, baizik bere berealako on soilari, ta bere gogoko dan ura Jaunaren aginduen aurka badago, aren itzari gor ta sor datzaio. Ona, bada, Jesukristo gure Jaunak kristau zintzoa ezagutzeko ta geronek geure buruak ezagutzeko ema-

ten digun bide garbia. Jainkoarena danak, Jainkoaren itzak entzuten ditu. Au da Iñaki doneak bere Gogo Jardunetan beste esapide onez diona: Jainkoarena danak Jaunak bere legez eta oáñez agintzen dion ura egiteko biotza gertu eukitzen du, naiz ta ořetarako beste alderdi on batzuek utzi bearko baditu ere. Eta ořela gure zintzotasunean auřeruntz ala atzeraka goazen ezagutzeko, Jaunaren itza entzuteko gogo ala apearik ba ote degun aztertzea izango da bide ta neuria. Pekatariak, au da, pekatuan bizi nai dunak ez du Jaunaren itzik, deirik entzun nai, bere zalekeri bidegabeak uratu nai ez ditualako, bere biotzean ar eta kezka ilun-larriak sortu ta jeiki erazten dizkiolako ta bere erosgorkeri itxuaz gaiztakeri aietan jaraitu nairik, Jaunaren itz aiek min eta gařatz zaizkiolako. Zintzoak, ordea, naiz ta argaltasunez pekatuan jausten bada ere, gogoz eta pozik entzuten ditu Jainkoaren itzak bere pekatu aien matxarde ta arantza latz aietatik azkatzeko argibide ta indar berri zale dalako. Begira ta azter dezagun bada, Jainkoaren itza entzun eta betetzeko gure biotzean ba ote daukagun gertumen, opa ta zaletasunik eta ortik jakingo degu ongiena gure buruaren berri.

Itz auen ondoren ekiten die Jesukristo gure Jaunak bere etsai aiei ta esaten die: Ořegatik zuek ez dezute nere itza entzuten, Jainkoarenak et-zeratelako.

Et-ziran etoři zurikari ta judear aiek Jesukristo gure Jaunarengana aren jainkozko itzaren bitartez beren buruak jakinduriz ornitu ta beren biotzak garbitu ta zintzotzera, baizik beren griña ta gořoto biziari lañe-

za emanaz, bidegabeko maxiaketa ta salakuntzak egiteko asmo makuréz inguratu zitzaizkion, eta oregatik ain zuzen Jesukristo gure Jaunak garbi ta ernaike itz ain zorotz eta gordin aiek esan zizkien: Oregatik ez dezute nere itza entzuten, Jainkoarenak et-zeratelako.

Jesukristo gure Jaunak itz aietan zezaien egi zorotz eta garbi ura inola ere ezin ezeztatu zezaketen judear aiek, eta biderik ez dutenak oi dutenez, barungo gofoto ta sumiñari ataka beltza iriki zioten. Sukar goriaz eta burutik egiten duala dagon gaixoak sendagilea ikustean, bere kaltean datoñela bere buru nas-tuan irudikatuaz, oean zutitu ta biurikaturik esan alak esaten dizkion bezela, era berean jeiki ziran judearñak Jesukristo'ren egiazko itz aiek iruntzi eziñik, eta asma ala laido ta gaiztakeri irauli zizkioten beren mingain likitzaz, samaritaña ta deabruduna otsegiñaz.

Samaritaña, Samaria'ko aberitik jatoriz zetoñen bizilaguna zan. Judear eta samaritarñak et-zuten alkar-ekin itzegiten, et-zeukaten alkarñen artean artu-emanik eta et-zegokien gañera eukitzerik ere. Oregatik samaritaña deitzean, arotza, aiekin zer ikusirik, zer esanik eta artu-emanik et-zuana esan nai zioten. Deabruduna otsegitean, beriz, Jainkoaren aginpiderik gabea, Jainkoaren eskubide ta ordezkotzarik gabea laidoz eta gaitzez esan nai izan zioten.

Jesukristo gure Jaunak bere etsaiengandik eran-fzun zakar aiek artu zituanean et-zan batere berotu ta gutxiago lañitu. Baña Jesukristo gure Jaunak, lur onetara ekañi zuan bere eginbear nagusia auñera eramateko, bere izen onaren jabe izan bear zuala ezagu-

turik, baretasunez bai, baña bai giartasunez ere esan zien: Nik ez daukat deabrurik, nik nere aita gorentzen det, eta zuek ni beztu nauzute. Ez nabil, ordea, ni nere aintzaren egañiz, bada dabilena, ta zuzen epaituko duana.

Jesukristo gure Jaunaren mintzaera au berebizikoa da, etsaiak laidoz eta belzkeriz gure buruak txautu nairik datozkigunerako. Jesukristo gure Jaunak ez du aintzakotzat artzen eta bazter uzten du samaritaña deituaz egiten dioten irain eta laidoa, ez du ari erantzunaz adarrik adar ibili nai. Jesukristo gure Jaunak eñora, susterera jotzen du, bere izaera guztia goikoz bera ezañi nai duan salakuntza beltz-maltzuñari arpegi ematen dio, zoñotz eta bi itzetan garbi erantzunaz: Nik ez daukat deabrurik, ni nere Aitarenetan nabil, nere Aitaren aintza edatzen, zabaltzen eta zuek ni beztu, laidoztu nauzute.

Norbere omen eta izen onari iraunazteko, guztiok daukagu eskubidea, gure bizitzarako on aundi bat da-ta; zerbaiten aginpide ta ordezkaritza daukanak, beñiz, areago begiratu bear dio, ez da, bada, aginpi-derako ezer lotsagañi ta nabarmenagorik gizatasuna galtzea baño. Oar dezagun, ordea, Jesukristo gure Jaunak nola aldezten, kerizten duan bere burua apuko onetan. Ez dio etsaien gaiztakeri bateri zitalkeriz, ez gogorkeriari beste gordinkeriz erantzuten, ez; lau, baña zindo aitortzen du salatzañeen aúrean bere gizatasun garbia: Nik ez daukat deabrurik eta ez daukat zerikusirik zuek salatzen dizkidatzuten belzkeriaz, esanik.

Jesukristo gure Jauna, bere legean bizi ta esitzen dan kristauarentzat ikaspide bikaña da egokiera onetan. Bertan garbi ikusten du zer egin bear duan, etsaiak bidegabe laidotzen eta isekutzen dutenean. Aien gogorkeri bateri beste gordinkeri batez erantzutea, aien berdiñera eraiztea izango litzake; baña aien ao-zabalkeriai ixilaz, ala esaera burutsu batez bareki erantzutea, ta bear bada aien gaiztakeriak egin lezaioketen kaltea atzerazteko neurriak artzea ere bide da, bere burua ta gizatasuna aldeztu ta etsaien gezuéz txautua gelditu ez dedin.

Gure izen onari eutsi ta iraunazteko ez gaitu igi bear, ordea, geure on soilak, baizik gure izen ona Jainkoaren aintzpide ta gure geide edo lagun urkoaren onerako izan dedin leiatu bear degu, ta oregatik gure etsaien laidopean gure itzal onari eusten ari geranean erabat gure etsai oien itxumen iguingariakiko eruki izan bear degu, batzu-batzutan neketsu ta zail egingo bazaigu ere, beren itxumenezko sumin eta biotz gogorkeriaz gure buruai baño ere berenai kalte aundiagoa dakarkie-ta.

Izan bedi, beraz, Jesukristo gure Jauna bere bizitza ta erakutsitan gure bizitzaren zuzenbide ta argile, ez daukagu, bada, gure egizko zorion iraunkoerako, gure adimen eta biotzen jainkozko argi dan Jesukristo gure Jaunaren bidea besterik. Ez dago egiazko zorionik, ez dago ondamendia ta zorigaitza besterik Jesukristo gabe. Jesukristo gure Jauna dagon lekuan an biltzen dira on guztiak. Jesukristo gure Jauna baztertzen dan lekuan, beriz, oin artzen dute zorigaitz guztiak.

Kaletan entzuten diranean birao iguingariak, izketa bizutzak eta gaztediaren oitura ezigabeak ikusten diranean, gurasoak beren semeen eziera on eta zintzoa aintzakotzat artzen ez duenean eta eginbear estu onetan zabartzen diranean, badator piskanaka, oargabean eñi onen gañera ondamendia ta ez da geldituko bide onetan dijoan eñia zearoko zorigaitz ilun eta sendagaitzean amildu ta ondoa jo arte.

Oregatik gure begi ta biotzak Jesukristo gure Jau-narengana jaso bear ditugu, añen eta otoitzez berari esanaz: Et-zazu igesi, Jauna, guregandik, zaude gure erdian, orain arte gure aurrekoakin egon zeran bezela, zaitu ta argitu ezazu gure Euskaleria bere agintari ta buruzagiak zure bidetan zear jarai dezaten, zure ikasbideak erakutsi ta zure bidetan pakeak egin ditzen, eta zure aintza ta gorapena gure bizitzako eginkizunetan bilaturik, luñean eñi osasuntsu ta zoriontsua izanaz, azkenean amaigabeko zure aintza arkitu dezagun.

Ala izan bedi.

Abar Igandea

Math. Don. XXI, 1-9.

Jesus Jerusalem'era uferatu ta Olia-mendiruntz Betpaje'ra eldu zanean, bere bi ikasle bidali zituan, zielarik: Zoazte añez-añe daukazuten gaztelura ta elgunean astaeme lotua ta bere alboan astakumea arkituko dituzute: azkatu ta ekarzkidazute, ta iñork ezer aitatzen badizute, esaiozute, Jauna beren bear dala: ta une berean utziko dizkizute. Au dana gertatu zan, Igarleak itz auetan esana bete zedin: Esaiozute Sion'go alabari: Oña badatorkizu zure Eregea otsanki, astaeme gañean eseririk, ta astakumea uztarpean duala. Ikasleak, bada, joanaz, Jesus'ek agindu bezela egin zuten. Eta astama ta astakumea ekañi zituzten, eta beren soñekoak aien bizkañetan ipiñi zituzten eta gañean bera ezañi zuten. Eta giza samalda ugariak beren soñekoak bidean edatu zituzten: beste batzuek, beñiz, zugatzetatik adañak ebaki ta bidean zear zabaltzen zituzten. Zeñaikioten gizataldeak, beñiz, iñintzika, santzoka zioten: ¡Gora Dabid'en semea! Onetsia, ongi etofia Jaunaren ize-nean datoñena! ¡Gora goi gorenetaño!

Gaur egunean Eleiza Ama Doneak aundikiro egiten dituan erenuntz (zeremoni) ta eleizkizunak, Jesukristo gure Jaunaren garaipen zoriontsua oroiazten digute. Antziñako alditan garaileen buruak buruztatzeten (koroatzen) zituzten palma ta adar loretsuak, gaur Eleiza Ama Doneak onesten eta bedeinkatzen ditu ta bere eleizgizon eta kristauen eskuetan ipiñi ta banatzen ditu, aldareak ere berakaz apaintzen ditu, eleizak adar loretsuz eta ezetasunez jantzitako inguru atsegin bat idurituaz. Baña alaitasun eta garaipen onen erdian galdera bat egitea otutzen, bururatzen zait: ¿Ez algera bereala aste gurenean, aste donean sartuko, Jesukristo gure Jaunaren nekaldia gogorazten digun astealdi orietan? ¿Ez aldaude dagoneko aldareak jantzi ubelez eztaliak, eleizaren negar eta iluntasuna Jesukristo gure Jaunaren eriotz oroiz adierazirik? ¿Nola, bada, bere aldi ta lekuan ez dirudian alaitasun au?

Gaur eguneko Beñona irakur dezagun eta ikusiko degu adar loretsuen erenuntz (zeremoni) onen bidez ez degula besterik egiten, Jesukristo gure Jaunari Jerusalem uriko sañeran, iltzera joaterakoan, egin zioten ongietoñi aintzatsu aren beñizkatzea ezpaik. Ordurarte beti Beraganako goraldiak ixilasi ta eñiak bera Eñege izendatzeko gaña, igesiaz, otzituazi zituanak, gaur eñi aintzaren zaletasuna dager; eta biotz guztien nagusi izanik giza-samalda ugarien biotzak igitu ta gartzen ditu, goraldi, irintzi ta pozezko santzo artean ongietoñirik garai ta bikañena egin dagoiten.

Jesukristo gure Jaunak bazekian gorespen eta aintzazko deadar. oyu aiek egun asko baño len eriozko

deadar eta karaxitan biurtuko zirala; baña ain zuzen onegatik garaitu nai izan zuan bere eriotz alditik ain uré zegoan egun onetan, alegia ikasi genezan zein labur eta aizeak diran luéko aintza ta zorionak eta erabat erakusteko zenbateko gogoz eta gureganako maitasunez eskeintzen zan eriotzara.

Kristo gure Jaunaren garaipen eta zorion onek igitzen du, gaur ere Eleiza Ama Donea, garaialdi done onen samintasun eta goibeltasunaren erdian alaitasun au edatu ta bareiatzera; ta oregatik Jaunaren ordekoak Jesukristo gure Jaunaren nekaldia oyuka otoiztean, beren eskutan palma garaitsuak goratzen dituzte, Jesukristo gure Jaunak bere eriotzarako sarera ura jaiduratu nai izan zuanean bezela.

Jesukristo gure Jaunaren bizitzako gertari eder onen oroiz Eleizak palma ta adar eze loretsuak onesten, bedeinkatzen ditu, kristau-talde aundiak eleizara etortzen dira bakoitza bere adartxoarekin eta beren onespina artu ondoren batzuek oeburuan, besteak leioan, uréngoak soro ta ereitegietan ezartzen dituzte Jaunaren onespina, bedeinkapena bere aietara ixuri dedin.

¿Noregandik ikasi du kristau ériak oitura ori? Eleiza Ama Donearengandik. Begira zer dion egun onetako otoitz batean: «Jauna, arén eskatzen dizugu, adar onetsi auetakoren bat daramaten guztiak iritxi dezatela zuregandik beren anima ta gorputzerako laguntza». Otoitz au Eleiza Ama Donearen izenean egi-ten da, ta ¿nola ez iritxi bere irazle Jesukristo gure Jaunaren laguntza, bere bizitzako egun zoriontsu ar-

tan bedeinkatu, onetsi zituan adar loretsu aien oroiz egiten degula?

Eregeai, beren eñi ta luñak ikustatzera joaten diranean, pozaldi ta jai aundien erdian egiten zaie añera, ta berak egokiera auetan esker bereziak eñi oiei iritxi ta edatzen dizkie. Alaxe uste izan dezakegu Jesukristo gure Jaunak ere egin zuala Jerusalem'go sañeran erege bezela artu zuten aiengan. Guk ere gaur kristauak Jerusalem'go sañera garaitsu ura beñizkatzen degu, Jesukristo gure Jauna zeru-luñen eta izaki guztien eregetzat ezagutu ta aitortuaz. Jaun oñek, Eleiza Ama Donearen bitartez gure palma ta adañak onesten, bedeinkatzen ditu ta guk gure etxe ta luñetara eramaten ditugu, berak gure artean eukitze utsarekin Jesukristo gure Jaunaren eregetasuna ezagutu ta aitortuaz. Oregatik gure aitopen eta gorespen onen begiramenez, zalantzik gabe, zeru-luñeko gure erege oñek erdetsi ta ixuriko dizkigu zeruko onespèn eta esker bereziak gure onerako.

Ona nola baiezten digun argi asko adañen onespèneko beste otoitz onek: «Jesus'i añera egitera adar loretsuz erten ziran giza-samaldak onetsi zenitun Jaun oñek, onetsi itzazu zure izenaren aintza ta jaierez dakarzkigun palma ta olio-adar auek; berak ezartzen diran nunnai tokietan, bertako bizilagunak zure onespèn artu dezaten eta berengandik ezbeañak urundurik, zure eskubiaren almenak, zure seme Jesus'en irabaziz erosiak, babestu ditzan.

Ikusten dezute, bada, Eleiza Ama Doneak Jesukristo gure Jaunaren izenean zenbateko arduraz otoitz

egiten dion Jainkoari ta beraz kristauak ere zenbateko ganoraz leiatsu bear duten beren buruak eta etxadiak babesten, gaur Eleiza Ama Doneak aundiro onesten dituan adar oen bidez. Nik itz ematen dizutet, Jesukristo'ren izenean, zuen etxetara onesten ugariak ixuriko dituztela adar onetsi oiek sinismenez eta jaierraz artu ta ezartzen badituzute.

Adartxo bedeinkatu, onetsi auek gurutzeari egotzita azken-garaipenaren agerkai dira; berak kristau sinistunai adierazten die, Jesukristo gure Jaunaren eriotza garaipen bat izan zala, etsaibeltza, pekatua ta befiko eriotza azpiratu zituan garaipen bikaña, ta etsaibeltz eta gizatza gaiztoa azpiratuaz Jesukristo gure Jaunaren garaipenari jarraitzeko leiagarri, suspergarri dira.

Adartxo onetsi auek ur bedeinkatutan jarrita etxetan egiten diran onesten eta bedeinkaldietarako dira. Berak ur bedeinkatutan bustirik erakarri ta ixurtzen dituzte etxetara Jainkoaren esker eta laguntza bereziak, apaizak eleiz-arauz etxeak onesten dituanean, eta gaxoai eleizakoak edo azken-igurtzia ematerakoan onesten dituanean.

Guztiok, bada, begirunez eta sinimentsu ekarri bear ditugu egun ain gogoangarri onetan eleizara adar loretsu auek, onetsiak izan ditezen eta beren laguntza bidez Kristo gure Jaunak bezela garaitu ondoren, egun batean befiko Jerusalem zoriontsuan artzeko gai izan gaitezten.

Ala izan bedi.

Pizkunde Igandea

Mari Malen'ek eta Jakob'en Mariak eta Salome'k gantzakiak (ukenduak) erosi zituzten Jesus igurtzitzera joateko. Eta goiz goizean larunbat ondorean obira datoz, eguzki beritan. Eta alkañi zioten: ¿Nork pirilatuko digu aña obiaren aotik? Eta begira zutenean aña ateraa ikusi zuten. Ura zan añaaren aundia. Ta obian sartzean gizazume gazte bat ikusi zuten eserita eskubitan, soñeko zuriz jantzia; ta izutu ziran. Eta arek esan zien. Ez izurik izan: Nazaretar Jesus gurutziltzatuaren bila zatozte noski; berpiztu da: ez dago emen: oña ura ipiñi zuten lekua bera. Baña zoazte, esaiezue bere ikasleai, ta Pedro'ri galileara bideratuko zai-zuela. An ikusiko dezute, berak esan zizuenez.

Gaur jaiduratzen degun Kristo zoriontsuaren pizkundeko miraria gure Eleiza Ama Donearen miraririk aundiena da, gure sinismenari sendo eusten dion az-

plañirik sakon eta bikañena. Ala dio Pablo bidali doneak ere itz auetan: *Si Christus non resurrexit inanis est predicatio nostra, inanis est fides vestra...* alperik dira nere sinismen zabaltzea, beñiolatzea, alpergoñian zuen sinismena, Kristo gure Jauna piztu ez baltz. Baña egia dalako, Kristo gure Jaunaren bizitzari, erakutsiai, legeai, jañaitzen dauzkagun lan, neke ta arazoen artean gure itxaropen gozo ta pozik sendoena da, erabat gure piztuera ta betiko zorionaren agerkairik argiena dan bezela.

Oraindik iru egun zirala Jesukristo gure Jaunaren gorputz guztia ubeldua, odoldua ta zauriz josia zegoan, bere oin, esku ta bulaña iltze ta lantza gogoréz zulatuak; gurutzean erio agiñean zegoala, eguzkia berari begiratzen lotsaturik bezela estali ta ostendu egin zan luña ilunpetan utziaz, luñikara ikaragañiak dardar eragin zion luñari, arkaitzak zartatu ta zatitu ziran eta zeru ta luñak eta izadi guztia negaréz zegola zirudian beren Egilea zan Seme Jainkoaren eriotzaren aurrean; baña irugañen egunean etoñi zan etoñi bear zuana, berak esan bezela: *resurrexit sicut dixit*, beñiro piztu zan geiago ez iltzeko, egundaño geiago eriotzaren mendean ez gelditzeko. *Kristus resurgens a mortuis jam non moritur: mors illi ultra non dominabitur. Alleluia*, dio Ama Eleiza Doneak gaurko egunean, poztu, alaitu ta zabaldu bitez biotzak. *Hæc dies quam fecit Dominus exultemus et lætemur in ea*. Au da Jaunaren eguna, poztu ta alaitu bitez gure biotzak, Kristo gure Jaunaren piztuerak gure biotzetara dakañen zorion eta beñiona alde guztietara zabalduaz.

Jesukristo gure Jaunak askotan aitortu zuan bere bizitzaroan, etsaiak il egingo zutela ta beñiro irugañen egunean piztuko zala. Zurikari edo fariseoak au gogoraturik Pilatos'ena joan ziran esatera: Jauna, gogorra zaizkigu gezurti arek bizi zanean esandako itz auek: irugañen egunean piztu egingo naiz. Agindu zazu, bada, gudari zaitzaleak Kristo'ren ilobi inguruan jartzeko, bere ikasleak etoñi ta bere gorputza lapurtu ondoren, ilen artetik piztu dala, esan eta eñiari gezur, ziri ori sartuta len baño okeñago gelditu ez gaitezen.

Pilatos'ek orduan erantzun zien: Zoazte ta egin zazute nai dezutena, zuen esku dauzkazute gudariak eta zaitu zazute nai dezuten bezela. Era onetan bada berak uste et-zutela, berak argitu ta sendotu zuten ondoena Jesukristo gure Jaunaren piztuerako gertae-ra, bere etsaiak ere ezin ukatu al izateko eran.

Igaro zan, bada, ostirala Jesukristoren eriotzako eguna, igaro zan larunbata ta igandea eldu zanean, egun txintako argi zurizkak gauaren ilunpea uratu zutenakin batean, Kristo gure Jauna zorionez eta laironenez beterik piztu zan ilen artetik, ez geiago iltzeko; Jaunaren aingerua eluñ baño jantzi zuriagoaz apaindurik eta eguzki dizdikoiak baño eñañu biziagoak diztiraturik zoragañi jetxi zan zeruetatik eta bat-batean ilobi gañeko añi aundia kendu zuan, luñikara ta buñunda gor bat inguruan entzun ziran eta gudari-zaitzaleak ikuskizun eta gertari zoragañi aien auñean ikaraz beterik luñera jausi ziran ilak bezela, ta beren senera etoñi ziranen al izan zuten bezin laister agintariakana joan ziran eñira, deadarka esanaz: «Piztu da, piztu da»

ilen artetik Kristo zorientzua. Au jakin zutenean apaiz nagusiak, agintariak eta zurikariak batzanean bildu ziran eta gudari zaitzaleai beragana deituta esan zien: Et-zazute esan Kristo piztu danik, diru pila aundi bat emango dizutegu ori ixildu ta esaten badezute: Lo arturik gelditu giñan eta bitartean Jesus'en ikasleak etori eta bere gorputza eraman zuten. Baña Agustin done aundiak bikain erantzuten die gezurti alen auei esanaz: Ziñaldari, testigu edeñak, ez dira testigu makalak lotan daudela ikusten dutenak: Baldin lotan bazeuden ¿nola ikusi zituzten etortzen ta nola zekiten Kristo gure Jaunaren gorputza bere ikasleak eraman zutela?

Au añako gezuñez dabilta gaur egunean ere Eleizaren etsaiak Kristo gure Jaunaren Eleiza Ama Donea beztu naian, baña alpeñik dabilta, alpeñik ibili izan diran bezela ogei gizaldi auetan Eleizari gezur bakar bat arkitu nai izan dioten sasi-jakintsu guztiak.

Kristo'ren etsaiak bere piztuerako gertari auek ikusi izan ez balitue ere, naiko izango genun Kristo'ren piztueran sinisteko, bere ondorengo berogei egunetan, zerura igo baño len, bere ikasle, bidali ta lengo bizitzan ainbeste lagundu zioten andre agurgarñai egin zizkien ageñaldiak jakitea; bere ikasleak indartzeko, Eleizaren alde egitera berotzeko bere azkenengo erakutsi, agindu ta eskubideak emanaz egin zizkien ainbeste ageñaldien berñi jakitea; naikoa izango genun bere bosteun ikasle, bidali ta andre agurgarñien begi auean berak aue aldez adierazi zien leku artan bertan zeruetara bere indañez eta almenez igo zala jakiteak.

Beraz Kristo gure Jauna bere indañez eta almenez ilen artetik piztu zan ezkerro egiazko Jainkoa da; berak gizonen onerako luñean ezañi zuan Eleiza Ama Donea egiazkoa da, egiak dira Kristo gure Jaunaren erakutsiak, egiak bere sakramentuak, egiak bere aginduak. Oregatik, bada, Kristo'ren Eleiza beztu ta zirtzildu naian bere aurka dabilenak, bere aginduen aurka dabilenak, bere erakutsien aurka ta destañez dabilenak, ez dio Kristo zoriontsu ta ilezkoñari gaitzik egotziko, ez dio Kristo gure Jaunari kalterik egingo, bere buruaren aurka dabil, bere burua ondatu ta galduko du, bere buruari aña ekañiko dio bere itxumenean ala uste ez badu ere.

Beñion doneak adierazten digu iru Maria'k, au da Mari Madalen, Jakob'en Maria'k eta Salome'k usai gozoak erosi zituztela aiekin Jesus'en gorputza gantzutzeko, ta igande goiz-goizean joan zirala Jesus'en ilobira ta egun argierako eguzki beñitan eldu zirala bertara. Ona emen zein ederki erakusten diguten iru andre agurgañi auek, guk, kristau sinismen aundikoak bagera, Jesukristo gure Jaunarentzat izan bear degun maitasuna ta gure animarentzat betiko zoriona, betiko zerua irabazteko bide segurua. Berak Jesukristo'ren gorputz ila usai ta gantzuki (ukendu) gozoz igurtzitzeko gogoz eta jaieraz zeuden, baña garai artako legeak debekatua zeukan, orduan berentzat jai edo igande bezela zan larunbatean ainbesteko ibitaldia egin eta arazo ura artzea, ta oregatik ostiralean gantzuki ta usai gozoak erosi ta etxean moldatu ta gertu zituen, larunbatean legea beteaz etxean iraun zuten

eta urango egunean alik lenena, goiz-goizean erten ziran etxetik egun sentiko eguzkiaren lenen erañu zurizka-motelak oskarbian jaiotzera zijoazen zorian. Ora iru andre agurgariak Jesus'en maitasunari erantzuteko ematen diguten ikasbide eder ta bikaña. Lendabizi legea zintzo ta osoro betetzen dute larunbata osoan legearen agindua, esana ta eginbearak malurik gabe egiñaz, baño onekin bakarik ez dira ase beren biotzak, legearen eginbeareko aginduaz gañera geiago egiteko jaiera, zaletasun eta gogo irazekiaz garturik daude beren biotzak eta orela alegiña jotzen dute, beren jaiera aundiaz goiz-goizetik, eguzkia jaio baño len, ilunpetan Jesukristo gure Jaunagana joanaz bere gorputz edera, bere jainkozko gorputza gantzuki, usai gozoaz igurtzitzeko asmoan joanaz.

Ora gure anima salbatzeko ta zeruratzeko kristau guztiok euki bear genuken jaiera, zaletasun eta berotasuna. Badira gaur egunean ere zorionez andre agurgari aien antzekoak eta aien erakutsiai jaraitzen dietenak eta pozgarria da benetan berak goiz-goizetik eleizaratzen ikustea meza Donea entzun eta jaunartuaz beren biotzak egun guztirako indartu ta sendotzeko, ta baita ere pozgarria etxeko zeregiñak, etxeko eginbearak eleizara joaten uzten ez dielako goiz-goizetik Jainko gure Jaunari otoitz gozoak egin eta beren seme-alabai eragiten ikustea, orela beren anima salbatu ta beren etxekoai zerurako bidea erakutsiaz. Eta zenbat aldiz andre agurgari auek izaten dira beren etxeko guztiak pakean oeratuazi ta azkena oeratzen diranak eta urango egunean lendabizi jeikitzen dira-

nak gaurko Beñoneko andre agurgarí oien jaieraz, zaletasun eta gogoaz egunari asiera zintzo ta kristautsua emateko.

Baña badira baita ere beste asko oñelako eginkizunik gutxi gogoratzen zaienak, Jainko-zaletasun eta jaiera oietarako biotzak txepel eta otzak ere daukatenak, beren anima zeruratu ta salbatzeko jaiera, gogo ta berotasun gutxi daukatenak eta auek beren oztasun, nagitasun eta utzikeri ori estaltzeko beti aitzakiren baten bila dabilta oñela beren zabarkeria zuritu nairik. Lenago dira, diote batzuek, geure eginbearak gogozko lan eta jaiera oiek baño. Egia da eginbeara dala lenengo, baño jator egin bezaie oiek beren buruai galdera au, ea zer erantzuten dien beren barúak: ¿Nere eginbear ain estuak aldira sañagotan konpesatu edo aitortzea galeraetzen didatenak? ¿Nere eginbearak galeraetzen aldidate asteoro ala iloro-il beñepein jaunartzea? Zintzo aztertzen bazerate, zintzo begiratzten badiozute zuen buruai, griña okeñen naikeriz menderatzen utzi gabe, garbi ikusiko dezute zuek egiaz nai izan ezkerro ez dagola oñelako eragozpenik eta zailtasunik asko ta askotan beñepein, bakar-bakarik zuen oztasuna, utzikeria ta nagitasuna dirala zuen buruen nagusi ta atzerapen oñen egiazko aitzaki, besferen esamesen lotsa aula ezpada beintzat.

Iru andre agurgarí aiek, berez bildurti ta argalak izan añen, bildur guztiak albora utzita Jesus'en bila joan ziran. Et-zuten gau ilunaren bildurik izan, ezta zurikari ta judear asañetuak bide ilun aietan arkitzeko ikararik ere, et-zitzaien gogoratzen, Jesus'en maitasu-

nak eraginda, ezeren eragozpenik, et-zitzaien gogoratzen Jesus'en ilobi atakako ari aundia pirlatu bearko zutenik, et-zitzaien gogoratzen gudari-zaitzaleak beren naia betetzea galeraziko zienik eta orrela, ainbeste maite zuten Jesus'en ilobiraño joan ziran Bera usai gozoz gantzutzeko asmoan, burupidetan.

¡O zein erakutsi edera andreentzat ez ezik gizonentzat ere beren sinismenaren eta Eleizaren aldeko zeregiñetan beren buruak eta arpegiak argi ta kristau zintzo bezela azaltzeko Eleizaren etsai zitalen aurean! ¡O zein ikasbide edera aitortzera ta jaunartzera lotsatzen diranentzat andre agurgari auen kemen eta bikaintasuna!

Zenbat gizon beren buruan sinismen sendo ta bikañekoak dirala uste dutenak aultzen eta koldartzen dira jaunartzera saritan uñeratzen besteren esames inozoakatik? ¿Eta nundik dator besteren esames eta maxiaketa zital oien bildur izate ori?

Gizon oiek pekatari aundiak baldin badira, ongi egiten dute bear bezela damutu ondoren jaunartzera etortzeaz, baita uñena beriz beren argalkeriz pekatuan eroriko badira ere. *Non veni vocare justos, sed peccatores*, dio Kristo gure Jaunak Berionean. Ez naiz etori zintzoai deitzera, baizik pekatariari. Eta beste leku batean dio: *Ego sum resurrectio et vita, si quis manducaverit ex hoc pane vivet in æternun*. Ni bizitza ta piztuera naiz, Nere ogi onetatik jaten duana betiko bizitzan biziko da.

Oregatik, bada, ongi egiten du pekatariak, danik eta aundiena bada ere Kristo'ren deiari erantzunaz

sañitan aitortzera ta jaunartzera etoñiaz, era oñetan bere pekatuak kendu, bere animako zoñak garbitu, bere biotza indartu ta ornitu ta beñiro ta beñiro zerurako bidean jañiaz. Eta ez bakañik pekatariak, baita zuzena ta zintzoa danak ere ongi egiten du maiz aitortzera ta jaunartzera uñeratuaz, Jainko gure Jau-naren esana da, bada, uñengo au ere: *Qui justus est justificetur adhuc qui sanctus est sanctificetur adhuc*. Zuzena dana zuzendu bedi geiago, zintzoa dana zintzotu bedi oraindik eta santua dana donetu bedi geiago ta geiago oraindik ere.

Oñegatik, bada, ez pekatari aundiak eta ez donea danak, bear bezela jaunartzera uñeratu ezkerro, ez dauka gizon zitalen esamesaren lotsarik izan beañik, bere egiteko ori Kristo'ren deiari erantzutea ta Kristo'ren eskabidea betetzea besterik ez dalako. Eta esames gaizto ta pañe zitaletan badaude, utzi, daudela; baña etoñiko zaie esaera zar aren ondoren gañatza: Azkena par egiten duan arek egiten du guztietan ederkien, gozoen eta atsegiñen.

Artu ditzagun, bada, berotasunez gure gogoan Kristo'ren piztuerako gertari auek, guk ere piztu bear degu egunen batean Kristo zoriontsua bezela ilen artetik ez geiago iltzeko ta betiko bizitzarako; berotu gaitezen, bada, saiatu ta leyatu gaitezen lur onetan andre agurgañi aien erakutsi edeñai jañaitzen, berak bezela lur onetako arazoen artean euki ditzagun gure begiak zeruan eta betiko bizitzaren oroipenean, sañitan gure anima garbitu dezagun aitortzaren bidez eta indartu dezagun jaunartzearen bidez eta legeak

eta etxeko eginbearak uzten digunean, Kristo'ren deiari jaraituaz jolasak puska batean utzita, goazen bere eleizkizunetara ta oñela gurea izango da betiko bizitza, gurea betiko zoriona, azkeneko egunean Kristo zoriontsuaren eskubitan izango gera, zeruko aingeru ta zorionekoakin argitasunez beterik pozez oyukatuko degu Gora ta Gora, Alleluia zoriongaria amaigabeko egun argi-alai artan.

Ala izan bedi.

Pasko urango Igandea

Yon Don. XX, 19-31.

Egun artako ilunabarrean, larunbataren asieran ikasleak judearren bildurez, ateak itxita bildurik zeudela: Jesus etorri zan eta erdian jañi ta berai esan zien: Pakea zuetan. Eta au esandakoan eskuak eta saietsa erakutsi zizkien. Poztu ziran oregatik ikasleak, Jauna ikusita. Orduan beñiro esan zien: Pakea zuetan. Aitak ni bidali niñuanetz, neronek ere bidaltzen zaituztet. Zer auek esan zituanean, ja egin eta esan zien: Ar zazute Espiritu donea. Azkatzen dizkiezutenen obenak, azkatuak izango zaizkie ta eusten dizkiezutenenak, eutsiak izango zaizkie. Amabi aietako bat, ordea, Didimo zeritzan Tomas et-zan aiekin, Jesus etorri zanean. Beste ikasleak, beraz, esan zioten: Jauna ikusi degu. Baña arek esan zien: Ikusten ez baditut bere eskuetan iltze oak eta nere beatza iltze zuloetan eta nere eskua bere saietsen sartzen ez badet, ez det siñetsiko. Andik zortzira, ikasleak (an) barnean

zeuden beñiro, baita Tomas ere berakin. Ate itxitan etoñi zan Jesus eta erdian jañi eta esan zien: Pakea zuetan. Gero Tomas'i esan zion: Ea ekar beatz ori onera ta ikus nere eskuok, eta ea esku ori, sar baita ere nere saietsean, eta ez izan siniskaitz, sinisle ezpaik. Tomas'ek erantzun eta esan zion: Ene Jaun eta ene Jainkoa. Jesus'ek esan zion: Ikusi nauzulako sinistu dezu. Zorionekoak ikusi gabe sinistu dutenak. Beste amaika ta amaika ezaugafi ere, idazti onetan ezañirik ez daudenak, egin zituan Jesus'ek bere ikasleen aurrean. Auek, ordea, idatziak izan dira, Jesus, Jainkoaren Seme Kristo dala, sinetsi dezazuten, eta sinistuaz betiko bizitza aren izenean iritxi dezazuten.

Gaurko Beñion Doneak adierazten digun Jesukristo gure Jaunaren agerkundea, gañantzi aundikoa da, Jauna bere piztueratandik Bidali Batzari lenengo aldiz agertzen zaiolako. Ordurarte Jesukristo gure Jaunaren agerkundeak banakatsuri egiñak izan ziran eta Bidali Batzak bitartekoen bidez bakañik izan zuan Jesukristo gure Jaunaren piztueraren beñi. Baliteke Jesukristo gure Jaunak Bidali Batzari bere agerkundea luzaraztea, aien gogoak areago akulatzeke, ikus-mingartzeko ta bere añera aundikiroago antolatu ta jaiduratua izate- añen.

Bitartean bidaliak Jesukristo gure Jaunaren eriotz eztenaz biotzak mingozfurik zebiltzan, emendik eta andik zekarzkieten Jesukristo gure Jaunaren pizkunde beñiak ez sinistuko bai sinistuko buru beroketan zebil-

tzan, eta zalantza lañi auetan zeudela, ilunabaréan, atepak itxita batzarturik zeudela, oñá nun Jesukristo gure Jauna beren erdian agertzen zaien.

¿Nola sartu zan, ordea, Jesukristo gure Jauna bere egiazko gorputzaz atepak itxirik zeudela, ormak igarroaz an barnera? Bere gorputz zoriontsuari zegokion almenaz. ¿Ez al da gure abotsa ate ta ormaen bestaldetik entzuten? ¿Ez al dira eguzki izpiak leiañetan batetik bestera igarotzen? ¿Ez al dira iratizkiñez abesti ta eresiak une berean milaka lekutan entzuten aizetan zear urutitara egatu ondoren? Jesukristo gure Jaunaren gorputz zoriontsua ere, bada, oien antzera nunnaitik dabil, nunnaira joaten da iñongo eragozpenik gabe.

Onela, bada, atepak itxirik zeudela sartu ta beren erdian agertu zanean, itz auekaz agur egin zien: Pakea zuetan.

Pakea N. E. M. gizonaren egiazko zorion trinkoa da. Pakea ontasun bat baño geiago, ontasun guztien bilduma (bat) da. Pakerik gabe ez da zorion oso-rik eta beste ontasun guztiak pakerik gabe, ezak, mikatzak, asetzen ez dutenak dira. Pakea gogoarentzat, animarentzat osasuna gorputzarentzat dan bera-xe da. Gorputzaren osasuna bere zati guztien berdintasunetik, bere zentzu ta almen guztien onetik dator; pakea ere onen antzera, adin, gogo, ta griñak alkañi amor eman eta tajuz begiratzetik, alkañi beren lekua, beren kidetasuna, berena dan uraxe opa izatetik sortzen da.

Zein gorengo ontasuna dan pake au, Jesukristo gure Jaunak adierazten digu itz auetan: Zorionekoak

paketsuak, Jainkoaren seme izendatuak izango dirata. Izen egoki ezaria Jainkoaren seme izen auxe, semeak aitaren antza izan oi duan bezela, paketsuak bere griña ta jaidura okeřetan nagusitasun eta ezimena daukanak ere befiko altzuma, aldakaiztasun arigaria duan Jainkoaren antza du-ta. Zeruko izařen ibilera lirain eta egoki irutua arigaria baldin bada, ez da gutxiago, noski, griñak beren neurı egokian ezi ta zuzenduak dauzkan gizon zintzoaren baretasuna.

Ez uste izan, ordea, pake au geldiera lela bat danik eta gizon paketsu onek leiatu ta arduratu bear ez duanik ezimen, baretasun eta berdintasun au iritxi ta zaitzen. Gizonaren bizia, bada, Espiritu Doneak dionez, etengabeko lizkar eta gudaritza da ta gutxiena uste ta itxaro duanean etori dizaizkioke bere bizitza barea bizitu, kazkartu ta lařitu dezaketen zirikaldi ta esespenak.

Pablo zidali Doneak dionez gizonagan alkar ezin eramaman duten indar bi daude, bat barungoa, animarena, gogoarena ta bestea azalekoa, griñarena, jaidura okeřena ta auek beren apeta ta gurari sutsuakin ziztatzen, akulatzen dute gizonaren gogo zintzoa ta bere pakezko egoera gozatsutik aterazi ta beargaitzen, easatzen dute, ta griña aien suari aizematen die-na ta aien ezimenean zabartzen dana, naiz aberatsa, naiz beartsua izan, aoak aitatu ala zalekeri ta gurari bizen egaři izango da. Bereganatzen dituan ospe, aunditasun, aberastasun eta atsegiñak bere griñen itzalgaři, asegaři izan beařean, piztugaři biurtuko

zaizkio; griñak, eman ala eřekifñ ixiotu ta eřetzen dutenen sugařak bezela dira-ta.

Bizirik asko irudikatzen digu Beřionak aitatzen digun seme ondatzale arek, pakerik eta zorionik gabeko auen izaera. Aitaren etxean ugaritasunean, aukera guzian bizi zan seme ondatzale ura, bere griñak aseaz ez titan igari egin nairik, urutitara joan zan aitaren begietatik igesi. Garaiz bařno len bere senialdea artuta eta bere griñen suak bidegile zituala, et-zan gelditu bere burua ondatu ta egoerarik zorigabe ta negargařien era erakaři arterařno, azkenean, aritzetik luřera zetozten ezkuřez bere gosea ase nai ta ezin al izaterařno.

¡Ain zorigaitz gořira erakaři zuten bere grin okeřak, berai eskatu ala ematen oitu zalako!

Geure buruari ařia ekaři nai ez badiogu, beraz, Jesukristo gure Jaunak Bidali Batzari lenengo aldiz agertzean eta Jesus lur onetan jaiotzean aingeruak aiatatu zizkiguten pakezko ta gogo onezko itz aiek guregan betetzen arduratu, leia bear degu. Ori egiteko bide bakařa, ordea, Jainko gure Jauna gure Jaun eta Nagusi gurentzat ezagutu ta aitortzea da ta gure zeregin guztiak bere bidetan zuzentzea; naiz zorigaitz eta naiz zorionetan, pozetan bezela negar alditan ere, biotza beti Jainkoagana jaso ta beti bere begien aurean ibiliaz, bakoitzari berea emanaz, zailtasun, estualdi ta auzitan egia dan ari garbi ta alkar maitasunez, geuregoikeririk gabe begiratuaz eta onela zintzotasun eta jaiera bizi onegaz gure eginkizunak betetzen ditugula gure buruagan eta lagun-urkoagan Jaunari bear

dan aintza emango diogu, eta eragozpen eta esespenik beltzenen artean ere gure barungo pake ta egiazko zoriona arkituko degu.

Ora zer adierazi nai digun, Jesukristo gure Jaunak gaurko Beñonean, pakezko agur oregaz.

Pakezko agur onen ondoren itz auek esan zizkien Jesus'ek bere ikasleai: *Sicut misit me Pater et ego mitto vos.* Aitak bidali niñuanetz, neronek ere bialtzen zaituztet.

Itz auek bidalien eta beren ondorengo apaizen eskubide-agiriak dira. ¿Zer dira, beraz, apaizak? Jau-naren ezpañetatik oraintsu entzun dezute, Jesukristo-ren bidaliak, Jesukristo'ren aldunak, Jesukristo'ren ontasunen banatzalek, bañeatzaleak.

¿Nola bialtzen ditu Jesukristo gure Jaunak? Ber-bera Aita Jainkoagandik bidalia izan zan bezelaxe. Ta eginkizun berera: Jainkoa goratu ta aintzatu ta oren bitartez gizadia gaizkatzera, zeruratzera. Berak dituan almen oso-osoakin bialtzen ditu. Jesukristo gure Jau-nak, beraz, bere bidalietan iragazten dizkio Eleiza Ama Doneari bere bialkuntza ta artarko bear dituan eskubide ta almen guztiak.

Itz aiek esanda, Jesus'ek, Beñionak dionetz, ja egin zuan aienganuntz eta esan zien: Ar zazute Espi-ritu Donea, azkatzen dizkiezutenen obenak azkatuak izango zaizkie ta eusten dizkiezutenenak eutsiak izan-go zaizkie.

¿Zer esan nai dute itz auek? ¿Zer ateratzen da itz auetatik? Garbi ikusten da apaizari almen bikoitz

bat eskuratzen diotela, obenak barkatzeko ta obenai eusteko almena, alegia.

Eta, ¿nola erabili bear du almen au? ¿Gogoak, kazketak ematen dionez? ¿Nai duanari barkatu ta nai ez duanari barkatu gabe utziaz? Ez, inola ere ez. Gizon soilaren almenaz ori egitea itzalik gabe, arinkeriz egitea litzake, ta ainbat areago Jainkoaren almena ain men gutxiz erabiltzea.

¿Zer esan nai du onek? Obenak barkatu ala eusteko almen au buruz erabili bear dala, barkatzea dagokien aiei barkatuaz eta ez dagokienai eutsiaz. Oretarako beaŕekoa da arau jakin bat, beraren bidez barkatu ala eutsi bear zaien, zuzen jakiteko.

Orain bada, bidaliak eta beren ondorengoak jakin zezaketen Beŕionaren arauz barkatu ala eutsi egin bear zuten, nai ta naiezkoa zan bakoitzaren erua eta baŕungo gertueraren beŕi jakitera eldutzera. Itz batean esateko, beaŕekoa zan baŕungo aŕaren imurtxiak, ozkak eta eskutuak jakitea. Bestela, ¿nola erabaki oker bilduŕik gabe barkatu ala eutsi bear ote zitzaizkien? ¿nola eldu bere eskutuko akats oiek jakitera, garbailak bere gogoz aitortzen ez ditualarik?

¿Zer ateratzen degu emendik? Argiro ikusten degu Jesukristo gure Jaunak, bidaliai obenak barkatu ta eusteko almena enŕan zienean aitorketa ere irazi zuala, eskuratu zien almen ura buruz eta tajuz erabili alizateko.

Argiroago azal dezagun au, adibide batez. Eŕidi bateko epaitz agintari nagusi batek gizon bat epaille izendatuta erki batera bidaltzen badu esanaz: Erki

oñetarako epaile izendatua gelditzen zera, auziak epai itzazu, azkatuaz ala zigorkatuaz zure mendeko epaitegira datozenak.

Esaidazute ¿epaile oñek azkatu ala zigorkatu ote lezazke, bere kazketa utsak ematen dionez, salatua izan diranai ezer entzun eta beren argitasun eta agiri-rik aztertu gabe? Ez noski ere bada. Ori egitea zuzentzari iseka egitea izango litzake, burugabe jokatzea izango litzake zuzentzaren eraketan. Agintari buruak epaile oñi bere mendeko erkian auziak epaitzeko eskua ematean, jakina danez, adierazi nai zion, lendabizi entzun, aztertu ta ezagutu zitzala sakonki salatuen erantzuna, beren akastasan ala erugabetasunaren ezaguerara eldu zedila ta gero zuzentzari zego-kionez epai zitzala.

Jesukristo gure Jaunaren itzak, garbaitzako, aitortzako sakramentua sortzean ere, orixe eskatzen dute, alegia bidaliak eta sakramentu ori darabiltenak garbaileen aldea, erantzuna jakin bear dutela, beren barunaren agerpena, itz batean, beren aitorketa jakin bear dutela, zuzentzari dagokionez beren epaia eman dezaten. Beraz, garbi ikusten da, Jesukristo gure Jaunak obenak barkatzeko almena eman zuanean, oben oien aitorbearreko legea ezari zuala, almen oñen ondoren onak iritxi al izateko.

¡Almen bikaña! ¡Eskubide jainkozkoa N. E. M.! ¡Jainkoaren eta gizonen arteko pakeak egin eta itxitzen dituana! ¡Jesukristo gure Jaunak Jainkoa zanez eta guztia dakianez garai egokian emana! ¡Bere pakezko agur ura Pasko'ko garaian gizadi guztiaren biotzetara

gozoro ta pozkidarik eztienez zabalitzen duan Aitor-
tzako Sakramentua! ¡Ez dezakegu egin Jesukristo gu-
re Jaunaren opakortasun, eskuzabaltasun amaigabe
onen aurrean, geure burua auzpeztu ta apaltasun eta
ezaguerarik aundienaz bere izena goretsi ta bedeinka-
tu besterik!

Tomas, amabietako bat, Didimo zeritzana et-zan
aiekin, Jesus etorri zanean, Beñionak dionez. Beste
ikasleak, beraz, esan zioten: Jauna ikusi degu. Baña
arek erantzun zien: Ikusten ez baditut bere eskuetan
iltze oiak eta nere beatza iltze zuloetan eta nere eskua
bere saietsean sartzen ez badet, ez det sinistuko.

Siniskaiztasun zetatsua, zimatsua benetan. Ez
dio eskurik ematen emakumeen aitormenari, ez du
aintzakotzat artzen beste bidalien baietzik ere. Ain-
beste lagunen aitormen ain benaz, bein eta beñiz eta
xetasun guztiekin egiñak bazirudian Tomas'en biotze-
ko zima, siniskaiztasun gogoña bigunarazi bear zuala,
baña berean iraun zuan. Bazekian, berak entzun zion
bere Irakasle Jesus'i irugarren egunean piztuko zala,
maite zuan eta bere aintza ta goraldia nai zuan, baña
et-zan besteen esan soilaz asetzen, et-zuan ain ajola
aundiko zer artan besteren esanaz bakarrik kuturtu
(convencer), etsi nai, bere begiz, bere buruz ikusi
bearko zuan sinistea nai bazuten eta ez beste inola
ere.

Andik zortzira, Beñionak dionez, ikasleak an bar-
nean zeuden beñiro, baita Tomas ere berakin. Ate itxi-
tan etorri zan Jesus eta erdian jañi ta esan zien: Pakea
zuetan. Gero Tomas'i esan zion: Ea ekar beatz ori

onera eta ikus nere eskuok, eta ea esku ori, sar baita ere nere saietsean eta ez izan siniskaitz, sinisle ezpaik.

Ain argi ikusi zuanean Jesukristo gure Jaunaren gorputz berpiztua ta beragana beartzen zuten Jesukristo'ren itz aiek entzun zituanakin batean, biotz-biotzetik otoitzik ariñari ta bikaiñena dan Jesukristo'ren jainkozko aitormen ederenik ederenena erten zitzaiion, itz auekaz: *Dominus meus et Deus meus*. Ene Jaun eta ene Jainkoa.

Ez, ez, esan zion Jesus'ek, ekar beatz ori eta ikus nere eskuok, ea esku ori, sar nere saietsean. Tomas bidaliak bere lagunai ezezkoa ematean erabili zituan itz ber-beraz mintzatzen zaio, gertari guztia ongi dakiala adierazteko ta bere zoñoztasuna ta erabat bere jainkozko biotz erukitsuaren biguntasuna agertzeko.

Jesukristo'ren agerpen onek Tomas doneagan ki-muarazi zituan eteiñak, sortuarazi zituan ondoreak, lots, apaltasun eta biotz-sakonetiko damutasuna izan ziran eta gero, Jesus'ganako sinismen eta maitasun gori-irazekia. Bere biotzaren eman auek guztiak bizi-ro tinkoturik daude bere aiateko labur onetan: Ene Jaun eta ene Jainkoa. Itz auek aitortza zindo ta osoa ta Jesukristo'ren jainkotasuganako sinismen samur-bizia dira ta beraganako menderapen zearoa agertzen dute.

¡Zer gozamen eta zañara soma ote zituan bere biotz mamian, bere beatza Jesus'en zauritan eta eskua bere saiets donean, maitasun garden eta ontasun guztien iturri bizi artan sartzeko agindua ta zoriona izan zituanean! Ez dira itzez esatekoak, gogora ditzagun gure bañuan eta bakartasunean.

Gertari ariñari onek guregan ere aren antzeko ki-
muak, emaiak suspertu bear ditu. Tomas donearen
siniskaiztasuna izan bear du geure siniskaiztasun eta
oztasunarentzat sendagairik autena, bereziena. Ala
dio Gregorio done Aundiak, gaurko ariñetan: Tomas
Donearen siniskaiztasuna, ernaiñoragoa, susperkoñ-
goa izan zan gure sinismenarentzat bidali sinisleen si-
nismen berbera baño. Ta beste leku batean geitzen du.
Miren Madalen'en edestiak, berealako batean Jesu-
kristo'gan sinistuaz, ez du nere biotzean, Tomas do-
nearen sinismenak, ainbeste aldian zalantzan eta ez-
mezean ibili zan aren sinimenak ainbat zañara egiten.

Eta gure biotzean sinismenaganako zalantzak
leku artzeko zorigaitza izan badegu, izan eta euki
dezagun beñepein guregan Tomas doneak bezela as-
mo zuzena, egi-egia ezagutzeko gogo ta leia, otoitz
egin eta eskatu dezaiogun Jaunari bere argitasun ta
goi-laguntza bial dezaigula ta bere zerutar intza, bere
esker done eragilea guregana ezpairik gabe jetxiko da.

Azkenez Jesus'ek Tomas doneari itz auek dasaz-
kio: Tomas, ikusi nauzulako sinistu dezu, zorionekoak
ikusi gabe sinistu dutenak.

Itz pozgariak auek guretzat E. E. M. Ez degu
izan bada Jesukristo gure Jauna ikusteko apuko eta
erarik, baña ala ere aitortzen degu sinismen osoaz
gure Jaun eta Jainko dala ta bere bide ta erakutsitan
bizi ta il nai degula. Oregatik zeruko intz naroa bezela,
bete-betean datoz guregana Jesukristo'ren adur onez-

ko itz bedeinkatu aiek: Zorionekoak ikusi gabe nigan
sinistu dutenak. Alegin gaitezen, bada, bere mendetza
gozoan irauten, egun batean bere gorputz zoriontsua-
ren zauriak agurtu ta goretsiaz bere betiko zorion
eztian bizi gaitezen.

Ala izan bedi.

Pasko ondoko bigarren Igandea

Yon Don. X, 11-16.

Jesus'ek esan zien zurikariai: Ni Artzai Ona naiz. Artzai onak bere bizia ematen du bere ardien alde. Moñoiak, ordea, artzai jator eta ardi zalea ez danak, otsoa etortzen ikustean ardiak laga ta igesari ematen dio: ta otsoak ařapatu ta sakabanutzen ditu ardiak: moñoiak, ordea, iges dagi, moñontzan ari bait-da ta ez bait-da ardi zalea, ardi nagusia. Ni Artzai Ona naiz: ta nereak ezagutzen ditut, eta nere diranak ezagutzen naute. Aitak ni ezagutzen naun bezelaxe, Nik ere Aita dazagut: eta nere bizia jartzen det nere ardien alde. Eskorta, artegi onetakoak ez diran beste ardiak ere baditut: eta aiek ekar beařean naiz; eta nere deia entzungo dute ta artalde bat eta artzai bat osatuko da.

Artzai Onaren izen gozoaz deitzen dio Jesukristo gure Jaunak bere buruari: Ni Artzai Ona naiz, esanaz.

¿Zer da artzai ona, N. E. M.? Begiratu besterik ez daukagu bere ardien erdian dagoan artzai jator

baten. Aztertu dezagun bere biotza, bere gogo ta asmoa ta ikusiko degu bere artaldea maite duala, gau ta egun bere arditan gogaltzen, oldosten, pentsatzen dagola, bere ardiak alik ondoena zaitzeko, lañerik gozoenaz elikatzeko burubidetan dabilela.

Begira dezagun zer dagian artzai oñek. Ardiai bidea erakusten die beren aurretik joanaz, aru ta amildegietan bera ardiak amildu ez ditezen ernai ta aretaz zuzendu ta begiratuaz. Barutitik ardiren batek igesi ta sasartean arantzetan lotu ala leizaen batera erori ta galtzen bada, bere bila ateratzen da ta bear bada egun guztia igaroko du berari begi eman arte, ta azkenean atzematen, arkitzen duanean, azonatu, zigorkatu bea-ean bere sorbaldan gozaro ta bigunki artu ta eskortaruntz darama. Iluntzean saletxera, bordara itzularaziko ditu ta antxe sartzerakoan bana-banan zenbatuko ditu, guztiak osatu diran zeatz jakiteko.

Auxe egiten du gurekin ere Jesukristo gure Jau-nak, gure animen artzai onak. Bere erakutsi ta zeru-tar egiaz gure burua ta adimena argitzen ditu, bere bizitzaz eta bizitzako ikasbide, eginkizun eta mirariaz zuzentzen eta bidea erakusten digu, beti bera aurrean eta buru degula.

Au adierazten digu garbi bere itz auetan. *Ego sum via, veritas et vita*. Ni naiz bidea, egia ta bizitza. Ni naiz bidea, bere erakutsi ta argiari jañaituaz egira elduko zerate; egia bakara da, ezin litezke baie-tza ta ezetza ezertan erabat aurrez-aure jañita alkar ondo etoñi, batek bakarik, egiak bakarik atera bear du nagusi ta egi onek sortzen ta ugaltzen du bizia; bai,

bide ta egi oiei jañaituaz sortzen eta ugaltzen da gure gorputz eta soñean osasun bikaña ta bide ta egi oiei jañaitzen diogula sortzen eta ugaltzen da gure animetan amaigabeko zorion eta bizitzara garamazkian osasuna. *Ego veni ut vitam habeant et abundantius habeant*, jañaitzen du esanaz Jesus'ek. Ni etoñi naiz lur onetara bizitza izan dezaten eta amaigabeko bizitzaren jabe izan ditezen, eta oñela lur nastu onetako bide oker, labain eta lañotsutan bera da gure zuzendari, aintzindari ta argile gu betiko bizitza oparoaren jabe egiteko.

Artzai onak zaitzen ditu baita ere bere ardiak bear duten janariz elikaturik. Zelai gozatsu ta belardi oparoetara eramaten ditu, ur bizi-gardenetan beren egaña itzalierazten die ta belar txar eta sasi artetatik uruntzen, urufiratzen ditu era onetan aukerako leku naroe-tan gogatsu janaz eta ibiliaz indartu ta guritu ditezen.

Auxe egiten du baita ere gurekin zerutar Artzai Onak, Kristo gure Jaunak. Gure animetan grazizko bizia sortu, indartu ta bikaintzeko bere sakramentu doneak jañi zituan, eta gure eskuan jañi ta egokitzen dizkigu gure animaren bizia sendo ta zaintsua izan dedin. Ugutz, bataio donearen bitartez sortzen da gure animan graziazko bizitza, sendotzaren bidez indartzen eta ornitzen da zerutar bizi ori, aitortzaren bitartez gure animako zauriak eta pekatuaren gaitzak garbitu ta sendatzen dira, eta era berezi batean Eukaristiko Sakramentu Donearen bidez, bere gorputz eta odol jainkozkoaz berotu ta irazekitzen du bere lege donean irauteko, erabat bere betiko bizitzaren jabegai

egiñik. *Qui manducat meam carnem et bibit meum sanguinem habet vitam æternam.* Nere aragia jan eta nere odola edaten duanak betiko bizitza izango du, esaten du, bada, Jesukristo gure Jaunak berberak.

Artzai Onak, jaraitzen du Beñionak, bere bizia ematen du bere ardien alde, moñoiak, ordea, ta ardiak bereak ez dituanak otsoa etortzen ikustean ardiak bertanbera utzi ta iges egiten du, ta otsoak arapatu ta sakabanatzen ditu.

Artzai onak bere ardiak maite ditu ta oregatik bere bizia ematen du beren alde, bere bizitzako lan, arazo, alegin eta ganora guztiak bere ardien alde, onerako jartzen ditu, ardiak gizendu, marduldu, guritu, bikaindu ta alik ondoena azi ditezen. Moñoiak, ordea, ez ditu lan eta arazo oiek ardien onagatik artzen, alegia bere irabazi ta lan sariaren usaian, itxaropenean betetzen ditu bere eginbeñak. Oregatik, bada, artzai jatoñak otsoa arditara etortzean makila artu, agaia eskuratu ta aien aurrean jartzen da ta otsoari arpegi ematen dio bere ardiak triskilatu ez ditzan, irabaziari bakañik begiratzen dion moñoiak, ordea, bere burua elorñioan ikustean igesari ematen dio, ardiak otso gosefi-goñiaren atzapañetan bakar-zurtzean utzirik.

Ez degu añezaz artu gabe utzi bear Jesukristo gure Jaunaren erakutsi eder au. Maitasunak bereziazen du artzai jatoña. Maitasunak bere buruaren erosotasuna utziarazi ta ardien onerako nekerik latzenak añerazten dizkio. Oña sendiko artzai diran guraso onentzat ikasbide egokia. Guraso onak bere semeen

ontasunean ezañi bear du bere zoriona, ta aien maitasunez artzen dituan nekeak beren ontasunak arindu ta aztuerazi bear dizkio, bestela ez da biotz gunetik, mamitik datoñen egizko maitasuna. Oregatik, bada, gurasoak beren buruak ontzat euki nai badituzte, beren zoriona diran beren semeen zintzotasunaren alde arduratu bear dute ta beren zintzotasunari kalte egin dizaioketen gaizpide ta okerkerietatik aldeerazten sañitan alegindu bear dute.

Nik ezagutzen ditut nere ardiak eta nere ardiak ezagutzen naute, jañaitzen du esaten Jesus'k. Eta onela sendiko artzaiak, gurasoak zaitu bear ditu bere seme-alabak eta ezagutu bear ditu osoro, beren alde on eta beren akatsetan, akats auek onean, leunean eta aztiro, baña bear bada bai zoñotz eta itzal aundiaz ere zuzenaraziaz, eta alde onak dituan aietan berotu, arnas eman eta beren pozkarioz auñera eragiñaz. Guraso onak jakin bear du zeatz bere seme-alaben izaera ta biziera, jakin bear du norekin, zein lagunekin dabilzan, zer zaletasun, jolas, irakurgai dituan, jakin bear ditu zer bilera ta etxeratze dabilzkiten. Añetarik aundienaz begiratu bear die guraso onak gertakizun aueri ta eraman aundiaz, baña egundaño etsi gabe ekin eta jañaitu bear du berak zuzentzen eta bide onean ezitzen. Zineak, dantza loi añotzak, besauts, papargori ta erdi bilutsikako apainkeriak, arpegiak auts zuriz eta goñiz nabarmenki margozkatzek, debekatu bear dizkie gurasoak, bein edo bein utziko badie ere gaixo daudenai ala gaixo egon diranai beren arpegi erori ta margoilduak apur-apur bat aizetu ta eraz lagun artera atera ditezen.

Baña onez gañera gaur egunean asko irakurtzen da ta bada beste zerbait ajola aundienetakoa, alegia egunkari edo periodikoa. Guraso maiteak gai onetan ardura aundia eukitzen ez badezute, uste gabe, egu-nero-egunero egunkari gaiztoak zuen semeen biotzetara ixurtzen duan eden gaiztoaz pozoituko dituzute, zuen seme-alaben buruetara ari gaiztoa, beren animen ondamendia erakariko dezute. Egunkari gaizto auek egun batean Eleiza Ama Donearen egi trinko ta koloka-eziñen aurka naspilkeri ta ganduz itzegiten dute, ta irakurleari ezer esaten bazaio, au egun bateko zera da erantzungo dizute. Urangoan Eleiza Ama Donearen gizon jakintsu batek itzaldian esanak jakinduriz ausi ta oinperatu ezin dituanean, bere erakutsiai iriz eta pañezko tentelkeriak, ergelkeriak esanaz bere jakindurizko izen eta itzala luñeratu nai izaten du ta orduan irakurleak, neri et-zaizkit orrelako txorakeriak egotzitzen, erantzungo dizute. Beste batean lekaide, edo relijioso ta apaizentzat goñotoa pizten leiatzen da ta orretarako, zokoetako txotxabar guztiak biltzen ditu ta irakurleen biotzetan berenganako zalantza ta ezpaia sortzen eta pizten du, onela izango dala ta ala izango ote dan, eta beñiak erdika ta legez eldubiderik ez dagon eran maltzurkeriz edatuaz, iragañiaz, eta onela egun batean eta bestean irakurlearen adimen eta biotza uste gabean naspiltzen, lausotzen, gandutzen, epeltzen, ostutzen eta pixkana pozoitzen joaten da, azkenean egunkari gaiztoa bezin beltz eta itxu-gaiztoa biurtzeraño.

Guraso kristautsuak, utzi, beraz, bein betiko zuen eskuetatik egunkari galdua, zuen buruai gogoñaldi

latz eta mingaia egin bear badiozute ere, ta aukeratu egunkari on bat egunero irakurtzeko oitura badezute, ta onela, besterik gabe egun asko igaro baño len zuen adimena ta irudimena obeto aseaz gañera, zuen biotzaren pake ta poza ta zuen semeen etorkizun zoriontsua landuko dezute.

Azkenez gaurko Beñona itz auekin amaitzen da. Nik baditut artegi onetakoak ez diran beste ardi batzuek ere, ta berak ekañi beañean nago ta nere deia entzungo dute ta artalde bakaña egingo degu artzai bakañaren agintzapean.

Itz auek, N. E. M., gure bañunean Jesukristo gure Jaunari egiten zioten zañara egin bear digute, ta Eleiza Ama Donea ezagutu ta aintzakotzat artu gabe bizi diran sinisgabe ta ziñausleai, artegitik galduta uruti dabilzan ardi gixajoai begiratu beañean arkitzen gera.

Guztiok dakigunez gure betiko zoriona irixtera bideratzeko luñean Artegi bakaña ta Artzai bakaña dauzkagu, ta au Eleiza Ama Donea da, Jesukristo gure Jaunaren ordezkari dan Eñoma'ko Aita Donea Buru duala. Oregatik Eleiza Ama Donearen artegitik uruti bizi diran sinisgabe ta ziñauzle gizajo auek gure biotzetan kupida, erukia ta biozperatasuna sortu bear dute, ta Jesukristo gure Jaunaren odolaz erositako seme erukañi oien zorigaitza ezaguturik, beren buruak ilumpetatik egiaren argitara ekartzeko gure aldefik lezakeguna egitera gure bañunak igitu, ziztatu bear gaitu.

Jesukristo gure Jaunaren jañaille zintzoen biotzetan beti ikutu indartsua egin izan dute itz auek:

Deus omnes homines vult salvos fieri et ad agnitionem veritatis venire. Jainko gure Jaunak gizon guztiak egiaren bidera ekañi ta zeruratu nai ditu, eta bere jañailleak berentzat bereziro egindako zerutar dei bat bezela entzun izan dute, batez ere lurbiraren erdian ainbesteko gizataldeak betiko zorigaitzaren amildegiruntz dijoazela ikustean eta beren etxe ta aberiko maitasun irazekiak utzirik lei ta gogo doneaz Jesukristo gure Jaunaren deiari jañaitzera jañi ta eman dira, gaurko Berioneko itz auek biotzean ezañiak daramazkiela: *Alias oves habeo, quæ non sunt ex hoc ovili; et illas oportet me aducere.* Artegi onetakoak ez diran beste ardi batzuek baditut eta aiek onera ekañi beañean naiz. Jesukristo gure Jaunaren itz samintsu ta kupiratsu auek beti arkitu izan dute kristauen biotzetan erantzuna ta onela ikusten degu Eleizaren lenengo egunetatik amabi bidaliak bezela ez dirala egundano agortu izan, Jesukristoren artegira ardi galduak ekartzeko kemen bizi az leiatu izan diran gizon bikañak.

Gaur egunean ere, Eleiza Ama Donea puñukatzeke bere etsaiak ainbeste alegin egiten duten egun auetan, ikuskizun pozgañi ta añaagaña da, Europa'tik, eta aberi guztiai araberan, goi-goitik eragiten diela, gure Euskaleñi maite onetatik landeñiruntz dijoaezen misiolari salak ikustea. Ez da gaur egunean eñialderik kristaudiaren bidali bikain oiek aztertut ez dutenik, eta beren artean dabilta neke izugañaik iruntziaz, egunen batean ilunpetan bizi diran gizatalde aundi aiek sinismenera ta Artzai bakañaren artegira ekañi ta beraren

bidez beren betiko zoriona irabaziko duten itxaropen bizian.

¿Eta guk bitartean zer egiten degu? ¿Ezertan esku artzen al degu Eleiza Ama Donearen langile gartsu ta lantegi garai oiei laguntzeko? Ez genuke kristau zintzoari dagokionez egingo bidali aiek auretik bialdu ta gu eskuak gurutzeturik geldituko bagina. Gutxienez beñepein begi onez eta biozperaz ikusi bear ditugu beren alegin neketsu aiek. Xamur etori bear du gure biotzetik aora beren alde otoitza, Jainko gure Jaunak ainbeste elorioren artean bere esku guzieldunaz lagun dizaien, eta limosnaz ere lagundu bear diegu aldegun neurian, sinisgabe gizajo aien artean eleizatxo ta ikastolak jaso ditzaten eta beren kristau biurpena ezeztu dizaiegun.

Oretarako daude aspalditik jarita guztiok onezkero ezagutzen dituzuten lantegi bikañak. ¿Nork ez du entzun «Sinismen Zabalkundearen Lantegia» zer dan?... Luñeko kristaudi guztian sare bat bezela zabaltzen dala, kristau bakoitzak apur bana lagunduaz dirutza aundiak biltzen ditu, beren bidez milaka mixiolariri laguntzeko sinisgabeen eri soil aietan, eta Aita Doneak barkamen ugariak irixten dizkigu laguntza oretan leku artzen degunoi. ¿Nork ez daki «Aurtzaro Donearen Lantegia» zer dan? Aurtxoak aleka-aleka ematen duten txakur-txikiaz sinisgabeen aurak eriotz ziuetik atera ta umezurtztegietan azitzen dituzte sinismena ta bizipidea erakutsiaz. Berebiziko lan biotz ikugaria aurtxoak beren areta zintzoaz egiten dutena. ¿Nork ez du ezagutzen azkenez gizadi beltzaren bidalia dei-

tzen dioten, «Pedro Donearen Lantegia»? Bere bidez laguntza urri batez, urteko laurleko batez, aberri bakoitzean bertako seme jatorrai apaiz ikasbidea egiteko era ezezten zaie ta beraren laguntzari eskerak txinañak, indiañak, japoitañak, zelandañak eta gizakera guztitako semeak apaiz eta gotzai mañatara igotzen dira, eta berak ain sakondik ezagutzen duten beren aberrian eta ain biotzez maite dituzten beren erietan lan izugaria egiten dituzte sinismenaren alde.

Guztiok, bada, N. E. M. jaso ditzagun aretaz gure biotz eta adimenera gaurko Berion Doneak ematen dizkigun argitasun eta erakutsi edeñak, bakoitzak, dagozkigun lanbide ta lekutan leiatu, arduratu gaitezen kristau-bidez gure eginkizunak betetzen eta gure etxe, auzo ta erbestean kristauerari dagokigunez gure ontasuna zabaltzen degula iritxiko degu azken auzi-egunean Jesukristo gure Jaunaren eskubiko artalde zorionsuan gure buruak ikustea.

Ala izan bedi.

Pasko ondoko irugañen Igandea

Yon Don. XVI, 16-22.

Jesus'ek esan zien bere ikasleai: Alditxo bat (igaro) eta ez nauzute geiago ikusiko: ta alditxo bat (igaro) beñiz eta ikusiko nauzute, Aitarengana bait-noa. Orduan aren ikasletako batzuek alkafi zioten: ¿Zer ote da, esaten digun au: Alditxo bat (igaro) eta ez nauzute geiago ikusiko: ta alditxo bat (igaro) beñiz eta ikusiko nauzute, ta Aitarengana bait-noa? ¿Zer da alditxo oñek adierazten duan ori? Ez dakigu zer dion. Onetan, Jesus'ek igari zion galde egin nai ziotela ta esan zien: Alditxo bat (igaro) ta ez nauzute geiago ikusiko: ta alditxo bat (igaro) beñiz eta ikusiko nauzute esan dizuedala ta ori azterikaturik zabilzate zuen artean. Egi-egitan dizuet, bada: negar-sotiñetan ibil bearik izango zerate, gizatza, beñiz, poz artean: zuek, oster, goibel izango zerate, baña zuen goibela pozetan, argitan biurtuko da. Emakumea ere erdibitzerakoan, lafi ibiltzen da, bere garaia burutu dalako, baña aña argitaratzen

duanean, et-zaizkio lengo lafitasunak oroitzen, umea bizitzara, gizadira jaio dan pozaren pozez. Eta orain zuek oregatik goibel zaudete noski, baña ikusiko zaituztet beñiro, ta zuen biotza argituko da: ta zuen poza ez dizute iñork ere kenduko.

Gaurko Beñion Donea, Jesukristo gure Jaunak bere bidaliai esan zizkien itz auekaz asten da: Aldi labur bat igaro eta ez nauzute ikusiko eta beste aldi labur bat igaro ta ikusiko nauzute: Aitarena bait-noa.

Jesukristo gure Jaunari entzun zioten bidaliak etzioten igarñi zer esan nai zien itz auekaz, eta ez da aritzekoa geroztik itz auen adiera arakatzen, aztarikatzen jardun eta alegindu diranak ere zeazki ez zuritzea, atxitzea; onegatik adierazle batzuk diote, aldi labur orek Jesukristo gure Jaunaren nekaldi ta piztuera arteko egunak esan nai duala; beste adierazleak, beñiz, bere zerurako Igokundetik azken auzi-egunera arteko epea esan nai duala.

Bigarñen adiera au dala dirudi egokiena. Eleizaren jakintsu ta adierazlerik geienak diotenez, bada, urango aitatu zituan itz auekaz: *quia vado ad Patrem*, Aitarena bait-noa, itz auekaz, alegia, bere zerurako Igoera, bere Aitaganako itzulera adierazi nai zuan.

Guk ere adiera au artuko degu zuzenbidetzat, gure bizitza argitzeko bear ditugun ikaskizunak bertatik arduraz ateratzeko.

Jesukristo gure Jaunaren zerurako Igoeratik ilak eta biziak epaitzera etoñiko dan bigarñen etoñialdira

arteko epeari, bitarteari, beraz, *modicum* aldi laburra, tarte motx bat deitzen dio Jesukristo gure Jaun eta Jainkoak. Jesukristo gure Jauna bere Aitagana zerura igo zanetik ogei gizaldi, bi mila urte ia igaro dira. Jo dezagun azkeneko auzi-eguna baño len beste ogei gizaldi, beste bi mila urtek igaztu bear dutela: etortzeko dauden ogei gizaldi oiek, len igaztu diran ogei gizaldi oiekin bateratuta, ¿zer dira? *Modicum*. Aldi labur bat, une bat bezela.

Onela adierazten digu Jesukristo gure Jaunak. Eta onenean esango dezute: ¿nola itzegiten du orrela? Berak, orain arte igaro diran urteak eta gizaldiak, gaur igarotzen ari danak eta geroenean etorriko diran guztiak bat batean ikusten ditualako, bere begien aurrean une batean bezela dauzkalako. Alaxe dio Dabid Igarle ta Erregeak ere. *Quoniam mille anni ante oculos tuos tamquam dies hesternæ præterit*. Mila urte, Jauna, zure begien aurrean, atzoko eguna bezela dira. Eta ¿zer da atzoko eguna guretzat? Ezerez, oroipen bat, gogamen bat, ondo ala gaizki gure bizitzari eralki ta joandakoaren oroipen bat. Auxen dira bada Jainkoarentzat, lur onetan iraun eta igaro bear duten egun, urte ta gizaldiak ere, berarentzat oroipen eta gogamen bat bezin laister igaztu ta ayenatzen diralako, ta orregatik dio ain zuzen Jesukristo gure Jaunak: *Modicum et videbitis me*. Aldi labur bat, une bat bezela igaro ta beriz ikusiko nauzute.

Orain, bada, mila urte Jainkoaren begietan utza badira ¿zer izango ote dira guri lur onetan igarotzeko

gelditzen zaizkigun bost, amar, ogei, berogei urteak? *Modicum*. Gure irudimenak ezin iruditu lezaken une ezerez bat. Ain motxa ta labuía da gure bizitza betikotasunaren aldean. Beraz gure oñazeak, miñez gaude-
nean, gure naigabe ta iluntasuna ezbeaíren bat gerta-
tzen zaigunean, gure ustegabe gaíatzak gizon giza-
txar eta ezjakiñak ez dagozkigun gauzak esan eta
egiten dizkigunean, gure samintasunak kalumniren
batekin bezten gaituenean eta lur onetako beste min
eta neke guztiak utzak, ezerezak, ariñak dira, betiko-
tasuneko oñaze ta samintasunen aldean jaíri ezkerro.
¿Nola ez egin bada alegiñak gure neke auek onez
eramaten, aldi ain labuíean eraman bear baditugu?

Beste aldetik lur onetako poz eta alaitasunak
labuíaak eta utzak dira betikotasuneko poz eta zorio-
naren aldean. Oíregatik ibilera lizun eta dantza loietan
dabiltzanai esanaz dago gaurko Beíiona: *Modicum*,
laister, emendik amar urtera, nai badezu ta ezbadezu,
utzi bear ko dituzu eragabekeri oiek, zaía izango bait-
zera ibilera auetarako, nai badezu ere orduan Jainko-
ari ezin eskeñi al izango bait-diozu zure gaztetasuna,
zure gaztearoko garbitasuna; zure edertasuna, emen-
dik amar urtera, izotzak jotako lore bat bezela ximur-
tua, ximeldua geldituko da; beraz bear baño apainduri
nabarmenagoaz bazabiltza, zure gorputza erdi-bilutsik
dezula bazabiltza, zeure buru utzaíoa, gotzai jaunak
gaitzetsi dituan oraingo gizon kazkariñak asmatutako
emakumeen eder-erakusketan azaldu nairik bazabiltza,
deika daukazu Kristo gure Jaunaren gaurko Beíiona
modicum, zaude pixka bat, apur bat, laister azalduko

da zure edertasun ori zertan gelditzen dan, zure eriotza ondoren arak zure gorputzean nagusitzen diranean, zure gorputzaz bazkari oparoa egiten dutenean eta zure gorputz ori jan odoren arak alkar iruntsi ta lau ezur eta auts pixka bat egiñik gelditzen zeranean. Oía zure aize ta arokeri lizun guztiak zertan gelditu ta amaitzen diran.

Il da bizi lanean ari bazera dirua auferatzeko beste asmorik gabe, jai egunetan ere lanean ari bazera Jainkoaren izena goratu ta agurtu beáean oñazpiratuaz, esanaz daukazu Kristo gure Jauna, *modicum*, laister, bereala amaituko dira zure diru oiekikoak, laister guztiak utzi beáean arkituko zera, ta zuk ainbeste izerdiz eta nekez jai egunetan ere lana egiñaz irabazi ta auferatutako diru oiek zure seme ta ondorengoak, zuregandik ain ikasbide ta erakutsi txara ikasten ari diranak, agian alpeñik eta gaiztakerian galdu ta ondatuko dituzte zure neke ta ler egiteak utzera, ezerezera biurtuaz.

Baña bidaliak Jesukristo gure Jaunaren Beñioneko itz aiek ulertu ta konprenditu ezin zituzten bezela, kristau askok ere beren biotz itxutan ezin ulertu ta konprenditu dituzte Beñion done oretatik datozen egi sakon auek, eta orela beren itxutasun oregaz beren buruen ondamendira dijoaz. Jesus'ek, ordea, beren ezjakin eta ustekabean zuzenbide bat beren bizitzarako izan zezaten itz auek esan zizkien: Egi-egitan esaten dizuet: zuek negar egin eta saminduko zerate, mundua, ordea, atseginduko da.

Beraz Jesukristo gure Jaunak berak dionez bidaliak eta berai jaraitzen dien kristau zintzoak, naiz

zañak ta naiz gazteak, gizonak eta emakumeak, aberatsak eta beartsuak, guztiak beren buruak bide zintzotik eramateko neke ta samintasunak eraman bearik daude. Alaxe dio Pablo bidali doneak ere: *Omnes qui pie volunt vivere persecutionem patientur*: Kristoren adizkidetzan bizi nai duten guztiak eraso, esespenak eraman bearko dituzte: eta eraso gogor eta samintsu auek batzutan beren buruak, beren baruko griñak sortuko dizkie; bestetan, beriz, besteren bekaitz eta ezin eramana ekañiko dizkie, ta oñela bizitza zintzoa egin eta kristau arazoak eta bere eginbearak alik ondoena betetzen alegintzen badira ere befi sortuko dira mingain txarñak, gauzak batekoz beste esango dituztenak, beratuazi ta leku txarñean utzi naian dabilzanak eta besterik ezin dutenean gezuñez laidotu, bizuztu ta beztuko dituztenak, eta bitartean kristau zintzo oiek, batzutan ezjakiñean eta bestetan dakiela, ixilik iraun bearko dute garaztasun eta samintasun oiek beren baruan iruntsiaz, iltzera daramaten arkume otzan-erugabea bezela.

Mundus autem gauebit. Mundutañak, ordea, gizaztañak poztuko, galenduko dira zu oñela beerratuaz ta mindua ikusiaz, berak año ta aizetsu ibiliko dira bere ingurokoen txalo ta gorak entzunaz eta begiratu alai ta atsegiñak alde guzitatik bilduaz. Año ta aizetsu ibiliko dira bizitza onek azkenik ez balu bezela; emen eta an egingo dituzte ixilpean ala agerian beren gaiztakeriak, eta osasunak eta aundiusteak irauten dien bitartean galen eta garaile azalduko dira, baña eriotzaren araztak ikutzen dienean, eriotz atzapañak eldu

ta menderatzen ditunean amaituko dira beren zorion ustel guziak.

Tristitia vestra vertetur in gaudium, dio Jesukristo gure Jaunak baita ere gaurko Beñonean. Zuen negaia, zuen iluntasuna poz eta zorion biurtuko da; ta gañeratu genezake guk gere aldetik: *gaudium eorum vertetur in tristitia*, beren poza iluntasun beltz biurtuko da. Auxe gertatzen da, bada, lur onetan ere N. E. M. eta ez dira izaten geienean zoriontsuagoak gaiztoak beren atseginkeri artean, onak Kristoren bideari jaraituaz eta beren buruari gogor egiñaz baño.

Luñeko atsegín eragabeak, bada, gozamen laburbaten ondoren geienean aspertzea, akítasuna, gogaiteta, gañaztasuna, mingoztasuna ekartzen dituzte, ta loiak eta gaiztoak badira, beñiz, bañungo kezka beltzak eta batzutan beren ondoren ikaragañiak, xauketa galantak, estuasunak, lotsakizunak, gaixotasunak eta beste ainbeste ta ainbeste negar eta ezbear ikaragañi. ¡O pekatua, zein maltzua ta zitala zeran! ¡Zenbat negar eragin eta beazun gañatz, mikatz iruntsiazten dituzun lur onetan bertan ere!

Bide onean eta zintzoan dabilenak, beñiz, asieran bere buruari gogor egin bear izaten dio ta alegindu bear izaten du bere grañak ezi ta menderatzeko, bere akatsak aitortzeko, eleizkizunetara joateko; baña gero asierako neke ta gogortasun, gordintasun ura poz eta egiazko alaitasun biurtzen zaio bere grañak azpiratzean, jaunartze irazekiak egitean, eleizan itzaldiak entzunaz indar beñitu ta suspertzean, abesti edeñaz

biotza gozatzean eta gabean garaiz etxeraturik bere emazte ta semeakin, bere etxekoakin egunari pake ederean buru ematean. ¿Zergatik ori? Egiazko zoriona, egiazko pakea ta gozamina arkitu dualako.

Egiazko poz eta zorion onen agerkaia da, N. E. M., erañegun Loyola'ra beste berogeia apaizekin bakartegun bat egitera joan nintzanean ikusi nuana. Nere gelara sartu nintzan itzaldi, sermoi bat entzun ondoren, nere mai aurreko jarlekuan eseri nintzan, mai gañean aurrean neukan karpeta iriki nuan eta bereala joan zitzaizkidan begiak karpeta aren baruan idatzita zeuden izki, letra aietara. Itz auek ziran: «Eregutu zazu pekatari konbertitu onen alde. Au dek poza. Gora San Inazio. 1929'gn. urteko epailaren 16'a». Ora, bada, itz gutxitan eta garbi adierazia lur onetan ere Jainkoaren bidetan eta bizibide zintzoan ibiltzeak ekartzen duan egiazko zorion eta pake ezia, eta pekatuak ekartzen dituan ondoren beltz eta arantz miñak.

Ederki alderatzen, konparatzen ditu jakintsu batek munduaren, gizatzaren atsegiñak eta Jesukristo gure Jaunari jarraitzeak ekartzen dituan atsegiñak bi kopa auen gozamenakin. Kopa auek biak dute bakoitzak bere gozotasuna ta gañaztasuna. Biak ondo-ondoraño eran bear dira. Batek gozotasuna asieran du ta gañaztasuna azkenean, besteak, beriz, ostera, gañaztasuna asieran eta gozotasuna amaieran. Asieran gozotasuna duanak aurrenean txurikatzen du, liluratu ta zorarazten du eztiz kutsutua bait-dauka koparen ezpaña; baña ondoraño eratean barua guztiz gañaztu, engatu ta okitua uzten du. Asieran gañaztasuna duanak, beriz, aurr-

ena, abiera gaitz, gogor eta neketsu egiten du, baña auñera egin eta ondoraño eraten dijoan bezela bañu guztia gozatu ta ezitzen du, zerutar alaitasun eta gozamenaz betetzen du izate guztia.

Lenengoa munduko atsegiñen irudi bizia da, bigařena kristau bide zintzoan dabilenarena. Ta au baldin bada pekatuaren lur onetako emana, beltzagoa da askoz ere beste mundu ta bizitzan itxaron lezakena, askoz ere zoriontsuagoa dan bezela bizitza zintzoak kristoren jařaileai irixten dien zoriona.

Ořegatik bada, N. E. M. ¿nork naiko du asierako gozotasun apur ořegatik, geroko gařaztasuna ta betiko ondamena ekartzen duten atsegin eta bide maltzur oiek aukeratu? Eta au jakiñaz gañera bide gaizto oiek autatzen baditu ta bere urterik onenak, bere gaztetasun guztia ta auñerako urteak ere pekatuan igarotzen baditu, Kristo gure Jauna bere pekatuakaz gurutzean josi ta oñazerik miñen artean ileraziaz, onela bere bizia igarotzen badu, nola ausartuko da eriotzako orduan berari, ordurarte bere bizibidez bere etsaia bezela begiratu dionari, nola ausartuko da, diot, azkeneko arnasetan bere betiko adizkidetza, betiko zoriona eskatzen?

Ořegatik beti bildur aundia eman izan didate ořelako pekatarien eriotzak, ořelako pekatari itxuen azken orduko damutasunak.

Gu ez gaitezen egon N. E. M. gure buruak ondutzeko ta zintzotzezo azken ordura begira, orain da garaia, orain egin dezaiogun gure buruai gogor,

orain joan gaitezen bere sakramentuetara ta eleizkizunetara sañi, pekatuan erortzen bagera lenbait len beñiro jeikiaz, eta oñela bizi geraldarik eriotzako orduan Jesukristo gure Jaunak eta bere Aita Jainkoak gure akatsen kupida izango du ta gure etengabeko alegiñak saritu nairik bere laztan artean artuko gaitu, Kristo'ren Beñioneko itz eder aiek esanaz: Zorionekoak nigatik negar egin dezutenok, orain pozkidatuak, konsolatuak izango zerate-ta.

Ala izan bedi.

Pasko ondoko laugarren Igandea

Yon Don. XVI, 5-14.

Jesus'ek esan zien bere ikasleai: Bidali niñuan arengana banoa, ta ez dit zuetako iñork ere «Nora zoaz?» galde egiten. Baña zer auek esan dizkitzue-dalako zuen biotza goibelez bete da. Baña nik egi-egia dizuet: zuen ongarri da, onerako da Ni joatea. Ni joan ezik, bada, et-zaizute pozkidalea etorriko: joaten banaiz, beñiz, bera bidaliko dizuet. Eta etorri-takoan, Berak gizatza zuzenaraziko du oben eta au-zi ta epaiakiko. Oben, pekatuakiko, noski, neronen-gan sinistu ez dutelako, auziakiko, beñiz, aitaren-gana bait-noa ta auferatzean ez bait-nazute ikusiko: epaiakiko ere, lur onetako buruzagiarena epaitua dagolako. Oraindik esateko asko dauzkat zuentzat: baña orain ezin jaso, uler ditzakezute. Egiaren Es-piritu ura etortzen danean, ordean, egi guztia eraku-tsiko dizute. Ez du, bada, itzegingo bere buruz, ba-ña entzundako guztia esango du ta etorkizunen beñi ere emango dizute. Berak idargituko nau: neregan-dik artu ta beñi emango dizute-ta.

Gaurko Beñion Doneak asieran dionez Jesukristo gure Jaunak bere Aitagana zeruetara joan bear zuala bidaliai esan zienean, auek iluntasun eta goibelez bete ziran. Eta ez da aritzekoa. Beren burutan ezin barundatu, ezin somatu ere bait-zezaketen Espiritu Donea zer zan, beren irudimenak ezin irudi bait-zeza-kean Espiritu Donea zer izan zitekenik ere, ta Jesus berentzat guztia izanik, alegia, jakinduri, almen eta ontasun neurigabea zuana, min zitzaien Jesus berengandik aldentzea, zeruetara joatea, berak luñean bere aginduak betetzeko arazoazurtzirik.

Guri ere, N. E. M. beste orenbeste gertatu oi zai-
gu. Adizkide bat, gure eginkizunetan asko laguntzen diguna, urutian bizitzera joaten zaigunean eta bere laguntzik gabe gelditzen geranean, gure etxeko seme ala senar ala emazte maitea, onenean geure etxe-
ari eusteko eta etxeko arazo ta eginbearak bete ta bideratzeko geure iritxiz bear-bearekoa deguna il eta eriotzaz galtzen degunean, bakarrik eta beren lagun-
tzaren itxaropenik gabe gelditzen geranean, iluntasu-
na ta negara etortzen zaigu gure biotz-begitara ta naigabea nagusitzen da gure biotzetan.

Auxe gertatu zitzaien, bada, Jesukristo gure Jau-
nak zerura igo bear zuala esan zienean, bere Eleiza
Ama Donea lur guztian edatzeko asmo ta arazo artean zebiltzan bidaliai.

Orduan Jesukristo gure Jaunak bidalien mindura ta samintasun ura ikustean, beren biotz-barunetara poza ekañi nairik eta beren gain zetozkien lanetarako

arnastu ta berotu nairik, beren onari alaxe dagokiola adierazten die, bestela bera zeruetara igotzen ez bazan Espiritu Donea berengana etoriko et-zala-ta, bera igotzen zalarik, beriz, aien arazo ta eginbear guttitan lagundu ta indar emango zien Espiritu Donea berengana bidaliko ziela-ta.

Beda done agurgañiak, dio, Jesukristo gure Jaunak bere zeruetarako lgoera baño lenago Espiritu Donea bidaliengana ez bialtzea et-zuala egin ezin zualako, baizik bera luñean zegoala bidaldu ezkerro, ikasle ta bidaliak goietako zorion eta ondasunen egañiz, galez beren begiak zeruruntz ain gogoz jasoko et-zituelako. Eta au irixtearen guttien begien aurrean zerura igotzen da biotzak beraganuntz eramanez. Luñeko gauzen sofiltasun eta ditziramenak gure begiak lausotu ta gandotu egiten dituzte zeruko zorion eta ondasunak ongi ikusteko. *Fascinatio nugacitatis obscurat bonum*. Eta Jesukristo gure Jaunak luñeko ondasunen aize, zorabio auetatik begiak alderazteko ta bidaliak zeruetako ondasunetara zuti ta jasoerazteko bere lgokunde gurenaren ondorenerako uzten du Espiritu Donearen bialguntza.

Eta, ¿nor da Jesukristo gure Jaunak zeruetatik luñera bialdu bear zuan Espiritu Done au? Espiritu Donea, Irutasun guztiz Doneko irugañen notin edo persona da, Jainkoa, Aita ta Semea bezela. Eleiza Ama Doneak erakusten digu Espiritu Donea Aita ta Semea'gandik datoñela ta era onetan Semea'gandik artzen dualarik berak daukan guztia, berak irargitu ta adierazten digu beraren argitasun eta jakinduri guz-

tia: Oregatik dio, bada, Jesukristo gure Jaunak gaurko Beñonean, ez duala esango bere buruz entzun duan ura besterik, Aita ta Semea'gandik orniturik, jainkozko jakinduriaz betitandik dakiana besterik, alegia.

Beti-betitandik Aita ta Semea alkar ezagutzen dira eta bere edertasun oso ta azkengabeari begira daude. Aitagandik Semeagana ezaguerazko argitasun bat dijoa ta erabat Semeagandik Aitagana ezaguerazko biozkada osteratzen da ta alkañen ezaguera onetatik alkañen maitasun azkengabe bat eratzen da. Aita ta Seme artean alkar ezagutuaz ta alkar kidetuaz sortzen dan maitasunezko galartsua, kibixta, lotura ain aundia, ain indartsua, bañukoa, betikoa ta berezkoa izanik betitandik jainkozko notin, persona bat eratzen du ta au da Espiritu Donea, Irutasun guztiz Doneko irugañen notiña.

Espiritu Done Jaingo onek, bada, dio Jesukristo gure Jaunak gaurko Beñonean, bidaliakana luñera etortzen danean, gizatzari adieraziko dizkio, agerian jañiko dizkio bere pekatua, zuzentasun eta epaia. Pekatua: nigan ez dutelako sinistu. Zuzentasuna: ni Aitagana joan eta geiago ikusiko ez nauzutelako. Epaia: luñalde onetako buruzagia epaitua dagolako.

Espiritu Donea, beraz, gizadiaren burua argitzera zetoñen, Kristo'ren sinismena bere biotzean itsastera, bere okeñak eta bide nastuak salatuz bere begien aũean jartzera, Jesukristo gure Jaunaren itzak beteaz bide beñiak irikitzeke. Oregatik Espiritu Donearen lenengo eginkizuna bidalien buruak jakinduriz argitu ta beren biotzak sinismenean irazekitzea izan

zan, eta oñela len gizon gizajo-ezjakin batzuek ziranak, Jesukristo gure Jaunari iru urtean ezer ulertu ezin izan zioten buru motzeko aiek jakintsu sakon, iztun arigari ta izkuntza guztitan itzegiten zekiten etoñi aundiko izlari biurturik gelditu ziran. Eta nasturik eta bide jakiñik gabe zebilen gizatzak bidaliak azaltzen zituzten egi sakonen argitasunez kuturturik (convencer), berak dizdiratzen zuten donetasun eta zuzentasunaz txunditurik eta berak egiten zituzten mirari aunditan Jainkoaren eskua ta almena ikusirik Kristo'ren jainkotasuna ezagutu ta sinistu zuten, eta Eleiza beñira, Kristo gure Jaunaren artalde donera bildu ziran, oñela beren pekatuak eta sinisgabetasuna ausirik.

Berak azalduko dio baitere gizatzari zuzentasuna: Ni Aitangana joan eta geiago ikusiko ez nauzutelako. Espiritu Doneak kuturtuko ditu, ezagueraziko die gaizkile bat bezela il zutena, gizon zintzo, erugabe ta donea zala. *Quia vado ad Patrem*. Ikusiko nauzute, bada, nere Aitarengana nuala ta nere Aitak zeruetan artu ta goi-goratuko naula ta bidaliak bareatuko dezute Espiritu Donearen bidez nere erugabetasun, donetasun eta goratasun au nere agindu ta erakutsiak lur guztian zabalduaz eta bere izenean mirari aundiak egiñaz. Oregatik, bada, gaur egunean Kristo'ren itz auek beteak ikusirik esan dezakegu: *Christus vivit Christus vincit, Christus imperat*, Kristo gure Jauna bizi da bere Eleiza Donean eta Eleiza onen semeen artean; Kristo'k garaitzen du ainbeste mila ta mila gizonen biotz, buru ta adimenak zuzenduaz eta Kristo gure Jaunak agintzen du lurbiraren bareneraño zabal-

dua dagoan bere Eleiza Donearen ainbeste miloika semetan.

Berak (Espiritu Doneak) adieraziko dio azkenez gizatzari epaia, lur onetako buruzagiarena epaitua dago-ta.

Jesukristo gure Jauna etoñi baño len etsaia gizatzen nagusi bezela zegoan, gizadi guztia bere mendean zegoan eta lotura gogoréz bereganatua zeukan. Griña gaizto guztiak nagusitu zirala zirudian, loikeria Jainko bezela zeukaten, goñotoa ta aiertza (bengantza) birtute ta onbideak bezela ziran, jainko izunen (faltsoen) aldaretan mirabe ta moñoi diruz erosien odola eskeintzen zuten, baña ainbeste oitura galdu, griña txar eta lasaikerien artean et-zan arkitzen luñean zorionik; goñotoa ta alkañentzako guda bizia ikusten zan alde guztitan eta gizona aspertu, gogaitu akitu ta engatu zan ainbeste gaiztakeriz, bere biotza egiaz ase zezakean pake ta zorionik ezin sortu ta arkiturik. Espiritu Doneak, ordea, luñera etoñi zanean, kemendu, indartu zituan Jesukristo gure Jaunaren erakutsiak eta lurbira guztian zabaldu zituan bidalien bidez, eta onela epaitua ta ausia gelditu zan etsai-belitzaren nagusitasuna. Nork bere buruari nagusitasunez gogor egiñik griña gaiztoak ezi ta bideratzea, garbitasuna, alkartasuna, lagun-urkoaren maitasuna, gaizkileari barkatzea eta beste onelako erakutsi, garai artarako beñiak ziranak, indartu ta sendotu zituan Espiritu Doneak eta oñela luñak arpegi beñi bat artu zuan, bizitza beñi bat zirudian eta gizadi nekatuak arkitu zuan bere biotza egiaz ase ta betetzen zuan pake ta zorion bidea.

Gaurko Beñona Kristo gure Jaunaren itz auekaz amaitzen da: Berak (Espiritu Doneak) goretsiko nau, Nigandik artutakoa adieraziko bait-dizute. Eta Jesus' ek Beñonean aurrealde esan bezela lurbira guztian goretsia gelditu zan. Bidaliak bere erakutsiak bañeatuaz eta bere izenean egiten zituzten mirarien bidez bere jainkotasuna ezaguarazi ta aitortu zuten: Kristo' ren agintza zabaldu zan lurbira guztian, bere Eleiza erotu zan alde guztian, beraren semeak Kristo' ren donetasun neurigabea aitortu zuten bere agintzapean jañirik; eta azkenez etsai-beltza azpiratua ta ausia gelditu zan, bere ilunpe beltzak ayenatu ta egiazko pake, poz, alaitasun eta zoriona Kristo' ren oitura onakin batean sorturik. Eta orela lurbira guztiak, gizadi guztiak ao batez, oyu batez, biotz batez omendu ta goretsi zuan berak aurrealde Beñonean esan bezela.

Guk ere Eleizaren seme leyalak bezela aitor dezagun orain eta beti Kristo' ren jainkotasuna ta gure zuzendari, gure argile, gure aitzindari dala; *Christum Regem adoremus dominantem gentibus*, Kristo Errege gurtu ta goretsi dezagun gizadi guztiaren Jaun eta Jabe, era onetan azkeneko egunean ez gaitezzen izan epaituak etsai-beltza bezela, baizikan bere eskubiko seme bedeinkatuen artean betiko zorionerako deituak, aitortuak eta autetsiak izan gaitezzen.

Ala izan bedi.

Pasko ondoko boskañen Igandea

Yon Don. XVI, 23-29.

Jesus'ek ikasleai onela itzegin zien: Egi-egitan dizuet: Nere izenean zerbait nere aitari eskatzen badiozute, emango dizute. Oraindaño ez dezute ezer nere izenean eskatu, eskazute, ta artuko dezute, zuen poza betea izan dedin. Zer auek gerturitan (parabolatan) esan izan dizkitzuet. Garaia badator, geiago gerturitan jardungo ez natzaizuen, ta Aita rekiko argi itzegingo dizuedana. Egun artan nere izenean eskatuko dezute: ta ez dasatzuek Aitari zuen alde otoi egingo diodanik. Aitak berberak, bada, maite zaituzte, zuek maite izan nauzutelako ta Jainkoagandik natoñela sinistu dezutelako. Aitarengandik irten nintzan eta Aitarengana noa. Bere ikasleak diote: Oña, orain garbi mintzo zera ta ez diozu batere gerturirik. Orain igartzen diogu dana dakizula ta iñoren galdera bearik ez dezula: onetatik ezagutzen degu, Jainkoagandik zatozela.

Gaurko Beñion Donea, N. E. M., itz auekaz asten da: Egi-egitan dizuet: Nere izenean zerbait nere Aitari eskatzen badiozute, emango dizute. Jesukristo gure Jaunak bere eriotz aurreko azken-aparian bidali-
liai agur egitean aginpidez eta aundikiro esandako itz auek, zin-itz edo juramentu bat daukate, Jainkoak bakarrik egin lezaken zin-itz eta agindu bat. Baña zin-itz eta agindu au ez dagi Jesukristo gure Jaunak bidalientzat bakarrik, bere itza erialde ta gizaldi guzitarako da, bere izen donea edatuko dan leku une guztitarako.

Gizonak bere buruaren lenen sorpenari begiratu ezkerro, goietako Aitari otoitz egitea nai ta naiezkoa duala ateratzen du ta bere buruz ta iñoren laguntzaz ere bere uts eta bear asko ezin osatu dituala ikusirik, Jainkoagana laguntza eske zuzentzen da. Jainkoak, neurigabe jakintsu ta maitakoña izanik egoki bideak eratu zituan: gizona, ezean eta beartasunean sorturik, bere babes eta ardurapean jañi zuan. Jainko gure Jaunak gizonarekin, aita bere semeakin bezela da: semeak berenik ez dute ezer; baña semeak dira ta ore-gatik aitaren ondasun guziak beren utsune ta beartasunak estaltzeko dira; aitari eskatu besterik ez daukate ta onek beren iraupen, gozamen eta erosotasunerako ere bear dutenez osatu ta ornitzen ditu. Auxe dagi Jainko gure Jaunak ere gizonarekin eta bere eza Jainkoaganuntz bere biotza jaso ta berarekin alkartasuna ta maitasuna sortu ta ernetzeko izaten da ta erabat bere onoimen, onbideak suspertzeko. Esker amaigabeak eman bearik gaude, beraz, guretzat ain onuragaría, etekingaría dan otoitza egin bear bat bezela

jañi zigulako, ta oraindik ere Beñion Donean bera egitera dei egiten digulako itz auekaz: Nere izenean zer bait nere Aitari eskatzen badiozute emango dizute.

Eta, ¿zer da bere izenean, Jesukristo gure Jaunaren izenean eskatzea? Jesukristo gure Jaun berberaren bitartetasunez eskatzea da. Guk gerenez pekatari goñotagañiak gera; beraz Jainkoaren entzungañi izatera eldutzeko Jesukristo'ren bitartetasuna bear degu. Ezin dizaioke izan Jainkoari ezer gurerik gogo beteko, bere seme Jainkoaren bitartez eskeñia besterik. Gure otoitzak, ordea, bere bitartez eskeñirik, jainkozkoak bezela egiten dira. Ez digu, beraz, orduan Jainkoak ain zuzen geroni entzuten, baizik guretzat, gure alde eskatzen dion bere Seme Jainko Jesukristo'ri entzuten dio.

¿Ez aldegu ikusten gizonak beren lan bat, irabazi, asmo, gogaidi bat auñera eraman nai dutenean zenbateko arduraz, ganoraz leiatzen diran bitartekoak, artezkari almentsuak bilatzen, beren alegin ura jakinduriz bideratu dezaten, eta tarteko eragozpen guztiak alboratu ondoren aitzindariak, buruak beren eskari ura añetaz eta begi onez artu, zuzenetsi ta ontzat eman dezaten? Auxen esaten digu, bada, itz oietan kristau guztiai, gure buru dan Jesus'en izenean, bitartez Aita Jainkoagana gure otoitz, añen eta eskari guztiak zuzendu ditzagula esatean. Alaxe egin oi zuten antziñan Lege Zañeko Idazti donean irakurtzen degunez, Abraham, Isaak eta Dabid aitzindarien izenean Jainkoari otoitz egiñaz. Eta aien izenean, aien bitartetasunez Jainko gure Jaunak laguntz eta eskualdi

ain aundiak ematen bazizkien, zenbat areago ez dizkigu Jesukristo gure Jaunak iritxiko, jainkotasun eta maitasunean Aita Betikoaren berdiña izan eta gizatasunean bere odol orogañiaren amaigabeko irabaziak aurkezten badizkio. Onegatikantxe Eleiza Ama Doneak ere Kristo gure Jaunaren itzari jaraituaz eta kristauai ikasbide bizia emanaz, otoitz eta eskari guztiak Aita Jainkoari bere Seme Jesukristoren bitartez egiten dizkio, esanaz: *Per Dominum nostrum Jesum Christum.*

Jesus'en izenean otoitz egitea, ordea, ez da bakarrik bere izena aitatzeta, baizik gogoz eta biotzez berari deitzea, ta jakiña da ez diogula berari deitu bear, ez ematea dagokion ezertarako. ¿Nola itxaro dezakegu, bada, bere laguntza bere gogoaren aurka dan zerbaitean? ¿Gure buruan sartu ote liteke berak Aita Betikoari aurkeztu lezaiokenik, gaitzez eta griña txarrez joa dagoan eskaririk? Ez, bere izen donea orrelako eskariai egotzitzea alper-alperik izango litzake. Auxen adierazi nai izan zien Jesukristo gure Jaunak bidaliai, Gregorio done Aundiak dionez, itz auek esan zizkie-enean: *Usque modo non petistis quidquam in nomine meo.* Oraindaño ez dezute ezer nere izenean eskatu; alegia, oraindaño oso betik begiratu didazute, ez dezute itxaro izan eta eskatu ere neregandik betiko bizitzarako on eta lagungari dan ezertxo ere. ¡Ain uste ta irudipen txiki, lau ta soila daukazute zuen buruetan nerekiko!

¿Zer eskatu zion Pedro bidali doneak Tabor mendian beren aurrean irudiberitu zanean? Gozamen

atsegingarri arentxen iraupena besterik ez. ¿Zer eskatu zioten Zebedeo'ren seme bidaliak beste garai batean? Luñeko ondasun soil-soilak: bere erainuko bi lenenburu izendatu zitzala. Ez bait-zuten uste beren irudimenean, Jesukristo gure Jauna gizartera luñeko aginpidea besterik ezartzera etorri zanik. Et-ziran entzunak eta erantzunak izan beren eskabideak Jesukristo gure Jaunagandik, beraren ekin guztia, bere lan, neke ta otoitzen bidez gizadia donetu ta zerura bidean jartzea izan bait-zan. Bidegabe eskatzen da, beraz, Jesus'en izenean, gaizkapena, salbazioa eragozten duan guztia; Jesus'en izenean bear bezela eskaria egiteko, oroz gain betiko bizitza bidez zuzendua izan bear dualako.

Otoitzaren indarrik eza, beraz, bide bitatik etorri diteke: lenengo, otoitzeko eskaera, guk bestera uste izan arien, gure animaren donetasunerako kaltegarri izatetik. Onelakoan Jainko gure Jaunak jakiñik guk baño obeto gure onerako ala kalterako dan eskari ura, ez entzun egiten digu ta ez digu irixten gure eskaria, ez noski maite ez gaitualako, baizik bertatik gure egizko kaltea datorrela ikusten dualako. ¿Gaizki dagiala esango algenuke aita batek bere semetxoari ukatzen diolako, berak ain gartsuki eskatzen dion eden eriozkor bat? ¿Aitari egotziko aldiogu erua, bere semetxoari jolaserako aizto zoñotza ala pistola balaz ornitua eman nai ez diolako? Ez noski, N. E. M., ezin oregatik esango degu aitak bere semeaganako maitasunik ez duala, bere eskabide jatorrak ukatzen dizkiolako; ain zuzen gertakizun onetan bere semetxoaren eskuetan eden eta pistola jartzea izango litzake

bildurgaia ta biozgabeko gurasoaren agerkaia. Auxeda, bada, Jainko gure Jaunak ere gurekin egiten duana, guk geure onerako ustez eskatzen dizkiogun eskabide batzuetan.

Otoitzaren indarrik eza, bigarenez, luñeko ondasunak soil-soilik eskatzetik dator. Orixe bakarrik eskatzen dute askok beren otoitzetan. Badirudi Jainko gure Jaunak gure soin eta gorputzeko ardura besterik ez dula euki bear. Zerutar ondasunen beñi ez dira gogoratu ere egiten, eta era onetako otoitza ezin ditteke Jainkoaren begietan eder izan eta ain gutxi berari indar egin esker bereziak irixteko. Ez degu emen esan nai luñeko ondasunak eskatu bear ez diranik, baizikan berak eskatzean gure onik nagusienera zuzenduaz, gure animaren betiko gaizkapena, salbazioa gogoan degula zuzendu bear ditugula. Jesukristo gure Jauna gure gaizkatzalea, salbatzalea da, gu gaizkatzera, salbatzera jetxi zan luñera ta arazo oñetan igaro zuan bere bizi guztia; beraz alpeñik da gure gaizkakundea, salbazioa baztar utzi ta bera eragotzi dizaiguketen luñeko ondasunak eskatzea, ezin Jaunak gogoz entzun dezake onelako otoitza bere izan eta egin guztiaren aurka dijoa-ta.

Kristau bakoitzak bakarrik egiten duan otoitz onez gañera, bada beste otoitz bat Jesukristo gure Jaunaren eskeintz eta berarizko aginduak dituna, ta otoitz au agerian egiten dan otoitza da, kristauak alkarturik, kristauak batzarturik egiten duten otoitza da. Jesukristo gure Jaunak onela dio: Zuetako bi alkartzen bazerate otoitzez eskatzeko, iritxiko dezute Aita Jainkoa-

gandik eskatzen dezutena. Jesukristo gure Jaunaren itz auek ziztagaŕi izan bear zaizkigu, beraz, beaŕetan arkitzen geranontzat, Jainkoagandik bere eskaerak eŕezago irixteko eleizara otoitz egitera etoŕi gaitezen. Eleiza Jainkoaren etxea da, otoietxea, Jainkoaren eŕukizko laguntzak berariz zabaltzen diran leku donea; emen kristauak alkaturik apaiza buru dutela Jainkoari otoitz egiten diote, ta oŕegatik, Jesukristo gure Jaunaren itzak utzeman ezin dezaketelako, kristauen otoitzak emen indar geiago dute, egindako eskaerak Jainkoagandik irixteko.

Onez gañera badira kristau bakoitzaren eta etxe bakoitzaren beaŕak ez ezik, eŕi ta aberi osoen beaŕak ere; bear auek dira adibidez esateko: batzutan eŕiaren osasuna, aberiaren pakea, landetako uzta, zugazfitako igalien etorkizuna ta beste onelako bear, opa ta naierak: eta oŕegatik guztiai dagozkienak diralako ta guzfientzako ardura aundia dutelako, otoitza ta eskaera ere guztiena, alkaturik eta batzaŕean Jainkoari egiña izan bear du. Oŕegatik dauzka aginduta ain zuzen Eleiza Ama Doneak beste ageriko otoitzen artean, Igokunde jai egunaren auŕetik egiten diran iru eguneko eŕogatibak, otoitzaldiak.

Eleiza Donean eŕogatiba auek egiteko oitura antziña-antziñakoa da; kristauak Eŕoma'ko buruzagia zan Kostantino aundiaren mendean azkatasuna iritxi zuten bezin laister asi ziran aŕen-aldiak egiten, Jainkoagandik beren bear aunditarako laguntza irixteaŕen. Otoitzaldi auek, ordea, egiteko et-zegoan egun jakiñik. Onetan lareun eta irorogeta amargaŕen ur-

tean, Viene zeritzaion Prantzi'ko eñi batean Pasko aurreko egunean su aundi bat asi ta eñi guztia kixkaltzera zetoñela zirudian; eñi artako gotzai Mamerto Donea zeritzaiona, otoitz egiten jañi zan eleiz gureneko aldare nagusi aurrean eta Jaunari eskeintz egin zion sute aundi ura itzaltzen bazuan bere eleizadi guztian ageriko erogatibak egitea aginduko zuala. Gozai Doneak otoitz egin da bereala, su aundi ura ematen, indarñá galtzen asi ta laister itzaldu zan, eta Mamerto Doneak bere eskeintz ura beterik Igokunde aurreko iru egunetan ageriko otoitz aldiak egiteko agindu zuan, Jainkoari berarizko laguntza uragatik eskerñak emanaz.

Andik eun urtera, Italian ezbear eta ondamen ikaragarñiak izan ziran, batez ere izurñite izugarñi batek egundoko eriotz aldi asko egin zituan Erroma'ko eñian. Aita Santuaren biotza gertari onegaz erukiturik, bigundurik erogatibak egitea agindu zuan eta berak egin zuan onetarako Done guztien letania, gaur egunean ere oyuztatzen dana, ta erogatiba auek egiñakin batean izurñia baretzen asi zan eta bereala zearo ayenatu zan.

Prantzian eta Italian gertatu zanakin eñi guztitan sartzen asi zan erogatibak egiteko oitura, Done guztien letaniak abestuaz, bañña Eleizak et-zuan artean egitera beartzen. Azkenez irugarñen Leon'ek, zortzigarñen gizaldiaren azken aldean, gogoan eukirik udaberñiko garai onetan luñeko emaitzak ezbear askoren elorñioan arkitzen dirala, Gregorio done Aita Santuak artarako egin zituan done guztien letaniak abesturik

Eleiza guztian Igokunde aurreko iru egunetan erogatibak egiteko agindua eman zuan.

Beraz erogatibak ageriko otoitzaldiak dira, Eleiza Ama Doneak egiteko aginduta dauzkanak Jainko gure Jaunagandik, Jesukristo'ren irabazien bidez eta Andre Maria'ren, Aingeruen eta Doneen bitartekotasunarekin erien zerutar laguntza ta lurreko ondasunak ezberrik gabe azi, eldu ta irixteko.

Alegindu zaitzte, bada, al dezuten guztiok egun oietan otoitz eder oiek egitera etortzen, atozte guztiok alkarturik zuen etxeko beaerarako laguntza eskatzera, atozte emaitz eta uzta ona ta ugaria Jaunari eskatu ta bere esku ongileari eskerak ematera, era onetan berak zuen etxe, sail eta ondasunak bedeinkatu ditzan eta ondasun oiek bear dan era eta neurian erabilirik betiko bizitza iritxi dezagun.

Ala izan bedi.

Igokundearen zortziurénpeko Igandea

Yon Don. XV, 26-27, XVI, 1.

Jesus'ek esan zien bere ikasleai: Nik Aitagandik bidaliko dizuedan Pozkilea, Aitaren jatoritiko egiaren Espiritua, etortzen danean, berak egingo dizute nere aitorera; ta zuek ere nere aitorpena egingo dezute, asieratik nerekin bait-zaudete. Auek esan dizkitzuet gaizpideratu (eskandalizatu) et-zaitetzen. Sinagogetan sañera ukatuko zaizute: eta zuek iltzen zaituzten orok, Jainkoari adiguria egin diotela uste izango duten garaia badator. Ta auek egingo dizkitzute, ez Aita ta ez Ni ezagutu ez giñuzelako. Zer auek esan dizkitzutet, ordea, beren garaiburuan oroi zaitetzen, aspaldi esan nizekizuela.

Jesukristo gure Jaunaren Igokundetik Espiritu Donearen etoñera arteko egun auek erabat ilunak eta alaiak, naigabez eta pozez nastuak izan ziran, Eleiza

osatzen zuten bidali ta Kristoren jaíaileentzat. Ilunak eta samiñak izan ziran egun auek, Jesukristo Gure Jauna bere piztuera zoriontsua ondoren ainbeste aldiz bere bidali ta jaíaileai azaldu ta Eleizaren bideak erakusten iraun ondoren, auei azkenaguía egin eta beren begien aúean zeruetara igo zalako azken auzi-eguna arte ez geiago ikusteko; egun alai ta pozgaíak izan ziran beste aldetik egun auek, Jesukristo gure Jaunak zerurako agurtzean agindu zien Espiritu Done Pozkílearen zai-zai zeudelako; egun ilunak, Jesukristo gure Jauna gabe etsaien artean zurtzik gelditu ziralako. Egun pozgaíak Jesukristo gure Jaunak agindutako Espiritu Donea, Eleizaren kantu eder batean, *Pater pauperum*, beartsuen Aita ornitua deitzen zaiona, laister etortzekoa zalako.

Jesukristo gure Jaunak zerura igotze aúean bi izen eman zizkion berak bialdu bear zuak Espiritu Doneari: Espiritu Pozkílea ta Egiaren Espiritua, ta bi itz auetan laburki azaldu zigun Espiritu Doneak bidalietan eta auen bidez gizadi guztian egitera zetoíren egin-kizun nagusia.

Espiritu Done Pozkíleak pozkidatu egin bear zituán bidalien biotz eroriak, arnas beía ekaí bear zuan bidalien gogo ta baíu aul eta erkinduetara, Jesukristo gure Jauna bere Aita Befikoaren eskubi aldetik zegoala berai zeruruntz deika ta oíretarako goi-esker, argi ta laguntzak berakana ixuriaz zegoala, adierazi bear zien. Eleiza gizadi guztian zabal zezaten Jesukristo gure Jaunak eman zien al eta agintzak berekin zekarz- kian lan, neke ta arazo aundiak, ta Espiritu Doneak

aian artean iraun bear zuan beren buruak argitzen, bere laguntzaz pozkidatzen, bere indaraz eusten eta zeruko emaiatz, doaiatz berotu, gartu ta gogoberitzen.

Eginkizun auxe betetzen du gaur egunean ere Espiritu Doneak kristau zintzo ta zuzenen biotzetan, Espiritu Donearen argitasun zerutaraz orniturik dauden animetan. Beren ilunaldi, neke, oztasun, zailtasun eta bide latzetan berak ikutzen ditu beren biotzak zeruko argi ta kemenaz eta Jesukristo gure Jaunak bere Aita Betikoaren eskubitan dagoala gogoratziaz eta beren neke ta zailtasun auen ordezt, beren sari ta zoriona gertutzen ari dala adieratziaz beren nekeak biguntzen dira, bideak leguntzen dira ta zailtasunak ezezten dira era onetan beren biotzak pozkidatuaz eta beren gogoak Kristo gure Jaunaren bidetan jaraitzeko susper-tu, kilimatu ta berizkatuaz.

Jesukristo gure Jaunak deitzen dio baita ere Egia-ren Espiritua, bera egi guztien buru ta argile izanaz gañera, berak ezañi bear zualako bidalien biotzetan Eleizaren egiak zabaltzeko kemena. Eta oñela Espiritu Donea bidaliakana etoñi zanean beren buruak zerutar egiaz bete ta argitu ez ezik, egi aiek lur guztian zabaltzeko indar eta ausartasunezt ornitu zituan eta azkenezt beren itzaldi ta egiñalak arigaritzko garaipenez burutu zituan gizatalde ugariak Kristo gure Jaunaren sinismenera erakariaz. Bera da oraindik ere gaur egunean egiaren Espiritua; ta oñela Eleizaren asieran bidalien buruak argitzen zituan bezela, orain Aita Santuaren burua argitzen du, utsegin ez dezan eta okerik esan ez dezan Eleizaren egi bat sinisme-

neko egia dala erabakiaz gizadi guztiari aitortzen dionean. Eta onegatik Aita Santuak Espiritu Donearen argitasun eta laguntza eukirik, Espiritu Doneak Jainkoa danez ezin gezurik eta okerik esan dezakelako, Aita Santuak ere gizadi guztiari sinismeneko egiak aitortu ta erabakitzean ezin utzik eta okerik esan dezake, ta orela alper goñian ibili izan dira Eleizaren etsairik purukatuenak aureneco Aita Santu Pedro doneagandik gaur arterañoko Aita Santuen agiri guztiak arakatu ta aztañikatzan, ez dute, bada, gezur baten susterik, oker baten ilintzirik arkitu al izan eta ez dute arkituko ere egingo gizaldi guztien amaira arte.

Jesukristo gure Jaunak, gaurko Beñionari jañaituaz dio: «Aitarengandik sortzez datoñen Egiaren Espiritua Aitagandik bialtzen dizuedanean berak nere aitoñera emango dizute. Et-zegoan noski, Espiritu Donearen aitoñera beñik Jesukristo gure Jaunaren jainkotasuna garbi ezagutzeko. Argi asko azaldu ta sendotu zuten gizaldi askoz aurretik igarleak, bere etoñera, bere eginkizunak, bereiztasunak eta nortasuna guztien agirian eta begitan jañiaz. Alaxe agertzen digute Jesukristo gure Jaunari dagozkion Oseas igarlearen itz auek: *Ego in manibus profetarum assimilatus sum*. Ni igarleen eskuetan argaztua, irudikatua izan naiz. Argi asko azaldu zigun baita ere Jesukristo gure Jaunak bere bizitzako lanbide ta mirari añigariñen bidez, berakatik, gaiztakeriz itxuturik egon ezik, bere jainkotasuna aitortzera beartuak egonik, Yon donearen bidez Jesukristo gure Jaunak itz auetan dion bezela: *Si opera non fecissem in eis,*

quæ nemo alius fecit, peccatum non haberent nunc autem excusationem non habent de peccato suo. Beste inork egin ez dituan eginkizun eta mirari arigar-
iak egin ez banitu, et-zuten erurik izango, orain, or-
dea, ez daukate aitzakirik, xuribiderik pekatu egin
gabe nere jainkotasuna ukatzeko.

Jesukristo gure Jaunak, ordea, argibide bi auei iru-
gañen argibide nagusi bat geitu nai izan zien era one-
tan bere etsaiak ertenbide, marafil eta ukabiderik izan
et-zezaten eta au Espiritu Donearen aitorera izan zan,
eta berak zerurako igoeran agindu bezela bederatzi-
gañen egunean jetxi zan luñera, ta suzko mingañen
irudiz ezañi zan bidali ta ikasleengan eta beren buru
ergel eta ezjakiñak jakinduriz bete zituan eta beren
biotz koldar eta bildurkoiak ausartasun, kemen eta
berotasunez ornitu zituan, etxe barundik berealako
batean ateraziaz Kristo'ren bizitza ta erakutsiak giza-
di guztian edatu ta bareatzera.

Espiritu Donearen aitorera au gertatu bezin lais-
ter bete ziran, gaurko Berionean Jesukristo gure Jau-
nak bidaliai zuzentzen dizkien itz auek ere: eta zuek
ere nere aitorera egingo dezute asiera-asieratik nere-
kin bait-zaudete. Eta egiaz bidaliak Jesukristo gure
Jaunarekin ageriko bizitzaren asieratik ibiltze arek
indar aundia zemaion beren aitorerari. Mirari edo
egite arigarri bat edo beste ikusi zuten gizonak izan
balira, maula zorotzen batez gezurpean atxituak izan
zirala uste zitekean, baña Jesukristo gure Jaunak
iru urtean beren aurean egindako mirari sail oparo ura,
batere aukera ta gertumenik gabe ta aurea zetorz-

kionez, edozein gizatalderen aurrean egitea, ori ezin zitekean jaungoikozko almenez izan ezik. Oregatik dio, bada, Espiritu Donearen aitorea ondoren eta berak emango zien bultzada bidez bidaliak ere garrantzi ain aundiko beren aitortpena egingo zutela. Eta alaxe egin ere egin zuten.

Espiritu Donea bidali ta ikasleengana etorri zan egunean, Pedro bidaliak Jesukristo gure Jaunaren erailtzaleen artean Jesukristoren jainkotasuna aitortu ta beraganako sinismen eta maitasun ilezkoa baieatu zuan. Ez dauka gogoan Jesukristoren jainkotasuna ezaguerazi ta maitaerazitzea besterik; ez dio begiratzen beren irabazi, erosotasun eta bizitza berari ere ta beren jaioterri ta aberria ere utzita landerria iradijoaz Jesukristo gure Jaunaren ezaguera ta maitasuna edatu, baieatu ta zabaltzera. Onetan ekiten diote, onetan leiatzen dira ta jaraitzen dute beren odolaz luia goritu ta martirio bidez Jesukristo'ganako beren sinismen eta maitasuna ikurtu ta izenpetu arte. Ongi bete zuten, bada, gañezka bete zuten Jesukristo gure Jaunaren iragarkizun arigari ura. *Et vos testimonium perhibebitis de me.* Eta zuek ere nere aitorea egingo dezute.

Hæc locutus sum vobis, jaraitzen du Berion Doneak, *ut non scandalizemini.* Zer auek adierazi nai izan dizkitzutet ikaratu et-zaitzeten. Esan balie bezela. Espiritu Doneak zuei egingo dizuten aitorerak eta zuek gizadiaren aurrean egingo dezutenak, eragozpen eta gogorkeriak jeikiaraziko ditu, baña leenik, aurrealdez gogorazten dizuet, gertatzen diranean ikaratu et-

zaitezten eta zuen aurka sortu ta jeikiko diran guda bizi auek ustekabeen atxitu et-zaitzazten.

Esan bazien esan zien. Bai zuzen bete ere. Kristo' ren erakutsi ain egoki ta bidezko aiek gure adimenak argitu, kuturtu ta biotzak irabazteko izan a'ren; Kristo gure Jaunak bere mirari ta egitura onez e'riai ainbeste alderdi ta on eka'ri a'ren, Eleizari asieratik etsai ikaragar'iak sortu zitzaizkion eta gaur egunetara'ño eten-gabeko setarik anke'renaz esetsi diote. *Absque sinagogis facient vos; sed venit hora...* Sinagogatik aterra ta bertarako sa'era eragotzi ta ukatuko ditzuete.

Sinagoga Judear e'ri guztietan zegoan batzarategia zan. Bertako batza'retan legea ta igarleen esanak irakurtzen ziran, eta gero buruzagiak agintzen zionak lege ta igarkizun aien azalpena egiten zuan. Batzar-tegi onetan oratzen, opilatzen zan judear e'riaren bizikera. Ango erakutsitatik o'ña artzen zuten sinismenak, oiturak eta e'riaren bizitza bideak. Et-zan judear batentzat ezer sami'ñagorik bertarako sarbidea eragotzi ta ukatzea ba'ño. O'regatik e'riburu, eskriba ta zurikariak (fariseoak) beti nagusi ta aginpidetan zebiltzanak go'rotorik beltzenaz ernamindu ziran bidalien aier, aurka, Kristo' ren erakutsi ta legea azaltzen eta e'riari ba'reatzen asi ziranean, eta Kristo gure Jaunak aue-aldez esan bezela batzar-tegi auetara, sinagogara sartzea eragotzi zien egiaren bidea iriki et-zedin, egi utsutsa nagusitu et-zedin. *Sed venit hora, ut omnis qui interficit vos, arbitretur obsequium se prestare Deo.* Eta beren itxumena ainbestera'ño elduko da, zuek ilaz, zuei eriotza emanaz Jainkoaren alde on bat egiten dutela uste izatera'ño.

Zer egi aundi ta erakuspen bikaña, N. E. M. Auxen da Eleizak, bere apaizak eta Kristau zintzoak arkitu izan duten etsaitasun eta eragozpenik zitalbiozgabeena. Eleizaren egiak erakustean, bide zintzoak eta garbiak aurera eramatean, gizarteko esku-bideak bere tokian jartzean ilenti goriaz ere balitu bezela sumindu ta kizkaltzen jartzen dira makurkeriz eta bide itsusiz dabiltzanak, eta andik aurera ez dira baretzen egiaren argile, zintzotasunaren babesle dan ura laidoz, isekaz, itsusikeriz estali ta al badute oñazpiratu arte. Azpiko biderik galgari ta aitor eziñenak onak dira aientzak egiaren argia dan ura erditik kentzeko izan ezkerro ta bere etsai itxu ta purukatuak guzitara jotzen dute biotzean kezkarik gabe ta askotan tarteko aitzaki ta maratilak asmatu ta aurean jariaz, Eleiza Ama Doneari ta Jainkoari on egiten dien arpegiz, sakonean beren seta, berekoikeri, azpikeri ta bide nastuak aldezteko, gerizteko soil-soilik izan aren. Onela, bada, Eleiza Ama Donea ta Jainkoa aldezten dituzte azalez; muñez eta mamiz Eleiza Ama Donearen eta Jainkoaren lege ta bideak oñazpiratu egiten badituzte ere.

Et hæc facient vobis, quia non noverunt Patrem neque me. Eta auek egingo dizkitzute nere Aitaren eta Neronen ezaguerarik ez dutelako. Jainkoaren eta Jesukristo gure Jaunaren barungo ezaguera euki ezkerro bere argitasunak zuzentzen ditu gure egintza guztiak eta okeerako esia ta gaiztakerirako itxitura, langa berak ipintzen du; baña Jainkoaren ezaguera mamirik, sakonik ez dutenak, Jainkoaren lege ta bideak

baño lenagotzat daukate berenkoikeria, ta itxumen, lera onetan, beren burubideari eragozpen zaion guztia aurretik kendu ta auts egiteko, edozein bide nabar ta zitalkeri ontzat ematen dituzte. Onegatik amaitzen du Jesukristo gure Jaunak bere gaurko Beñona itz auekin: Baña esan dizkitzuet ezer auek, garaia eldu-tzean gogora itzazuten, lendik esan nizkitzutela.

Itz egoki, zur eta arnas emaleak, N. M. E., Jesukristo gure Jaunaren azken itz auek, bidaliak izango zituzten auzi ta eragozpenen erdian tinkorik iraun eta jañaitzeko. Aurrealde, Jesukristo gure Jaunak itz auek esan ez balizkie, bidaliak ikaratu, koldartu ta nastuko ziran ainbeste esespen, arazo ta ia ezintasunen aurrean, baña itz aiek garaiz jakiñik et-zezazketean ezerk aritu, izutu ta ustekabean atxitu; eragozpen eta gogorkeri guztiai arpegi eman eta eragin zezaiaketean Jesukristo gure Jaunaren indar bizi-eragilez. Geuretu dezagun, bada, oroitz au, geure gun eta mami egin dezagun, esespen, gogorkeri ta ezbearak datozkigunerako.

Jaungoiko gure Jaunaren eskuak ixurtzen dizkigu askotan, gure biotzak bereganuntz jasoaz bide onera gaitezen. Samiñak izanda ere gañeratzen zaizkigun ezbear oiek, ezer gutxi dira ziñez, Jesukristo gure Jaunak gure izenean eraman zituanakin alderatzeko.

Goruntz, bada, biotzak, iratzartu ta irazeki zangun guregan Jaunaren ezagupena; erabilzkigun Jaunaren ezaguntz oren bidez eta argiz gure jarduerak, gorenetan gure zai dagon gure Jaun eta Jainkoagandik egun batean, gure zintzotasun eta maitasunaren betiko sari bikaña artu dezagun.

Ala izan bedi.

Askundea

(Pentekostes)

Yon Don. XIV, 23-31.

Maite naun guztia, nere itzera egokituko da ta nere Aitaren maite izango da, ta arengana joango gera ta arenean baituko gera. Maite ez nauna, ez da nere itzetara egokitzen; ta entzun dantzuidazuten itza, ez da neronena, ni bidali nindun Aitarena da. Zer auek esan izan dizkizuet, zuekin jardunean. Nere izenean Aitak bidaliko dizuen Gogo Done Pozkidaleak, ordea, erakutsiko dizue dana, ta gogorako dizue nik esan ala guzia. Pakea uzten dizuet, nere pakea damaizuet; ez damaizuet, ordea, gizatzak damanez. Ez bedi izutu, estutu zuen biotza, ez anbat laritu ere. Entzun dezute neuk esan dizuedan au: Banoa eta etoñi natorkizue beñiz. Maite bañinuzute, poztuko ziñakete, noski, nere Aitarenganako joanaz; Aita ni baño aundiagoa bait-da. Eta orain aurrealdez dizuet, gertatzean sinis dezazuten. Et-zait zuekin jardun askorik gelditzen oran-

txe. Badator, bada, lur onetako buruzagia, eta nigan ez du ezeren eskurik, gizadiak ezagutu dezan, ordea, Aita maite dedala ta Aitak agindu didanez, onela dagit.

Nere izenean Aitak bidaliko dizuen Gogo (Espiritu) Done Pozkidaleak, ordea, erakutsiko dizue dana, ta gogoratuko dizue nik esanala guzia.

Jesukristo gure Jaunaren itz auetan arkitzen degu bidaliai egin zien agindua, alegia, gaur egi biurtu ondoren, ain aundiro jaiduratzen degun Gogo (Espiritu) Donearen etoñera ta bertandik gizadiarentzat sortu ta kimutu, ugaldu ziran onak.

Gertari ariñari ta pozgari au, Jesukristo gure Jaunaren gogo, lan, neke ta alegiñen garaipenezko burutze ta amaia bezela izan zan. Gogo (Espiritu) Doneak, bada, Eleiza Ama Donearengana etoñiaz, beraren askundea ta zabalkundea egin zuan, Jesukristo gure Jaunak luñean eratu ta ezañi zuan Eleizari aize emanaz, arnastu, kemendu ta auñerapidean jañi zuan Jesukristo gure Jaunaren asmo ta burubideak irixteko. Oregatik Eleiza Ama Doneak gaur eguneko otoitzaldiari oyu alai auekaz asipena ematen dio: *Alleluia! Spiritus Domini replevit orbem terrarum, venite adoremus! Alleluia!* Beñion daizuela! Jaunaren Gogoak (Espirituak) lurbira osoa bete du, atozte gur dezagun! Beñion daizuela!

Itun edo Lege zañean, judeañak Penteskostes zeritzaion jaia, Pasko jaiatandik beñogetamar egunera

egiten zuten; Sinai mendian ostotz burunda ikaragariz, eta tximist eta inusturi bristada ikaragarien erdian, eta Israel erriaren turutak otsik itzal eta zorotzenaz oyu zegiten bitartean, eria begirunez eta lañi zegolarik, beren buruzagi Moises'ek Jaingoikoagandik odeipe itxian amar aginduen edakundea artu zuan egunaren oroiz.

Itun edo Lege berriaren edakundea ere ain zuzen Jesukristo gure Jaunaren Pizkunde edo Pasko'tik berogotamar egunera gertatu zan eta Eleiza Ama Doneak berepetu zuan judear'ak izen berberaz egin oi zuten jaia.

Jesukristo gure Jaunaren Igokunde zoriontsuaren ondoren, bere bidali ta ikasleak Olibete menditik Jerusalem'era itzuli ziran aren agindu au betetzera: Jarai zazute zuek emen urian goiko piztutzez, galetzez (birtutez) ornituak izan arteraño. Bidali ta ikasleen sail onek Jainkoaren Amaren erañupean bildurik, luñean Jesukristo gure Jaunak ezañi zuan Eleiza Ama Donearen Batza osatzen zuten. Jesukristo gure Jaunak astiro baña ganorik bizienaz bildu ta gertu zuan Eleiza au, apaltegian batzarturik otoitzean jardun zan; eta amargañen egunean otoitzik irazekienean eta Gogo (Espiritu) Donearen zai-zai zeudela, bat batean zerutik zetoñen burundara entzun zan, ekaitz aize txistua- ren antzekoa, ta apaltegi ta etxe guztiak ikara egin zuan eta uri guzian entzun zan. Su antzeko mingañak sakabanaturik azaldu ta bakoitzaren buru gañean jañi ziran. Eta Espiritu Doneaz gañezka bete ziran.

¿Nork iruditu ta gutxiago esan bidalien adimen eta biotzak izan zuten bapateko aldaketa, ikasleen

animetan dirdai egin zuan jainkozko argi briztada, beren biotzak goritu zituan maitasun sugara, berengana jetxi ziran esker aberats-oparoak? *Repleti sunt Spiritu Sancto*. Espiritu Doneaz gañezka bor-bor egin zuten. Espiritu Donearen aize jasa arigari arek paraztadan ayenazi zituan beren buruko lauso, itxumen eta ilunpe guziak, eta Jesukristo gure Jaunak iru urtetan azaldutako erakutsiak beren burutan zeazki gogoratu ta oroitu zituzten, beren adimenak argi ulertu zituzten, beren gogoak egi aiek gizadi guztira bañeatzeko gale, gurari biziz piztu, irazeki ziran.

Une artatik beren gogo ta biotzetan ez du leku artzen Jesukristo gure Jaunak ezpada ta beren ardura ta lei guztia Jesukristo gure Jaunaren ezagupena ta aintza alde guztian edatu ta bañeatzea da. *Mihi vivere Christus est, mori lucrum*. Neretzat bizitzea Kristo da, ta beragatik iltzea saririk onena, bikañena.

Orela, bada, beren bulañean irakiten zeukaten Espiritu Donearen gar, bultzada onek eramanda, bidaliak apaltegitik ateratzen dira ta bilduñaren lipitzik gabe badijoaz enparantzaren erdira ta itza jasoaz asten dira lau aizetara Jesukristo gure Jaunaren Beñiona zabaltzen: *Prout Spiritus Sanctus dabat eloqui illis*, beren bañuak gañetan, sutan zeuzkan Espiritu Donearen etoriz itzegiñaz, Idazti doneak dionez.

Loquebantur variis linguis magnalia Dei. Jainkoaren aunditasunak bañeatu ta adierazten zituzten. Eta Idazti doneak zioten guztia bazekiten eta iragarleak aurrealdeez esan zutena ta legeak ziona azaldu ta adierazten zuten eta guztiak entzuten zien eta izkuntza

guztietan, bakoitzak bere izkuntza berezian ulertzen zien.

Gertari ariagarria N. E. M. Izkuntza guzitako giza-djak bildu ziran Pentekostes eguna jaiduratzeko, izkuntzarik bakanenaz, alkarénik ezer ulertzen et-zuten gizaketarik nastuenak batu ziran Jainkoari beren opariak eskeintzeko eginbeaia betetzearen, eta auek guztiak bidalien aotik para-para zetoien itz ugaria ederki, argi ulertzen zuten bakoitzak bere izkuntza berezian.

Au ikustean, erabat guztiak ariturik alkarri zioten: Baña zer da au? ¿Ez aldira auek galilearrok? ¿Nola entzuten diegu, bada, bakoitzak, norbere izkuntzan? ¿Ez aldira auek jakintza gaietan jardun gabeko gizonak? ¿Nola itz dagite, beraz, jakinduri ain sakon eta izkera ain bizi egokiz? Eta beren itzaren gaiaz eta beren etoñaren ariagarriaz eta ordurarteko jakintzagai okeiak auts egin eta gizabide berri baten argitasun eta eramén arez kuturturik eta Espiritu Donearen ikutuz bigundurik, iya iru mila gizon berealaxe bataiatu ta Kristo gure Jaunaren Eleiza Ama berian sartu ziran. Au izan zan Pedro Donearen lenengo itzaldiaren eman eta ondoren bikain-oparoa.

Garai artan N. E. M., gaur egunean diran izkuntza berri asko et-ziran eta aiezkerok erialdeak naspildurik eta abar egin diran laterri asko ere et-ziran. Gure Euskalerria, ordea, ta gure Euskera aspaldi, mila urtez aurretik bizi ziran eta onenean orain baño aurretatuago, orain baño lerden eta galenkiago bizi ziran. Berion Doneak dio: Jaikunde artan eguzkiaren azpian ziran aberri guzitatik etoñitako gizon jaiduratsusak bertan zi-

rala, beraz Euskaleri'ko gizon jaiduratsuak, gure Aberi onetako gizonak eta gure Aberi onetako buru ziranak ere, noski, Jerusalem'go jaikunde artara joateko beren aurrekoetatik artu zuten oiturari jaraituaz, an ziran Jerusalem'go eleiza bakaren beren opariak, beren eskeintzak, beren otoitzak egitera joanak eta Askunde egunean Espiritu Donearen etori beriko aldi, apuko, egokiera artan an entzun zioten geure Euskeran Pedro Doneari Espiritu Donezko etori sutsu artatik Eleizaren edakundeko Beñion Donea.

Eta Pedro Donearen itz sutsuz, Espiritu Donearen etorizko itz gori aien bitartez iru mila gizon sinistun egin eta eleizaratu ziran aien artean zeuden, noski, gure antziñako guraso, gure erriaren jaun eta aldun aiek, eta onenean aiek entzundako Espiritu Donearen ituri bizi artatik etoritako argitasunez eta zuzenbidez sortu zan gure Euskaleri maite onetan kristautasuna, Kristo gure Jaunaren sinismen eta beraganako jaidura zerutara.

¡Gora beaz Eleizaren Askundea, erien aurrerakunde ta susperkunde berri-eguzkitsuaren oña izan zan egunaldi bikain ura!

Andik urte batzutara gizadiak zerbait berria, eza-guna et-zitzaion zerbait, odol berriaren antzera, alde guzitatik sartzen ari zitzaiola barundatu zuan. Izan ere Pedro Donearen aotik edatu zan itza bide egiten zijoan, jainkozko maitasun sugarak eta argia ilunpe beltzak uratu ta ayenatzen zijoan eta gizarteko galbi-deak ondatu, zeakatu ta garbituaz bere eraietan bizi-tza berri bat suspertzen ari zan. Eta urteak ez ezik

gizaldi batzuek igaro ziranean gurutzearen tantaia ezaguna ta goratua zan eñialde guzitan eta Jaunaren Espiritua nagusi, zuzendari ta aitzindari izatera etoñi zan gizadi guztian. *Spiritus Domini replevit orbem terrarum.*

Orduan, gizadian Jaunaren Espiritua barnetu ta nagusitu zanean egizko bizitza beñi, garbi dizdikoña sortu ta piztu zan. Orduan gizonak beñiro ezagutu zuan lotsa ta gizatasuna, orduan bere griña gandotuk argitu ta bideratu ziran, orduan gizonaren biotza zabaldu zan luñeko likizkeritatik goruntz igo ta zorion aundiagotan aseaz, orduan jakintzak auñerapen galantak egin zituan, gizon jakintsu, done ta zuzendari gorenak sortuaz, orduan eñiak Eleizaren argitan egingako legez zuzendu ta bizitzen asi ziran, orduan gure Euskalerian Eleizaren bide ta argitan bizi zalarik sortu ziran gaur egunean ere gizadi guztiaren añigari diran gure Lege Zañak, orduan eratu ziran gure oitura eder, jolas garbi, lege bikain ta añotzentzat kalterik gabe guztientzat pozgari ta guretzat zorion bete egiten zuan gure biziera berezi-berdingabea.

Baña beñiro liberalkeriaren ordoia ta goñiña kutsutzen asi zan gure Euskaleriaren soña, gaiztabideko erakutsiak sakabanatzen asi ziran an-emenka, oitura galduak pixkanaka leku artzen joan dira ta gaur gure euskaltasunaren betiko izen onari, gure euskaldun fededun ta sinistun izen onari sendo ta trinko eutsiko badiogu, gogor egin eta zintzo jokatu beañean gera geure kristau-eskola katolikoak eñi guzitan zutituaz, gure sinismenari eutsi ta goratuko duten gure apaizai

lagunduaz, gure diruz ordainduta lateriak dauzkan eskoletatik kendu duten gurutzea, besterik eziñean, gure mendi-galur guztietan, zeru la luñaren erdian bezela zutituaz, gure eñiak, lurbira guztiko eñien artean, buruan eramango duan gure sinismen, oitura on eta osasuntsuai zindo eldu ta eze-eze iraunazten elemenean aleginduaz.

Otoitz egin bear degu, beraz, guztiok sutan biotzak ditugula gure Eleiza Ama Donearen alde, gaurko egun gogoangarian Jesukristo gure Jaunaren bidali ta ikasleak Andre Mari guztiz garbia erdian zutela otoitzean jardun ziran bezela, otoitz egin bear degu Espiritu Donea, *veni Sancte Spiritus*, bere zerutar su ta igindañez etoñi dedin gure gotzai jaun eta gure elizadiko apaiz jaun guztiengana gure anima ta biotzak Jainkoaren maitasun gañetan piztu ta irazeki ditzaaten, otoiz egin bear degu Espiritu Donea etoñi dedin gure eñi-agintariengana, eratuak eta ezañiak dauden legetatik gure eñiarentzat onaldirik aundiena atera dezaten, otoitz egin bear degu gure irakasle ta ikasleen alde beren buru ta biotzak Espiritu Donearen argitasunez idargitu ta zuzenduak izan ditezen, otoitz egin bear degu lantegien jabe ta langile guztien alde alkarren arteko pakeak egingo dituan zuzenbideak, apuko, era bakoitzean bururatu dagizkigun, oñela jainkozko maitasunez eta alkarren galez guztion artean eñi trinko-osasuntsu bat jaso dezagun.

Veni Sancte Spiritus. Atoz Espiritu Donea ta zerutar argi eñañuak igoñi, bidali itzazu gure biotzetara, gure gogoak zure maitasunaren edeñaz liluratu

ditezen eta zerutar bide zintzoan arki dezaten egiazko zoriona.

Lava quod est sordidum, riga quod est aridum, sana quod est saucium. Garbi itzazu Espiritu Done oñek gure akats eta ordoiak, gure pekatuaren beltzuneak zure argiaren diztiramenez gure animak irargi dezan; urtatu itzazu gure legoñak, zure goi eskeñaren intz eta euri gozoaz ezetu itzazu gure barunak, gure animaren loretegian onbidezko landare beñiak ta lore ikusgañi-atsegiñak erne ta eda ditezen. Sendatu ta ormaindu itzazu gure zauriak, gure zabarkeri ta griña itxuz gure animan iriki ditugun zartatu ta irikitu ilkoñak, zure goimaitasunaren leguntasun eta pozkarioz osatu ditezen.

Oh lux beatissima, reple cordis intima tuorum fidelium. O argi ta edertasun zoragaña, bete itzazu zure maitatien biotz edergaleak sakoneraño, zure zerutar eztiaren gozoaz betirako maitemindu ta zorabia ditezen.

Da tuis fidelibus in te confidentibus sacrum septenarium. Zure maitale leyal eta adizkide ta jañai-le zindoai ixuri zaizkiezu zure emaiak sortzen dituzten pake, alai ta baretasun zoriontsua, zure argitasun, zure maitasun bidetan bizitza au igaro ondoren egun batean zure maitez orniturik, zure goi aberastasunez zamaturik zuregana ega gaitezen zure jainkozko edeñez azken gabe zoriontsu bizitzera.

Ala izan bedi.

Askunde uréngo Igandea

Irutasun Donearen jaia

Math. Don. III, 18-20.

Jesus'ek esan zien bere ikasleai: Zeru-luñetako alduntza osoa eman zait. Zoaztelarik, beraz, eñi guztiai irakatsi zaiezue, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Donearen izenean ugutzatuaz (bataiatuaz) eta nik agindutako ezer guzia zaitzen erakutsiaz. Eta oña ni zuekin izango naiz egunoro gizaldien amairaño.

Eleiza Ama Doneak bere izaeran dituan arigarrietan aundienetako bat sinismena da, alegia, gure ezaguera, gure adimena Jainkoari eskeñi ta bere mendean bizitzea; gure ezagueraren argi nabañak atxitu ta iritxi ezin lezazken egi aundi ta mirari sakonak egitzat euki ta sinistea, Jainko gure Jaunak, iñola ere gezuñik ezin esan dizaigukenak, agertu dizkigulako.

Eleiza Ama Donearen mirari ta egi batzuek gure ezaguera ta adimenari gañez eragiten diotenak diralako, gure ezaguerak berezko indaiez ezin ulertu ta irixi ditzake beren argitasun osoan, Jainkoaren goitasuna ta argitasuna azkengabea ta neurigabea izanik, giza-adimenaren argi apur, motz, neurtu ta esitua ezin eldu bait-da aren goitasun eta sakoneraño. Onegatik dio Agustin Doneak: Zu bakarrik zera, Jauna, guzalduna, zu zera zorion guztien nagusi, giltzari ta adimen neurigabeduna. Zeure izate ta argitasuna ikustean daukazu zure zoriona; ta beste ezaguera ta adimen guztiak ezin nabaitu ta ezagutu dezakete zure izate ta argitasun oren betiko gun ori, gizonen eta ainguru guztien argitasunari gañez eragiten diolako.

Ez da aritzekoa, bada, luereko zer asko ezagutu ta aditu ezin ditzaken gizonak, egunero ikusten ditugun gauza txiki ta koxkorak ere ezagutu ta entenditu ezin ditzaken gizonak, adibidez: ar batek bere muskiraz seda nola egiten duan, erleak abaraskan ezta nola egiten duan, eltxo batek nola bere begiakaz ikusi, nola jan eta bizitzen dan, ermiarmak amarauna nola iruten duan eta beste onelako ezer txiki ta koxkor eta xexek, egunero egundaka ikusten ditugunak, ez dakizkian gizon orek, ez da aritzekoa, diot, Jainkoaren aunditasun, goitasun eta edertasun neurigabeak, baztergabeak ezin nabaitu, ezagutu ta osoro aditu ta bere buruan orostatu edo konprenditu al izatea. Zer diot ez dala aritzekoa; gañera ala bear du, bidezkoa ta gizonaren izateari dagokiona da Jainkoaren aunditasun neurigabe aiek oso-osorik ez ezagutzea, ezin orosta-

tzea, osorik eta zearo ezagutuko balitu, bada, gizona Jainkoarekin jakinduriz berdiña izango litzake ta au ezin litekena da, ańokeri izugaria da, Luziper deabruak zeruan nai izan zuana, Jainkoaren kidea, berdiña, beste Jainkoa izatea, ta au ezin liteke, diot, asierik eta amairik ez duan Jaun guzalduna ta ezer guztien Jaun eta Jabea bat besterik ezin izan ditekelako.

Onela, bada, Eleiza Ama Donearen mirari ta egi asko gure adimenaz ezin ezagutu, orostatu ditzakegula sinistu ta aitortu ondoren, jakin bear degu Jainko gure Jaunak Eleiza Amari adierazi dion miraririk aundiena, ez luńean eta ez zeruan gizonak, doneak eta aingeruak ere egundańo zearo ezagutzera elduko ez geran miraria, ta gure anima zeruratu ta salbatzeko jakin, sinistu ta aitortu bear degun miraria, Jainko gure Jaunak bakarik oso-osorik ezagutu ta orostatzen duana, Irutasun Doneko ańitza, mirari aundi ta ańigaría dala.

Mirari onen ańigaritasun berdingabea ezaguturik onela zion Agustin done aundiak oyuka: Zuk bakarik, O Irutasun Donea, ezagutu, orostatu dezakezu eńotik eta oso-osorik Zeure Irutasun Donearen izate berdingabea, zeure eskutik sortutako beste adimen guztiai gańez eragiten diezulako, ta Zeure argitasunaren argitasunaz beste guztiak lausoturik gelditzen diralako; ońegatik, zure Irutasun Donearen izate ori zer dan ezin zearo ezagutu, orostatu ta aitortu dezateke aingeruak berak ere.

Eta auxe gertatu zitzaiola diote liburu doneak Agustin doneari, jakintsu askoren esanez, luńean izan

dan jakintsurik aundiena zan done aundi ari: Egun batean, Irutasun Donearen gaiean liburu bat idazten ari zan garai batean, ondartzara joan zan eguraztuaz, Irutasun Doneakiko gogaketan jardutera, an gogorazten zitzaizkion izpiak gero liburuan ezartzeko asmotan. Onela, bada, itxas-ertzean zebilela, mutiko batekin arkitu zan. An zebilen mufiltxo ori ugiñetara, olatuetara joan eta etoñi etengabeko arian, jardunean eskuan zeraman moxkoña (concha) itxasoko ugiñetan urez bete ta ondartzan egin zuan zulo txikira jaurti, bota itxasoko ur guztiak era onetan xulo txiki artan sartzeko uste ta asmotan. Agustín done aundiak ikusirik mufiltxo ura alperikako lan artan, eta bere ustez gixajo bat zan mufiltxo ari erukiz begiraturik esan zion: ¿Zer zabilta txotxo (ume)? Itxaso au guzia agortu nai nuke, bere urak xulo onetan sartuaz. Doneak pañe egiñaz auraren ateraldiari, esan zion: Baña ez dezu ikusten ori ezin litekela; itxaso oñen urak ikaragarri ugariak eta zuloa beriz txiki-txikia dala? Orduan erantzun zion mufiltxoaren idurian zebilen aingerutxo arek: Askoz ere eretzagoa da nik darabilten eginkizun au amaitzea, irixtea zure buruan eta adimenean gogaltzen darabilzun egi sakon ori zearo xuritu, ezagutzea ta orostatzea baño. Itz auek esanaz batera aingerua ayenatu zan eta orduan ezagutu, orostatu zuan Agustín done aundiak gizonaren ezaguera utza dala Irutasun Donearen mirari arigarria nabaitzeko, ta sinismenaren bidea bakarrik gelditzen zaiola askotan gizonaren adimen motzari bide zuzenetik eta zintzotik ibili ta jaraitzeko.

Mirari agurgari onen egia ikusten degunez, bada, ez da ezagueraz aitortu bear deguna, baizik gure sinismenaz, ezagueraz bere egia zearo sakondu ta arkitu ezin dezakegulako. Jesukristo gure Jaunak eman zigun mirari onen beñi, bere piztuera ondoren bidaliak bialdu zituanean eñiak itz auekaz bataiatzeara: *Ite et docete omnes gentes baptizantes eos in nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti*. Zoazte ta irakatsi zaiezute gizaldra, gizaketa guztiai, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Donearen izenean bataiatuaz. Ez die esaten Aita ta Semea ta Espiritu Donearen izenetan, baizik Aita ta Semea ta Espiritu Donearen izenean, era onetan era kutsirik Aita ta Semea ta Espiritu Donea iru notin edo persona banak badira ere Jainko bakar bat dirala. Auxe bera garbi adierazten digu Yon bidali doneak ere itz auetan: *Tres sunt qui testimonium dant in cælo: Pater, Verbum et Spiritus Sanctus: et hi tres unum sunt*: Iru dira zeruan zinitza ematen dutenak Aita, Itza (Semea) ta Espiritu Donea: ta iru auek bakaña dira, Jainko bakaña, alegia.

Atanasio'rena deitzen zaion idazkiak ere ederki adierazten digu Jainkoaren Irutasun eta batasun donea esaera egoki auekaz: Norbere burua salbatu nai duanak lendabizi sinismen katolikoa izan beza. Sinismen katolikoa au da: Jainko bakaña Irutasunean eta Irutasuna batasunean agurtu ditzala. Notin edo personak alkar-nastu gabe, ta izatez berezi edo banakatu gabe. Bat da Aitaren notiña edo persona, bestea Semearena, bestea Espiritu Donearena. Baña Aitaren eta Semearen eta Espiritu Donearen jainkotasuna bat bera

da, aintza edo gloria berdiña, jauntasuna betikidea. Aita bezala, Semea ala Espiritu Donea ala. Aita ingabea, Semea ingabea, Espiritu Donea ingabea. Aita neurígabea, Semea neurígabea, Espiritu Donea neurígabea. Aita betikoa, Semea betikoa, Espiritu Donea betikoa. Eta ala ere ez dira iru betikoak baizik bat betikoa. Ez diran bezela iru ingabeak eta iru neurígabeak baizik bat ingabea ta bat neurígabea, eta era onetan jaraitzen du Jainkoaren Irutasun eta Batasun guren-agurgaria azaltzen.

Jainkoaren Irutasun eta Batasun guren au sinismeneko egi miraritsua izan eta gure buruaz ezin zearo ezagutua, orostatua izan aŕen gizonak antz, iduri ta alde batzuek, erabide batzuek asmatu ditu, bere erara Jainkoaren Irutasun eta Batasun guren oŕeri zerbait antzemateko. Ikusi dezagun itz labuŕetan nola azaltzen duten aŕitza, mirari garai edo Irutasun Donearen mirari izugarri au.

Jainko gure Jauna ezin aritu gabe egon diteke, beti jardunean aritu bear du, sinismenak Irutasun donean erakusten digunez. Jainkoaren aritza edo jarduna, bi eratakoa izan diteke, bat berarizko, berberaganako jarduna ta aritz edo jardun onetan gelditu gabe beti ta betitandik ari da; bestea at-arirako edo kanporako jarduna ta onetan jardun zan bere adimen eta nai utsez: iza, in bedi, esan eta lurbira ta izadi guztia izanazi, in, sortu zuanean, eta etengabe ari da lurbirako izaki guztiai uneoro eusten eta beren izaeran iraunazten. Jainkoaren aritasuna betitandik jardun edo ari dalarik, aritz utsa dan Jainko Aita notiñak bere izatearen, bu-

ruaren iztasun edo argitasuna zearo ikusten du ta Aita Jainkoaren iztasun, argitasun, ditzira ta izpilu oneri Itza edo Jainkoaren Semea deitzen diogu. Seme Jainkoak pozik ikusten du Aitaren jarduntza edo aitasuna ta Aita ta Semeak alkar ikusiaz sortzen dan poz, alaitasun, gale, maitasuna da Espiritu Uts Donea, Usttaritz donea, Espiritu Donea. Iruren aritasun edo jarduntzan adizkidetasun miña ta osoa dago, irurak, bada, Aita ta Semea ta Espiritu Donea notintasunez banak izan aŕen, nagusitasunez berdiñak dira, izatez Jainko bakar bat dira.

Agurtu dezagun, beraz, Irutasun, Irutza Donea ta jaso ditzagun gure begiak bere irudi Donea alik argiena ikusteko ta eskatu dezaiogun Jainkoari, Urtziri bere Batasun eta Alkartasun donea ain bat, zabal eta edakoŕa dan bezela, gure biotzak ere Eleiza Ama Donearen aritzapean alik bat, zabal eta edakoŕenak izan ditezela Jainko ta lagun-urkoaren onarentzat, era onetan gure bizitzaz Jainkoa ta lagun-urkoa maitaturik lur onetan Irutasun Donea aintzatu ta goretsi ondoren, egun batean Jainkoaren etxe gureneko betirau-nean zoriontsu izan gaitezen.

Ala izan bedi.

Pentekostes ondoko bigarren igandea

Luk. Don. XIV, 16-24.

Jesus'ek esan zien zurikariai gerturi (parabola) au: Gizon batek aparti bikain bat antolatu zuan, eta bertara askori dei egin zien. Eta apalorduan bere moñoia eztaideai, apaldañai bidali zien, etortzeko esatera: guztia gerturik zegola-ta. Ta guztiak beren buruak uzkuratzen asi ziran. Lenengoak esan zion: Jausoro bat orosi nuan eta bera ikustatzera joan beñik nago: ez, bada, añen, nere ustean itxaron. Besteak, beñiz, esan zion: Bost uzta-idi eresia naiz, ta aiek aztertzerá noa: ez, bada, añen, nere ustean egon. Besteak ere esan zion: Ezkonbeñirik natzaizu ta iñola ezin joan. Eta moñoiak itzuli zanean nagusiari beñi auek eman zizkion. Orduan etxejaunak suminduta moñoiari esan zion: Zoaz azkar eriko enparantz eta karkabaretarà, ta eskale, txango, itxu ta erenak sar itzazu emen bafura. Moñoiak, esan zion: Jauna, agindu dezunez egin da, baña oraindik tokia badago. Ta jaunak moñoia-

ri esan zion: Erten zaitte bide ta esietara, ta sañerazi itzazu, nere etxea bete dedin. Zueri, beñiz, dizuet, ez duela len deitutako gizon aietatik iñork nere apari aundiaren eder izpirik miazkatuko.

Gizon batek, dio gaurko Beñion Doneak, apari aundi bat antolatu zuan eta bertara askori dei egin zien. Eta apalordua eldu zanean, moñoia bialdu zuan apalkideai otsegitera, guztia gertua zegola-ta.

Gizon onek ¿nor adierazten digu N. E. M.? Jesukristo gure Jauna, gure zeruratzale ta salbatzalea, Jainko izanik gizonaren soña artu ta gu etsaiaren uz-tarpetik atera ta salbatu ta zeruratzearen Jainko-gizon egin zana. Jainko-gizon onek, *fecit cœnam magnam*: apari aundi bat antolatu zuan, Eukaristi'ko Sakramentu Donea sortu zuan, eta bertan zerutar ogia, bere izate guztia eman zigun ogi ta ardoaren irudi-pean.

Eta egiaz ongi deitzen zaio *cœnam magnam*: apari aundia. ¿Zein izan diteke, bada, Eukaristia baño apari aundiagorik? Bertan et-zaigu ematen lur gizenaren zilurik, emaitzik, et-zaigu ematen zeruko manarik Israeldarai lekaroan bezela, askoz geiago ta obea ematen zaigu, aingeruen ogia, Jesukristo berbera, bere gorputz, anima ta jainkotasunarekin oso-osorik ematen zaigu. Eta Jesukristo gure Jauna baño aundiagorik eta obeagorik ez dagolako, ez dago apari au baño aundiago ta obeagorik ere.

Aparia gerturik zegonean, gizon onek moñoi bat bialdu zuan apalkideai deitzera.

Gregorio done Aita Santuak dio, moñoi onek Beñion, sinismen zabaltzaleen taldea ta auetako ba-koitza esan nai duala. Ori gera sinismenaren zabal-
tzaleak: Jaunaren moñoiak, batere utzi gabe, kristau guztiai Eukaristi'ko aparitara deitzeko agindua dau-
kagun Jaunaren moñoiak. Gure eginkizuna, gure eginbeña da, beraz, deitzea, ekartzea era batera ala bestera Eukaristi'ko Jaunarengana.

¡Oña Jesukristo gure Jaunaren erukizko opa, gu-
rari samur-zerutara!

Guk gere irizmenean egundano usteko ez genua-
na berak ontasunez gañezka eskeintzen digu; ta ez bakañik eskeñi, gañera eleizan bere moñoi ta bidaliak ugaltzen ditu ta guztiai agintzen die gogorazi ta oro-
iazi dezaigutela aparria gerturik dagola guztiontzat eta guztion zai dagola bere izate osoa guztioi emateko.

¡O bai esker ona euki beañean gaudela aingeruen aparira deitzen gaituelako; bai gogo onez joan beañ-
ean gaudela aingeruen Eñege ta zeru-luñen Jaun eta Jabeak adizkidetasunez eta maitasunez beragana dei-
tzen digulako!

Eta guk ¿zer egiten degu N. E. M.? Kristau as-
kok gor eta lor egon, ez entzun egin Jesus'en deiari,
apaizen deiari. Luñeko eñege batek deituko balie baz-
kaitara, ez lioteke utsegingo bere deiari, azkar eta po-
zik joango lirake eñegek berakan bere begiak jañi
ditualako. Ez da, bada, emen luñeko eñege, Jesus da,
befiko eñege ilezkoña da berakan bere begi ta biotza
jañi dituna; Jesus da, eñegeen Eñege ta jaunen Jauna

da bere maira deitzen diena. Eta berak zer egiten dute? Gaurko Beñioneko apalkideen antzera aitzakiak bilatzen dituzte, atzerapenak jartzen dituzte jaunartzera ez joateko ta beren buruak uzkuertzeko.

Gaurko Beñionak dio moñoiaren deia entzun zuanean auñenekoak onela erantzun ziola: Jausoro bat erosi det, eta bera ikustatzera joan bear det: barkatu, añen, ezin joatea. Bigañenak: bost uztar-idi erosi ditut eta berak aztertzerá noa. Irugañenak: ezkondu egin naiz eta ezin joan ninteke.

Erantzupen auek auñeneko begiratuan zuzenak eta jatorrak dirala dirudite, baña Jaunak ikusten degunez et-zituan ontzat artu edo egiazkoak et-ziralako edo ala izanda ere Jaunaren dei ura ajola aundiagokoa zalako ta oregatik bere deira joatea lenagokoa zalako. Eleizaren gurasoak diote iru erantzupen auetan bildumaturik, laburturik daudela kristau epelak Eukaristi'ko maitik aldegiteko jartzen dituzten aitzakiak, akiakulak.

Auñenekoak onela zion: Jausoroa erosi det. Gregorio doneak idazten du, jausoro onek itz batean luñeko ondasunak esan nai ditula, baratz eta soroak, abere, etxe ta etxealdeak, alegia, ta dio, au dala askorentzat Jainkoagandik eta bere maitasunezko sakramentutik uruti ibiltzeko aitzakia; ez ondasun auen jabe izatea, baizik ondasun auetarako begiratu, ajola, apeta ta zalukeri geiegi izatea. Luñeko irabazien zalukeriz eta luñeko ondasunen itxumenez menderatua dagon gizonak, buruan ez dauka beste gogorapenik, biotzean beste asmorik ondasun aiena ez izanik, eta beste gauzetarako ajolagabea egiten da, añeta gutxi

artzen du bere animarako, batez ere bere animaren zoñak garbitu, zuzendu ta berdintzen dituan Jauna artzeko. Jauna artzearen aldean aundia iruditzen zaio bere begietan, onenean debekatua dagon igandeko lan pixka aren irabazia. Ta ¿zertarako dira bizitza onetan ere lan oiek Jaunaren laguntza ta bedeikapenik artzen ez badute? ¿Eta zertan geldituko dira laister, bere eriotza ondorean ainbesteko leiaz eta itxumenaz ekiñean jardunik irabazitako ondasun kaxkar oiek? Laister guztiak utzi beaíean arkituko da min bazaio ere ta ez ditu bereak izango ainbeste neke ta alegiñez irabazitako ondasun oiek eta bere arazo guztiak ez dira bere onerako izango, ez dira bere animaren osasun eta betiko bizitza irixteko izango, Jaunaren deiari erantzuteko astirik, betarik artu ez eta animaren ondasunak bazter utzi zitualako.

Baña goazen bigaíengoagana. Onek dio: Bost uzta-idi erosi ditut eta oiek aztertzerá noa. Agustín doneak adierazten digu, bost uzta-idi auek, gure gorputzeko bost sentzuak adierazi nai dutela.

Au onela bada, ¿zer adierazi nai zaigu itz auekaz? Itz auekaz adierazten zaigu gizon ura bost uzta-idiakatik aparitara joan gabe gelditu zan bezela, kristau asko ere Eukaristi'ko maira joan gabe gelditzen dirala beren zentzun edo sentiduen moíontzapean bizi diralako, beren bizitzan zentzunai leku geiegi emanaz baíuko ta animako bizitzaren indaíak agortu ta aultzen zaizkielako. Bizitza nastua, esirik gabea, jolastun utsa, edozein batzar eta ikuskizunetara sartzeko begiramenik ez duala bizi danak, ezin somatu ta gozartu

dezake Eukaristi'ko aingeruen janariak dituan gozamen, ezfitasun eta aingeruzko zorionak. *Non in commotione Dominus*, dio Espiritu Doneak. Ez dira Jainkoa ta bere zerutar gozamenak lu'eko zarata ta izkanbilēn artean arkitzen, baizik baretasunean, pakean, ixiltasunean, bizitza bilduan. O'regatik, bada, Eukaristi'ko aingeru ogiaren gozamen eta ezfitasuna gure ba'uan somatzeko, bizitza zintzo ta lu'eko aizekeri ta jolaskeri nabarmen eta geiegitatik igestea ta aldentzea da bide baka'ra. Zala dala au esan lezake, agian, norenbaitek, batez ere bide txa'ean oitua dagonak eta lur onetako aizekeriai biotza emana daukanak, ba'ña geiegizkeri oiei neu'ia ta bear dan esia jartzea zala bada, aundia da baita ere bere bidez gure barnera, gure animara etortzen dan pake ta zoriona, ta egiazko zorion au iritxi ezkerro, lengo lan eta alegin guztiak utz eta ezerezak dirudite berak eka'ri diguten egiazko poz eta zorion trinko onen aldean.

Azkenez iruga'enenak esan zuan: Ezkondu egin naiz eta ezin joan ninteke. Ez dago esan bear'ik ezkontzak eta ezkonduen bizitzak batere eragozpenik ez duala jaunartzeko, naiz eta sa'itan eta egunero artu nai badute ere, amaikaga'enen Inozenzio'k eta amarga'enen Pio Aita Santuak argi asko aitortu zuten bezela.

Jesukristo gure Jaunak adierazpen garbi onen bidez, doneak eta Be'ionaren adierazleak diotenez, beste bide bat, loikerizko bidea aitatu ta adierazi nai zigun eta berak dionez bide zatar eta itxusi au da Eukaristi ta jaunartzetik geiena alderagiten duana. Izan ere ez dago loikerizko gri'ña ba'ño beltzagorik, aingeruen ja-

nari zerutaña dan Eukaristi'ko mirari onen aurera etortzeko. Eta ¿zergatik? Arazoibide asko daude, baina Eleizaren jakintsuak adierazten digun bat bakaña ikutzea naikoa da: loikeria ta sinismena alkarturik inola ere ezin bizi diralako. *Imposibile est si vitam impuram degas in fide non vacilare*, dio Juan Krisostomo doneak. Ezin diteke loikerian bizi ta sinismenean oztu ta auldu gabe irautea. Eta Juan Krisostomo doneak diona berbera diote ao batez done guztiak.

Gandotzen eta lausotzen dijoan begiak, argitasun berdiñean irauten duan gauza berbera gero ta motelago, margoilago ta ayenkiago nabaitzen duan bezela, era berean loikerizko bizitza oretan sartuta dabilena ta griña ikaragarri oreakin lotua dagona gero ta geiago itxutzen dijoa, gero ta geiago aultzen dijoa sinismenean eta bizitza gaizto ori ta sinismena alkarturik ezin iraun dutelako, griña gaizto ori maite duanak, azkenean, sinismena baztertu ta gorotatzen du. Orain bada, ¿zer izen egotzi zion Eleiza Ama Doneak Eukaristi'ko Jaunari? *Mysterium fidei*. Sinismeneko miraria. Oregatik, bada, loikerian dabilenak zenbat eta asmo geiago euki bide lasai oretan jaraitzeko, ainbat eta otzago egiten da sinismenerako, ainbat eta bakanago uñeratuko da Eukaristi'ko Jauna artzera, sinismeneko mirari onetara.

Entzuten ari zeratenen artean bazaudete, noski, aingeruen Ogi zerutaña saritan zuen biotzetan artzetik uruti zabilzatenak, eta bizikera onetan zaudetenak zeuen barura sarturik galdetzen badiozute zeuen buruai, zergatik et-zeraten geiagotan jaunartzera uñera-

tzen, gaurko Beñionak dakarzkian iru oietako zioen bategatik izango da, noski, edo luñeko irabaziak lenagotzat artuaz beren egañi geiegiz zabilatzatelako, animarentzat betarik artu gabe; edo luñeko aizekeri ta jolaskeritarako geiegi itxutuak zaudetelako; edo bestela ta au izango litzake negargañiena loikerira emanak eta bere saretan atxituak zaudetelako; auetxek dira gure animan nagitasun eta zabarkeria sortzen dutenak aingeruen Ogi zerutar ori artzera uñeratzeke.

Begira dezagun orain, Jesukristo gure Jaunak beren ezezkoa entzutean zer agintzen duan. Auñena dio, sumindu, asañetu egin zala; au egiten dute pekatariak Jesukristo'gandik igesi ta bere deiari ezezkoa erantzunik dabilzanak, bere biotza mindu, oztu ta atzerazi. Baña bere sumin ta asañeaz batera bere ontasun neuriñgabea azaltzen du esanaz: Zoaz enparantz eta karkabaretara, zoaz bidetxior eta bidezabaletara ta nere etxea beteala lagun ekañi zazu.

Aberatsak geienean aundizkiai eta aberatsai deitzen die beren bazkaitara, ez dute askotan ezer ikusi nai izaten beartsuekin. Jesukristo gure Jaunak ez; guztiai deitzen die, aberatsai eta beartsuai, osasuntsuai eta makalai, elbañiai, itxuai, eñenai eta guztiai; ta oñela gaur egunean ere guztiai berdin eskeintzen zaie Eukaristian, gaxoagana ere joanaz oetik eskatzen duenean. Berdin deitzen die baita ere Jesukristo gure Jaunak jaunartzera animaren osasunez eta gaxotasunez bizi diranai, guztiai deitzen die; ez da Eukaristia batzuek uste duten bezela kristau zintzoentzat bakariñik, ez, pekatariantzat ere berdin da, beren animak garbitu, pekatutatik atera ta jaunartzearen bidez indartu ditza-

ten, urrena beriz pekatuaren erasotan erori ez ditezen; eta ez dute pekatariak ere, gogo onez eta asmo onez egiten duten bitartean inoren esamesen bildurik izan bear, X'garren Pio'k leiaz eskatzen digu, bada, guztioi saritan jaunartu dezagula, bere bidez pekatuen zirrikaldi, eraso ta uztarpetik errezago igesi ta azkatu gaitezen.

Azkenez, apalategia bete zanean, entzun Jesukristo gure Jaunak esandako itzak: Nere deiari ezetza erantzundako aietatik ez du inork ere nere aparitan lekurik izango.

Jesukristo gure Jaunak jaritako apari artara etori nai izan et-zuten apalkideai Jesukristo'k egotzi dien zigorkada onek ez dirudi oso gogorra danik lenengo begiratuan; berak etori nai izan et-zuten apari artan ez dutela egundo geiago lekurik izango esaten die, bada; baina pixka bat geiago sakontzen badegu Jesukristo'ren esaera ori argi ikusiko degu izan diteken epairik ikaragarriena dala. Jesukristo gure Jaunak dio, bada, beste leku batean: *Nisi manducaveritis carnem Filii hominis et biberitis ejus sanguinem, non habebitis vitam in vobis.* Gizonaren Semearen aragia jan ta bere odola eraten ez badezute, ez dezute zuengan bizirik izango eta Jesukristo gure Jaunak janari ta edari au ukatzen dielako, betiko bizitza ta betiko zoriondegiko sarera ere ukatzen die eskergabe aiei.

Ez dezala, bada, guregana ere Jesukristo gure Jaunak orrelako zigorkada ta azonarik jaurti, bota. Ezagutu dezagun Jesukristo gure Jaunak guretzako daukan onginaia guri deitzean. Jarai dezaiozun bere

dei maitaleai saritan jaunartzera uñeratuaz, era oñetan Jesukristo'ren gorputz eta odol garbiaz gure sinismentan indarturik ausi ditzagun etsaiaren sare ta erasoak, eta eriotzako ordua eldutzean igo gaitezen Jesukristo gure Jaunak zeruan guretzat gerturik daukan betiko apari zoriontsu artara.

Ala izan bedi.

Pentekostes ondoko irugañen Igandea

Luk. Don. XV, 1-10.

Zergari ta obenlariak Jesus'en ur̄e zebiltzan berari entzuteañen. Eta zurikari ta idazlariak maxiaka zioten: onek obenlariai belañi eman, eta berakin jaten du. Eta Jesus gerturi onetxez zuzendu zitzaien: Nor da zuetan eun ardi dauzkalarik, eta aietako bat galdu ezkerro, larogeta emeretziak lañean utzi ta beraren bila ez loakena atzeman arteraño? Eta arkitzean, beñiz, bere sorbaldan pozik artzen du; ta etxera itzulita, adizkide ta auzokoai otsegiten die esanaz: Pozkida zaitetze, ardi galdua arkitu bait-det. Zuei, bada, dizuet, onelaxe pozago izango dirala zeruan garbai dagin obenlari bakañaz, larogeta emeretzi zintzo garbai beañik ez dutenaz baño. Berebat, zein emakume amar drakma, otxin (diru) ditualarik, bat galdu ezkerro, ez du krisailua piztu, etxea eñatzaz aztindu ta ernai begiratzin arkitu arte? Eta arkitzean, adizkide ta auzokoai otzegiten die, esanaz: Pozkida zaitetze, drakma, otxin (diru) galdua arkitu bait-det. Onelakoxea izango da, dizuet, Jaunaren aingeru arteko poza, obenlari baten garbaiaz.

Jesukristo gure Jaunaren eta Eleiza Ama Donearen eginkizun nagusia pekatariak bideratu ta beren betiko osasun eta bizitza irixtea da. Onetarako etorri zan Jesukristo gure Jauna luñera ta onegatik ekin eta jañaitu zuan bere ageriko bizitza guztian zerutar erakutsiak bañeatu, zabaldu ta adierazten. Pekatariak zeruratzeko etorri zan ezkerro, bada, pekatarien artean ibili, pekatariakin itzegin eta pekatariari añera ona egitea bide zan, aiek beraganatu ta bide zintzora erakarri al izateko.

Au ordea ezin eramán zuten zurikari, pariseo ta eskribak beren biotz gogor, zimatsu ta biurñan eta beren goñoto miña ezin uzkurturik marmarka zioten: «Ora, ora nola dabilen pekatari artean eta aiekin janaz».

Auetxek dira beti gizon egiaz zintzoen eta gizon zuri, maltzuñen bideak. Gizon egiaz eta bañuz zintzoa danak pekatariantzat erukia, kupida ta biguntasuna dauka biotzean, eta iñola al balu bere pozik biziña gaizto ta pekatari oiek bide onera erakarzea litzake. Zuriak eta azalez bakañik zintzoak diranak, beriz, ez dute ikusi nai besteren onik, beren berekoikeriak ezin eramán die besteak bide leyaletara etortzerik eta ore-gatik besteak bide-zuzeneratzen ikusteak mintzen ditu, gañazten ditu ta orduan beren biotz eta aoak ez du aientzat ematen gogorkeria, eztenkada ta beazuna besterik.

Au ezaguturik Jesukristo gure Jaunak, iruleta eder bat azaltzen du guztien añera, pekatarien añera zeukan bere eginkizuna adierazi ta bere etsaien esanak bi-

degabeak zirala garbi azaltzeko. «¿Nor da zuen artean, dio Jesus'ek, eun ardi euki ta auetako bat galduko baltzaioke beste larogeta emeretziak lañean utzi ta idoro, arkitu arteraño galdutakoaren bila joango ez litzakena? Ta bera arkitzean, beriz, pozez sorbaldan artu, ta etxeratzean, adizkide ta auzoai jakinerazten die, esanaz: Pozkida zaitzte, arkitu det, bada, nere ardi galdua».

Azalbide bikain eta argia Jesus'ek zurikariai, pariseoai eman zien au, bere egikunen zuzentasuna adierazteko. Artzai onak bere ardi galdua atzera bereganatzeko artzen dituan bideak, artu bear zituan Jesus'ek ere pekatariak beregana beriro erakartzeko; artzai onak bere ardi galduaren alde egin zuanak, zurikariak, pariseoak, ezer gaitzik ikusteko biderik etzeukan bezela, era berean Jesus'ek pekatari ta publikanoak onez artuaz, et-zuan egiten gaitzematete biderik.

Oregatik, bada, zurikarien gaizki-esanak et-ziran egitik, bide zuzen eta jatorretik sortuak, baizik biotz biuri, zital eta minuaren naikeri, zipozkeri ta ondoren bidegabeak.

Jesukristo gure Jaunak Berionean azaltzen digun artzaiak larogeta emeretzi ardi lañean utzi ta ardi galduaren bila joanaz, ¿zer adierazten digu?; ¿ardi galdu au beste larogeta emeretziak baño maiteago duala esan nai ote digu oreakin? Ez, au sinistu ta aitortzea irain egitea izango litzake bere ontasun eta zuzentasunari. Jesus'ek, bere ondotik eta adizkidetatik beñere aldegin gabe, leyalki jaraitzen dioten animak izango ditu befi bere biotzeko kutunenak. Ardura geiago era-

biltzen badu ere anima galdu ta pekatarien alde, samurtasun eta gozotasun eztiagoa eukiko du beti bere anima leyalentzat. Animai eman eta luzatzen dizkien laguntzak, ez dizkie bakoitzai dien maitasun neurian bialtzen, baizik bakoitzak daukan beartasunari begiratuaz. Jesus'ek berak aitortzen digu au argi asko itz eder auetan: «Ez ditu sendagileak osasun onez bizi danagan erabili ta eralkitzen bere lei ta ardura arretatsuak, baizik gaxorik daudenetan». Ardi galduaren bila ta bere atzetik badabil ere, ez ditu Jesukristo gure Jaunak begiz galtzen bere ondoan leyal dabiltzanak. Bere begiratua beti beren gain dabilki, ernai dago beren beara osatzeko ta barutian bakañik uzten baditu ere ardi galduaren bila joateko, janariz orniturik ta galbidetik uruti uzten ditu.

Baña goazen aurera. Gaurko Berioneko artzaia ardi galduaren atzetik, arkitu arteraño dabilela: *donec inueniat*, dio Beñionak.

Itz auetatik ateratzen degu artzaiak ez duala ardi galdua berealako batean arkitzen, baño onegatik ez du etsitzen, ez da atzeratzen, bere bila jaraitzen du mendirik mendi, basorik baso, egun batean eta bestean, aldapa ta bidetxioñetan zear, izerdi ta nekeai begiratu gabe, azkenean bera arkitzera eldu arteraño. Itz auek Kristo Jesus Artzai Onaren bizitzaren adiera egoki ta bilduma arigañi bat besterik ez dira. ¡Ainbat neke artu ta ibilaldi egin zuan izan ere pekatariak bide onera ekartzearen Belen'en estalpe zanean jaiozanetik zugatz lakañean zauri bat egiñik bere bizia gizonen alde eman zuan arteraño!

Jaio ta egun batzuetara beren lenengo odol tantoak ixuri zituan b̄ilebakia izan zanean; andik laister Ejipto'ra igesi bearean arkitu zan, sumin b̄iziaz bere b̄ila zebiltzan agintari gaiztoen eskuetan eroriko ez bazan; zerbait azi ta koxkortu zanean bere kopetako izerdiaz eta lanaren lanez irabazi bear izan zuan Nazaref'eko bere lantegian, aroztegian bere egunero-ko ogia; ageriko bizitza asi zuanean Palestina'n er̄izer̄i ibili zan bere mirari ta erakutsiak alde guztitan zabaltzen, baareatzen eta azkenez txistuz, arantzaz eta isekaz beterik egur latz batean b̄izia emanaz buru eman zion bere bizitza gurenari. Au guztia, neke ta ibilaldi guztiak, ardi galdua arkitu, pekataria arkitu ta bideratzearen egin zituan. ¿Zer derizkiozute N. E. M.? Ibilaldi auek guztiak gugatik, emen gaudenetako bakoitzagatik egin zituan. Beraz ¿ez al da bidezkoa gu bere mende ta agindupera etortzea? Ez al da bidezkoa pekatari ori, zoritxaerez Jesus'gandik igesi zabil-tzan ori, egizko pake ta zorionik ezin arkiturik Jesus'gandik ur̄uti zabil-tzan ori, ez alda bidezkoa zugatik ainbeste neke artu dituan Jesus Artzai Onaren lafe ta ba'rutira bein betiko etortzea? ¿Zeren bildur zera? ¿Gaizki ta asefe artuko zaituan bildur ote zera? ¡O ez, ez bildur izan, bere biotza gozotasuna, kupida, e'ruki bera, utsa da, begiratu besterik ez daukagu Je-sus'ek Be'ronean dionari bere biotz ba'ru ori zerbait nabaitu ta ezagutzeko.

Ardi galdua arkitzean, pozez sorbaldan artu ta etxeratzean adizkide ta auzokideai otsegiten die esa-naz: «Pozkida zaitezte arkitu det, bada, nere ardi galdua».

Auxen da Jesus'en Biotza pekatariatzat, onetarako etorri zan zerutik luñera ta bere poz eta zorion guztia pekataria arantza artetik, pekatu artetik atera ta bide zintzora ekartzea da. Onetarako, pekatariak kristau bide zintzora itzultzeko arkitzen duten zailtasun eta eragozpenik gaitzena, beren burutan kristau-bizitza zintzoakiko iruten duten irudipen ilun eta nekosoada. ¡Zenbat atzeratu dira, kristau bizitza onera etortzen asi ondoren, deabruak, gure animaren etsaiak zailtasun oiek gure burutan aunditu ta gure irudimeanean pustutzen ditualako!

Jainkoaren grazian eta adizkidetzan leyal eta iraunkor bizitzeko Jaunaren deia zuen baruan entzun eta somatzen dezuten kristauak, bizitza oretan bizi nairik, baña beingo batean ezin erabakirik zabilzaten kristauak, zeuen gaiztoz ez, baizik zabartasun eta utzikeriz kristau bizitza zintzotik aldeginda bizi zera tenak, ondo gogoan artu ta begiratu ezkerro, neke ta zailtasun auek ¿ez aldira zuen poz eta gozamenik berezienak izango, beren bidez zuen barungo araren pakea, zuen biotzaren egizko zorion eta alaitasun garaia ta zuen betiko bizitzaren sari bikaña irabazten dituzutelarik? Neke ta zailtasun auek, bada, ez dute lan utsa bakarrik, berekin dute gozamen eta zerutar egizko poza ere. Begira eta galdetu bestela len pekatuaren arantzetan mikazturik eta orain damutu ondoren kristau bizitza zintzoan bizi diranai. Bi aldeak ikusi dituzte, galbidea ta onbidea, gaiztakeriko ta zintzotasuneko bizitza, beraz galdetu zeñek ematen dituan ondoren obeak, zeñek zorion beteagoak, ta

guztiak ao batez erantzungo dizute etsaiaren katetan baño, Kristo'ren uztarpean bizitza egiaz zoriontsua-
goa dala. Asi, bada, zailtasun oiek azpiratzen, neke
oiei buru ematen eta asieran zail eta latzak zirala uste
zan kristau bizitzako lan oien bidez gure barungo
araren pake iraunkoia, gure egizko poz eta alaitasu-
na, lur onetako pake ta egizko gozamina ta betiko
bizitzaren itxaropen argia somatzen degunean, lengo
zailtasun eta laztasun aiek gure bizitzako eginkizunik
eztienak eta gogokoenak biurtuko zaizkigu.

Eta amaitzen da, gaurko Beñoneko zati au esa-
naz: Aundiagoa izango dala zeruan artzen dan poza
pekatari auetako bat bide onera biurtzen danean, laro-
geta emeretzi zintzo, damutu bearik ez dutenaz baño.

Onek adierazten digu beste ezer baño geiago,
zenbateko gogo ta naia daukaten zerutañak, ardi gal-
dua Artzai Onaren eskortara itzultzen ikusteko, Jesu-
kristo'gandik uruti bizi dan pekataria biotzez damutu-
rik Beragana biurtzen ikusteko. Zintzoak onean irauten
dutelako zerutañak daukaten poza, poz barea, irau-
koia, betea ta gora-berik gabea da, baña pekatutik
pekatura leizbeltzera (infernura) amildu bearean di-
joazen oietako bat Artzai onaren txistua, Artzai On-
aren deia bere biotzean entzunda barufiruntz, eskor-
taruntz, bide oneruntz asi ta Jainkoaren erukiaren
indañez garaile irten eta kristauzko bizitzan zintzo,
benaz eta sendo asten danean, orduan ez du neuririk
zeruetako zoriondegian jeikitzen dan pozaldiak, ezin
dezake aitatu gure mingañak zeruetan aingeru ta zori-

oneko guztiak Jainkoaren aurrean oiutzen duten eresi zoriontsuaren izpirik txikiena ere.

Zorua ta burugabea da, beraz, Artzai Ona dan Jesus'ek barkatuko ez dion bilduñez edo neke ala ardua pixka bat ez artzearen pekatuan iraun nai duan pekataria. Zerutaeren begiratuak bera bide onera etortzen ikusteko galez dauzkan ezkerro, utzi bitza pekatuko bide mikatz eta beazunez nastuak eta indar eta alegin onen ordañez, irabaziz, laister, emendik urte batzutara Artzai Onaren baruti zoriontsuan aingeru ta zoriondun guztien poz artean izango da betiko bizitzan.

Ala izan bedi.

Azalkundea (Epiphani)

Math. Don. II, 1-12.

Judaeñiko Bethlen'en Jesus jaio zanean, Herode eñegeren egunetan, oñra nun etoñi ziran Eguzki-aldetik Magoak, Eñege jakitunak Jerusalem'era esanaz: ¿Nun da jaio beñia dan judañen Eñegea? Aren izaña ikusi bait-degu eguteraan, eta jauresteañen gatzokio. Herode eñegea, au entzutean, izutu zan, bai Jerusalem osoa ere berakin. Eta apaiz nagusi ta eñiko idazlari guztiak batzañerazirik, jakin gogoz ziardukien Kristo nun jaiotzekoa ote zan. Eta aiek esan zioten: Juda'ko Bethlen'en, Igarleak oñela idatzita dago, bada: Eta zu, Bethlen, Juda'ko alderdi ori, et-zera noski ere txikiena Juda'ko auzoen artean, zuregandik sortuko bait-da, Israel nere eñia abaskatuko duan Aitzindaria. Orduan Herode'k, Magoak ixilean erakañita, arduraz aterazi zien, noizko agertu zitzaien izaña. Ta Bethlen'eruntz bideraturik, esan zien: Zoazte ta azkarki galde ezazute auñaren

berri; ta arkitutakoan jakinarazi zaidazute, neroni ere gur egitera joan natzaion. Aiek eregeari entzun ondoren, auñera abiatu ziran. Eta oña nun, eguterran ikusitako izaña, auñetik zijoakien, Auña zegoan toki gañeraño elduta gelditu zan arte. Izaña, beriz, ikusirik gogotik poztu ziran poztu ere. Ta etxean sartuaz, Auña bere Ama Maria'kin arkitu zuten eta auzpezturik jauretsi zuten: eta beren altxoñak irikitak, urte, luñña ta miña eskuera kutsizat eskeñi zizkioten. Eta ametsetan adieraziak izanik Herode'n-gana ez biurtzeko, beste bide batetik itzuli ziran beren erialdera.

Gertakunde oso arigarria iragartzen, aditzera ematen digu gaurko Berion Doneak. Gertari pozgariz inguraturik azaltzen zaigu Epifani edo Jaunaren azalkundea deritzaion mirari arigari au. Eguterako oskarbi urdiñean izar berri-berezi bat azaldu zala adieraziaz asitzen da, ta Eguterako iru Erege jakitunek (magoak) au ikustean Jerusalem'eruntz bidean jañi ziralak. Izar zoragarri onen agerkundea berogei gizaldiz auñetik iragarria zegoan Balaan igarlearen igarkizunetan eta idazti donetik ipuri ta eri-siniskai bezela bareatua zegoan sinisgabeen erialde guzietan.

Eri jakintzan txit trebeak ziran Eguterako iru Erege auek, zeru goiko izar aren dizdira berezi ura somatzean eta Jaunaren sinismen argiak ikututa, Balaan igarleak antxiñatik iragaritako Jakob'en izar bakan ura zala uste izan eta etsi zuten, eta izar ari-

gañi arek zuzentasunezko Eguzki beñiaren jaiotza adierazten zuala gogoratu ta sinisturik, bera gurtzera joateko gogamiñez, gañetan irazeki zituan. Bereala, bada, erausiai lekurik eman eta luzapenetan betarik galdu gabe, laisterka beren abiamenak eginda, ekin zioten bide luzeari itxaropenik bikañenaz.

Eguterako bizilagun guztiak ikusi ta añetaz begiratu zioten, noski, izar berezi-añigari ari, baña otz iraun zuten, et-ziran gañak arturik Aurtxo Eñegea ikusi ta gurtzera joateko jañi, iru Eñege jakitunak bezela.

Jainko gure Jaunak zeru goien urdiñean lerdentzen duan izar zoragari au, Eleizaren gurasoak diotenez, Jainkoak gure animari dizdiraz agertzen dion bere gogoa ta gure salbazio bidearen argitasuna da; ta iru Eñege jakitunak (magoak) beren erabaki ta ekiñaz, Jainkoaren deiari erantzuteko bear ditugun erak adierazten dizkigute.

Lendabizi iru Eñegeak izar beñi dizdiratsua ikusi ta aren adierazpena ezagutzean, bereala erabakiak artu ta bidean jartzen dira. Ora iru Eñegeak kristauoi ematen diguten ikasbide zintzoa Jaunaren deia, argitasuna gure biotzean somatzen degunerako. Jaunaren deiak bere une jakiñak ditu, *tempus stellæ*. Bere deia somatzean bereala gertu bear degu gure biotza, Jainko gure Jaunak guregandik zer nai duan ezagutzeko. Oregatik Idazti doneko itz eder aiekin berari esan dizaiokegu: *Loquere Domine quia audit servus tuus*. Itz egizu Jauna, esazu argiro neregandik zer nai dezun, ona emen zure oregiña, ta Jaunak bialduko digu bere argitasuna, agertuko digu

bere naia, ta bein ongi gure bidea ezagutzean, badakigu zer egin, iru Éregeak erakusten digute, bereala bideari ekin. *Ambulate dum lucem habetis*, dio Yon doneak. Ekin aurera zerutar argiak zuen bidea argitzen duan bitartean, bestela bildur izan zuen zorionaren argia galdu ta betiko ilunpetara daraman bidean geldituko ote zeraten, sinisgabe aiek izara ikusi zutenean gaizkapenerako bidera jo ta Jesus gurtutzera abiatu et-ziralako sinismenik gabeko ilunpetan gelditu ziran bezela. *Ambulate dum lucem habetis*. Aurera Jaunaren deia, argia dezuten bitartean eta bere laguntzak, bere eskuak et-zaituzte utziko, iru Éregeak Jesus Aurtxo Éregea'gana eldu arte utzi et-zituan bezela.

Bigarenez iru Éregeak jainkoaren gogo, deiari jaraitzearen, beren bizileku paketsua utzi ta bide luzeari ekin zioten, neguaren erdian neke ta arazo ura artuaz. Beren biotzentsat kutun eta miñenak ziranak utzi bear izan zituzten. Beren aberia, etxekoak, adizkideak, berentsat atsegiñen ziran guztiak bertanbera utzi zituzten Jaunaren deiari bereala erantzutearen.

Guri ere Jainko gure Jaunak bere deiaz, bere argitasunaz gure animaren gaizkapenaz, salbazioaz gañera, beste eginkizun aunditarako deitu gentzake, sinismenik gabeko ilunpetan lurbiraren ainbeste luraldetan bizi diran ainbat sinisgabeei Beñionaren argia ta beren animen gaizkapenaren bidea eramateko mixiolariari otsegin oi dien bezela, ta orelakorik gertatu ezkeroko gaurko iru Éregeak ematen digute aukerako ikaspidea. Orduan ez daukagu beste biderik, Jaunaren dei orek, argitasun orek gure biotza ikutzen badu

gure bizitza oso-osorik berari eskeñi beaŕean gaude. Gure abería, etxea, adizkide ta erosotasunak bein betiko utzitzeak naigabe gaŕatza ematen badigute ere, Jaunaren ardi galdu aiek bideratzen, zeruratzen dago gure gaizkapena ta zoriona ta bertara jo bear degu luŕeko lotura guztiak ausi ta etenda.

Jaunaren dei, argitasun auek ulerkaitzak dira benetan bere biotzean somatzen ez ditunarentzat, Egu-terako iru Eŕegeen inguruan bizi ziran aientzat, izar aŕigaŕi aren argitasuna ulerkaitza izan zan bezela.

Irugaŕenez, iru Eŕegeak eragozpen guztiak gaŕaituaz jaŕaitu zioten beren bideari. Eta et-ziran eragozpen makalak izan. Beren aberíko aundizki ta aldunen esamesak, beren etxetako otoi ta eskariak ta batez bat izaŕa galdu zutenean ere bulartsu auŕera egin eta Herodes'gana ausartasunez galdera aŕisku-tsua egitera joan bear ura. Onelaxe baita ere Jainkoaren deia ezagutu ta gizarteko poz eta erosotasunak utzi ta Jaunari bere bizitza osoa eskeintzera dijoanari azken unetan eragozpen mingaŕiak auŕean jaŕiko zaizkio saŕitan; bere lagun eta adizkideen esamesak, beren etzekoen naigabe ta oarák, bere orain arteko biziera utzibeaŕa ta guztiai betiko agur egin beaŕa ta auek guztiak eta beste gogorapen askok une bateko iluntasuna, naigabea, mindura latza sortuko diote bere baŕunean eta une ilun artan Jaunaren izaŕa, Jaunaren dei ta argitasuna estalita bezela geldituko zaio. Orduantxe eldu da bulaŕez, ausartasunez jokatzeke garaia. Begira iru Eŕege jakintsuak zer dagioten. Badijoaz ausartsu Herodes eŕegeagana ta Hero-

des éregearen bidez Jerusalem'go apaiz eta jakintsuai galdetuaz Judea'ko Érege jaio beria nun jaiotzekoa dan garbi jakitera. Auxen da Jainkoaren seme kuttun-berezi oren bidea. Jo ilunaldi onetan aitorlariagana, azaldu bere neke ta iluntasuna, ta arkitu ta iritxiko du bere lañi aien baretasun eta ayenapena.

Eguterako iru Éregeak, Herodes'ganatzen dira galdetuaz: ¿Nun da judearen Érege jaioberia? Eta Herodes éregea au entzutean ikaratzen da. Ta Jerusalem'go apaiz nagusi ta jakintsuai galdeturik, erantzun au artzen du: Juda'ko Belen'en, igarleak onelaxe idatzia dauka, bada: «Eta i Belen, Juda'ko eria, ez aiz txikarrena Judako uri nagusien artean, iregandik irtengodek, bada, Israel nere aberiko Jaun agintaria». Orduan Herodes'ek Eguterako Éregeai ixilean deituaz, arduraz galdetu zien, izaña zer garaitan azaldu zitzaien eta abar; gero Belen'eruntz bideratuaz esan zien: «Zoazte, aurarekiko beriak aretaz jakin itzazute; ta arkitzen dezutenean jakinerazi zaidazute, neu ere joan nadin bera gurtutzera, jaurestera».

Herodes gaiztoak itz auek esanañen, et-zan orela mintzatu, iru Éregeen antzera Jesus gurtutzeko leiaz irazekirik zegoalako, bere asmoak oso besteak ziran. Gero azaldu zituan iru Éregeak beste bidetik iges egin eta aurtxo Jesus ezin arkitu zezakela etsi zuanean, Belen inguruan arkitu zitezken bi urtetik berako aur guztiak iltzeko agindu zuanean.

Eguterako iru Érege jakintsuak (magoak) Herodes éregearen esanak entzun ondoren, Belen'eruntz jaraitu zuten. Eta len Eguteran ikusi zuten izar uraxe,

oía nun dijoan beíro beren auérik, auía zegoan leku gañera eldu ta bertan gelditu arteraño. Ta aiek izaía ikusi zutenean izugañizko pozez poztu ziran. Oía Jainkoaren deiari leyal, bikain eta garaipenez jaíaitzen diotenai beren neke, estuasun eta eragozpen aundien ondoren etortzen zaiena. Berak ez dute atzera egin, beren gogoa ez da otzitu Jaunaren deia, argitasuna beren begien auérik estali, lañoperatu danean, baña beíz argiro dei ori, argitasun ori ikustean pozez zoratzen dira, pozak gañez eragiten die ta ez luteke lur-bira guztiko poz eta gozamen guztien orde zorion ura emango, Jaunaren eta befiko osasunaren bidea, Kristo Éregeagana eramango dituan bide loratsua arkitu dutelako.

Iru Éregeak, bada, beren moíoitalde ta mirabetaldeakin auíera dijoaz izaíari jaíaituaz estalperaño, ta barnera sartuaz, Auía, Jose ta Maria'ren erdian idorotzen, arkitzen dute. Ta dio Beíionak: *Et procedentes adoraverunt eum*. Eta bere auíean belaunikaturik gurtu, jauretsi zuten. Begira dizaiogun unetxo batean, Eguterako iru Érege jakintsuen zorionezko elduera oni. Oía, beren naia eskuratu dute, beren asmoa bete da. Eldu dira, badijoaz estalpetxoaren barnera. An dakuste Andre Mari guztiz garbia ta Jose zintzoaren erdian Aurtxo Jesus askatxoan etzana ta oyaletan bil-bil egiñik. Bera ikustean, noski, oso osorik bete ziran Idazti doneko itz aiek: *Virtus de illo exibat*. Zerutar indaía zetorkien beragandik. Len izar beí-zoragaía dizdirazi zuan zeru goietan, orain bere barundik birbiratzen dien argitasun eta donetasun ga-

raiaz bere maitasun gaíetan irazekitzen ditu. Estalpe ilun eta bakaíean arkitzen dute, baña ez dio ajolik, sinismenaren argiaz ongi dakite bere eskuaren almenaz eguzkiaren argia piztu ta miloika aingeru sortu zituala, estalpe zaíakatu, soil, muíitzean erdi bilutsik dakuste, baña ala ere sendo ezagutzen dute Beragan, zeru goiak izaíez ornitu ta luía ezetasunez suspertu ta lorez apaindu zuana dala, beartsu ta eíukaíi ikusten dute ta ala ere bere eskuaren aberastasun oparoa ezagutu ta jaun guztien Jaun, eíegean Eíege ta Jainko ílezkor aitortzen dute. *Et procidentes adoraverunt eum.* Eta belaunikatuaz, belaunak luíean ezaíaz eta auzpezturik gurtzen, goratzen dute Aurtxo Jainkoa beren Jaun eta Eíege goren bezela ezagutu ta aitorturik. *Et apertis thesauris suis obtulerunt ei munera, aurum, thus et myrram.* Eta beren kutxatílak irikita opari, eskuerakutsi bikañak, uréa, intzentsua ta miía eskeintzen dizkiote. Ona emen N. E. M. luíaren gañeko Kristo gure Jaunaren lenengo eleiza. Ona emen aldareko ari gañean Kristo Eíege, Andre Mari ta Jose doneaz inguraturik, ona emen bere auíean auzpezturik Eguterako iru Eíege, Kristoren sinismenera biurtuak, ona emen baita ere beren moíoiak eta mirabeak ganbelu, zaldi ta abereak beren inguruan dituztela belaunikaturik, eta guztiak aberatsak eta beartsuak, nagusiak eta moíoiak eta abereak ere Aurtxo Jesus gurtutzen, ta bera betiko Eíege ta Jainko ílezkor bezela ezagutu, aitortu ta zorionezko oyuz eta pozezko aintzaldiz goratzen. Eta opari aberatsak, eskuerakutsi bikañak, uréa, intzentsua ta miía eskein-

tzen dizkiote. Urea, Eregetzat ezagutu ta aitorturik. Gaur egunean ere Erege ta aberien buru diranai zerga edo kontribuzioa ordaintzen zaie ta zerga au beren mendeko bezela zor dioten maitasun eta leialtasunaren agergaria da.

Intzentsua Jainkoari eleizetan eskeintzen zaion lurun gozo-usaitsua da, ta iru Erege jakintsuak intzentsua eskeintzean Aurtxo Jesus beren Jainkotzat ezagutu ta bere jainkotasuna gurtu ta goratzen dute.

Azkenez mira, usai gozoa, gantsuki, ukendu atsegiña da ta gorputzak luzaroan usteldu gabe iraunazteko da. Beraren bidez iru Eregeak erakusten digute Aurtxo Jesus, Jaun iraunkor eta betikoa dala, Erege ta Jainko betikoa, ta alatzat gurtutzen dute guri ikasbide arigaria utziaz.

Goazen bada gu ere jaierarik gartsuenaz Aurtxo Jainko ta gizaldi guztietako Erege bikain onen onetara. *Venite adoremus Dominum et procidamus ante Deum*, belaunikatu gaitezen bere aurrean, *ploremus coram Domino qui fecit nos*, otoitz dagiogun gure Jaun eta gure egile dan ori, *quia ipse est Dominus Deus noster*, bera da, bada, gure Jaun Nagusi ta gure guztia, *nos autem populus ejus et oves pascuæ ejus*, gu, beriz, bere eri ta bere mendekoak, bere artaldeko semeak. Gurtu ta goratu dezagun biotz-biotzez, zabaldu dezagun lurrean jaieraz bere aginpidea ta bere Eleiza Ama Donea, lurreko erialde guztiak bere Jaun eta bere Eregetzat ezagutzera eldu ditezen eta bere lege donetan biziaz gizadi guztiko semeak egun batean bere betiko eregetzapean zoriontsu izatera eldu gaitezen.

Ala izan bedi.

Andre Mari'ren Sorkunde Erugabea

«Tota pulchra es, amica mea et macula non est in te».

Gutziz edera zera, ene maite ori, ta matxurik ez da zuregan.

Oyudien oyuketan, 4 buru ta 7 esaldian

Asirio'ta'ren gudaritalde aundi batek Betuli uria inguratua zeukan bitartean, bertako gudari ba'unda-riak uriko a'eresitatik, gauez zelatan zeudela, emakume baten pozkariozko oyu bat entzun zuten, auxe zesaie-la: *Iriki atearak, Jauna gure alde degu-ta; oraintxe bertan egin du bere esku zegon egintza a'riga'ria.* Judit andre bika'ña zan, asirio'ta'ren gudari nagusi Holopernes'i, gauez lotan zegoala, burua moztu ondo-ren, bere e'riaren azkatasunari sendo eutsi-erazteko e'rita'arak kementzera zeto'rena. Ots au entzutean, gu-dariak laisterka joan ziran beraganuntz, eta atea iriki ta zo'roan zeka'ren Holopernes, asirio'ta'ren gudari na-gusiaren buru moztua ikusi zutenean, pozaren pozez Betuli e'ria esnatu zuten ta bereala alaitasunak e'rian

estanda egin zuan; eriak beñi au jakitean bereala jeiki ta zuzi piztuak eskuan zituztela bere ingurura gorta gora santzoka bildu ziran eta azkatzale bikain onek eñi guztia bere inguruan ikustean, leku goi batera igorrik, eñiari ixilaldi bat eskatu zion eta gero asiritoren gudalburu bildurgañiaren buru moztua jasoaz deardarka esan zuan: *Gora zazute Jainkoa, bere erukizko agindua nigan bete dualako ta bere eñiaren etsaia gau onetan zukutu dualako.* Eta bereala, bere buaruaren itzal eta eratasuna, bere garaipena baño ere gorago jartzen zuala eñiaren aurrean azaltzeko, Jainko berbera gañeko, testigu, zinaidari jañirik onela jañaitu zuan: Jaunak daki egitan, bere aingeruak lagundu didala nere joaneran, nere egoneran eta itzuleran eta ez dula nai izan, bere mirabeak gaiztoengandik bere animan malurik, matxurik artzerik, baizikan pekatuaren kutsurik gabe ta garbi zuekana biurtu naula. Au esatean pozaren pozez malko gozoak zerizkiola totelik, itzik gabe gelditu zan, eta orduan guztiak jeupadaka, zantzoka zioten: Jaunak lagundu dizu bere almenaz ta gure etsaiak zure bitartez auts egin eta utzeratu ditu.

Goizaldean, Holopernes gudalburu gaiztoa ila izan zala jakin zutenean eta gudaritaldeak ikaraz beterik igesari eman zionean, apaiz-nagusia Judit'gana etoñirik, onetsi zuan esanaz: «*Tu gloria Jerusalem, Tu letitia Israel, Tu honorificentia populi nostri.* Zu zera Jerusalem'go lairona, aintza (gloria); Zu Israel'go pozgañia, alaitasuna; Zu gure eñiaren izen, omen, edergañi, apainduria». Eta guztiak goraka alaiz irintzi zegioten eta egun zoriontsu ura jai egin zuten,

eta bai geroenean ere urteoro gizaldi ta gizalditan, etxe ta karrikak apaindu ta enparantzetan eresi gozoak, andre azkatzale bikain aren izenean, aizeratuaz.

Onen antzera ta oraindik areago ta alaiago azaltzen zaigu baita ere urteoro, Eleiza Ama Donea Gabonila'ren 8'an, Andre Mari guztiz garbia ta andre guztien artean onetsia dan Andre berdingabearen egun gogoangari onetan. Eta katoliko guztiok eta batez ere Andre Mari'ren seme ta alaba zintzoak izaten leytzen geran guztiok, egun zerutar bat igarotzen degu gure Ama Erugabearen edertasunak gogoratu ta entzunaz, gure lore ta argi ta otoitz irazekiak gure biotzgunaren sakonetik eskeñiaz; eta gure begiak lu'eko beazunetatik gora jasota, Andre Mari'ren irudi garbi-berdingabearen jartzean, liluraturik bezela biotzetik ezpañetara itz egoki-gozatsu auek datozkigu: *Ederedeña zera Maria, ta maluraren izpirik ez da zuregan.*

Ez nuke nik zuen begirada gozo ori nere itz epelen bidez lausotu nai ta oregatik nere gaurko alegiña gure Ama Erugabeari geldi ta gozaro begira igarotzea izango da, aoa ezti gozoaz bezela, biotza bere edertasun malurik gabeaz ase arteraño.

¡O, Andre garbi-garbia! ¡Elur beñiaren zuritiesuna baño gardenagoko jantzi ikusgariz apaindurik sortu ziñan lore bakana! Eda, zabal itzazu guganaño zure edermen eta gozamen ezti oien usai gozoak, zure zerutar poz eta zorionaz liluraturik, beti zure inguruan eta zu maitatzen lur onetan bizi gaitezen.

Agur Maria.

«Tota pulchra es, amica mea et macula non est in te».

Guxtiz edera zera, ene maite ori,
ta matxurik ez da zuregan.

Oyudien oyuketan, 4 buru ta 7 esaldian.

Guztiok katoliko bezela sendo sinistu ta aitortzen degu Eleiza Ama Doneak, bere Aitzindariaren, Buruaren bidez eta ezin utsegin dezaken Jesukristo'ren Ordezkoaren bidez, sinismeneko egia bezela erakusten digulako, Andre Mari Birjiña bere sorkundeko lenengo unetik jatorizko ogenaren (pekatuaren) betañik gabe sortu zala, Jainkoaren berarizko laguntz eta goiargi berezi baten bitartez.

Jainko Beraren bizileku zoragarria izateko aukeratu izanik eta bere odol eta aragiz Jainkoa elikatuko zuan Ama izan beñik, Jainkoak Andre Mari'gan luñeko beste izaki guztitan zatika ixuri zituan edertasun eta sofiltasun bakanak berariz bildu zituan; eta luñeko ertilari aipatu batek iduri eder bat, berak uste baño ere edera goa ertetzen zaionean, bere bañuan, bere artean eziñ egonik, beste jakinlariai bere añitasun ura erakustera joaten dan bezela, Jainko gure Jaunak ere bere Ama Erugabearen berdingabeko edertasunak, Idazti Donean zatika-zatika azaltzen joan zan gizaldi ta gizaldiz auñetik, bere añigarizko edertasuna ezagutzen joan gindezen.

Iruraren erdian arantzaz inguraturik dagon lili eldu beña, udabeñiko eguzkiaren pozkario legunaz txuri-txuri irikitzen dan bezela, onelaxe edatuko da

nere Ama ere liluramen bereziz, gizonen soñera inguratzen duan, pekatuzko arantza artean. «*Sicut lili-um inter spinas, sic amica mea inter filias*. Mendi gurenen erpiñeruntz begiak jasotzen ditugunean, zeruen urdiña ikutu beaŕean eluñez txuri-txuri lerdenki goratzen dan galur artatik begiak ezin alderazirik egoten gera. Onen garbi ta txukun izango da, sortuko da nere Ama ere, bere oyal erugabeanean litz izpirik ez duala. «*Gloria libani data est ei*». ¿Ikusi alde zute bein edo bein iturri bizi-gardena, bere ur ikutugabetan zelai ta liliak ditziramenez azaltzen dirala? Andre Mari'ren animari onelaxe begiratzea zait, bada, nere gogoko, dio Jainkoak.

Eta gero Oyudien Oyuketan bere Ama'ren animako edertasun zoragarriak begien aurrean jartzen dizkigu, Beraren mintzaira, egintz eta ibilguneak poz dagiotela azalduaz. ¡Ain ezti, eder eta gogoko zaio izan ere Berari! Onegatik dio Idazti Donean: «*Zure abotsa entzun bedi nere belaritan, zure itza gozorenik gozorena bait-zait*». Eta andik pizka batera beñiro dio: *Galartzu goñi-goñia bezelakoak zure ezpañak eta zure izketa atsegiña ezin areago, eztia ta esnea zure mingain azpian*. Bere begiratuakin biotza pilpiraz jartzen zaio ta bere begiak Beragandik bereiz ditzala eskatzen dio, bere baitatik, bere barundik erten ez dedin. Bere ibilguneak ere Oyudien Idazti Donean auxe esatera darama ¡O, edeñak bai (dirana) zure oñen azteñenak, eregeren alaba! Azkenez bere Amaren loak ere ainbesteraño biotz ikutzen du ta Jerusalem'go alabai eskatzen die ez dezatela esnatu bera loz ase arteraño.

Jaunaren itz auek txukunki adierazten digute biotza eramaten diola ez bakañik Andre Maria'ren goiargizko, grazizko edertasunak, baita bere soin, egintz eta izaera guztira zabaltzen zaion barungo sofiltasunaren eñañu gozoak ere. Eta onegatik Jaungoiko gure Jaunak betikotasun, guztitik Andre Mari Birjina'ren anima ederean atsedean arturik, gozamen beteaz ete liluramenez dio: *Tota pulchra es Maria et macula originalis non est in te*. Eder-edeña zera Maria ta jatorizko matxurik ez da zuregan.

O, N. E. M. ¿ez algera gu ere luñeko losentxa bidegabeak baztertuta, Jainko bera maitasunez erremintzen duan eta gure biotza ere betetzen duan egizko edertasun onen zale izango? «*Vulnerasti cor meum, soror mea sponsa*».

Ez da bakañik, ordea, azaltzen Andre Mari'ren edertasuna bere grazizko osotasunean; onez gañera bere Erugabe'ko Sorkundea berezko almenez bezela beste bereiztasun (privilegio) bakan batez jantzi ta ornitu zuan, au da, griña makur guztien estenkada ta ziztadetatik alde gelditzea. Kristau leyalak beren gogogabe, jatorizko ogenaren eruz datozkien griña gaiztoen zirikada ta eragiñak atzerazi ta menderatzeko, egiten dituzten alegiñak, Jainkoaren begitan ain atsegiñak badira, zenbat are pozgañiago izango ote zan Jainkoaren biotzean Andre Mari'ren animan griña gaizto auen kutsurik, aztañenik eza ikustean, eta bere barungo zintzotasun osoa, lauso bildurik gabe, zearoko lo gozoan eta baretasunean ikustean.

Onelako edertasun osoak, zoragañiak, garbitasun eta donetasunaren Betiko Maitalea ezfitan ba-

zeukan ere, bazan beste bat, bazan mamu beltz, iraun-
suge zatar, itsusi bat bere malura gabeko edertasunak
ilenti bizia baño goñoto, sumin, irakin goñiagoan eta
kizkalgañiagoan jartzen, irazekitzen zuana.

Luzbel, aingeru año-erori onek ezin eraman izan
zuan beste gizon guztiak jatoriz zekarten zorik gabe
emakume bat, Jaunaren egite bereziz, sortzea, ta one-
gatik Andre Mari'ren Sorkunde'ko unean zelatatu
zuan makur asko, goizeko izaña baño distiratsuago
erten bear zuan bere anima graziz eta goiargiz bete-
ari beñar loiaren kirats naskagaña egotzi naian, baña
bere garaipenik maltzuñena iritxi bear zuala uste zuan
une artantxe, iruntzi bear izan zuan laidorik gañatze-
na, iguingañiena, Birjiña baten oin azpian bere kaska-
ezur aña zanpatu, puñukatu ta menderatua ikusirik,
eta bere goñoto goñian eta ezin etsirik biuritu ta iraul-
katu bazan ere bere lerre zikiña Andre Mari'ren oin
garbian egotzi nairik, an gelditu bear izan zuan An-
dre Mari eder, zoragañi ta goiargiz betearen oin azpian
zapaldu, lertu ta zukutua.

Et-zuan etsi, ordea, ala ere zearo iraunsuge gaiz-
toak, eta Andre Mari'ri bere kirats loa egotzi ezi-
ñik, beraren jañaleai esesten ekin zion eta gaur ere
bekaizkeririk beltzenaz jañaitzen dio. Eta au bai dala
negargaña N. E. M.. Lurbira zabalean ainbeste ta
ainbeste dakartzki gezuñetan bere sare maltzuñetara
eskeintzarik labañenak, aizkuretsuenak egiñaz eta ara-
zo galdu onetan bere irikitasunik aundiena, batez ere
gaztediaren ondamenean jaña dauka.

Baratz eta loretegi naro batean basaurde gosetia sartzen danean, zugatz aundiak albo batera utzita landare gazte ezeak ozkatu ta triskilatzen dituan bezela, iraunsuge ikaragarri orek ere griña ta itxumen bizian esesten die aur erugabe ta gazteai, beren ezetasuna galdu ta loitu nairik.

Oregatik umeak eta gazteak batez ere ta gazteak ezezik urtetan auferatuak eta zarak ere, aretaz eta arduraz bizi bear degu, etsai beltz maltzur orek eder antzean guregana lurreko loxentxakin etoririk bere atzapar beltz-itxusia egotzi ez daigun. Or daude oretarako Maria'ren Alaba'en eta Luis'taren gaztedi ederbikañak, or daude Jesus'en Biotza'ren eta beste anaidi done egokiak, Jainko gure Jaunak bere samurtasunean eskuratu dizkigunak, sartu gaitezen aietan eta bete ditzagun beren arau ta aginduak, batez ere ileroko jaunartze pozgarria, beraren bidez gure biotz eta animako indarrok beritu, suspertu ta Jainkoaganantz eraman gaitzaten eta bere laguntzarekin gure bizitzako loiak eta akatsak garbitu ta bere adizkidetza berdingabeen bizi gaitezen.

¡Zenbat aldiz, Ama, jai goiz zoriontsutan zure Seme Jesus gure biotzean artuta, zerutar pozez bare, paketsu, guztiz gozo ta zorionez gure izate guztia degula, biotza uratu bearean zure onetatik aldegin bear izan degu, gizarteko zorion garatz eta atsegin beazuntsutan beriro jausteko bildurez! ¡Au da, Ama, gure izaera erbesteko ibar itun onetan! Oregatik, Ama, itzuli itzazu gugana zure begi erukitsu oiek eta lagun egiguzu lur onetako gure bear eta estuasunetan, zure

seme Jainko oren bide osasuntsuetan gure bizitzan eta eriotzan zintzo iraun dezagun.

Au eskatzen dizugu zure Sorkunde Beñargabearen omenez bederatziurén au egitera zure oñetan bildu geran guztiok azkeneko egun onetan, azkeneko agur-aldi naigabetsu au amaitu baño len, bañun-bañundiko otoitz gartsu batez.

Zaitu gaitzazu, Ama, zure jargoi diztiratsu oretatik gure bizitzako une guztitan gure biotzak zure jai-eraz irazekirik bizi ditezen, zaitu itzazu gure aurak beren begietako mintza garbia uratu gabe ta beren griña makuak lo gozo-paketsuan luzaro iraun dezaten zine ta birau ta galbideko lekuetatik urutiraturik; zaitu, Ama, gure gazte bikañak beren ileroko jaunartzea egiñaz, beren bulañak sendo ta bekokiak egizko zorionez zutik dituztela, Eleizaren eta gizatasunaren bidetan jaraitu dezaten eta gizon osoak eta kristau bikañak izan ditezen; zaitu itzazu, Ama, zure alaba maiteak, egun auetan loretegitik loretegira lore berri ikusgarrienak biltzen, zure jargoi diztiratsu ori apaintzen eta abesti ta oyu eztiak abesten aratsalde oso ta ordu ugariak zure leyaltasun eta jaiiraz igaro dituztenak, zaitu itzazu zure maitasunez beren biotzak donetu ta zure antzeko lore garbiak izanaz iraun dezaten; zaitu itzazu auzotegi onetako etxeoandreak, andre guztien artean onetsia, bedeinkatua zeran Ama Etxekoandre Done orek, berak argi diztikoñak jarri dizkitzute zure oñetan, beren alabak jaso ta apaindu dituzten jargoi loretsu orek oraindik areago diztiratu dezan, eta zuk ordañez argi egizu beren etxe ta sen-

dietan zure argitasun eta maitasunezko erañupe gozoan zintzo ta paketsu guztiak bizi ditezen; zaitu itzazu, azkenez, gure jaunak, gure aurreko jaun euskaldun sinismen aundiko aien ondorengoak diran jaun agurgari auek eta egizu beren biotz eta bularetan sinismenak beren aurretakotan bezin sendo iraun dezala, ta itsaso kaskañak oruka arkaitza jotzean, apañak goigoraño igo arien, arkaitzak zutik eta bere lekuan geldi ta tinko irauten duan bezela, gure biotz eta bularetan ere sinismenak sendo iraun dezala etsaien eraso guztien aurrean, zure Seme Jesus'en lege ta egiazko bideetan lur onetan bizi ondoren, egundo amaituko ez dan egun argi, zoriontsu artan zure arpegi edeña ta zure sabeleko seme onetsi Jesus ikusteko zorion betea izan dezagun.

Ala izan bedi.

Ama Beŕargea

Qui me invenerit inveniet vitam et hauriet salutem a Domino.

Ni arkitzen naunak bizia arkituko du ta Jaunagandik osasuna artuko du.

Idazti-Donean. Esaeretako liburuan VIII buruan, 35 esaldian.

Andre Mari sortzez garbiaren jai egun au, Eleiza Ama Doneak Andre Mari'ren izenean egiten dituan jaietatik goien-goienekoa da. Bere erurik gabeko sortzearen mirari au Andre Mari'ren gorapenerako jaiduratzen diran jai guztien jatorri ta asiera da. Oregatik Eleiza Ama Doneak guztioi dei egiten digu pozaren pozez, jai egun eder au egitera, Andre Mari'ri baka'rik iritxia izan zitzaion Sorkunde Garbi'ko bereiztasun bakan-bakan au ongi ezaguturik, geiago ta geiago maita dezagun Jainkoaren eta gure zerutar Ama.

Arduratu gaitezen, bada, donetasunez begiraturik Andre Mari'ren edertasun au ezagutzen, jainkoz-

ko ezkontideak urango itz auetan ainbesteraño goratzen duan gure zerutar Amaren edertasuna: *Tota pulchra es, amica mea, et macula non est in te*. Ederedeña zera, ene adizkide ori, ta matxurik ez da zuregan.

Ikusi dezagun zabal mirari au, aritasunezko amildegia sakon onetatik ateratzeko gure adimenarentzat argitasun izpi berri bat, baña oretarako belaunikatu gaitezen lendabizi Andre Mari berberaren onetan bere laguntza berezia eskaturik, goi-aingeru Gabirel'en etoñi goitañaz agur egiñaz: Agur Maria.

Qui me invenerit inveniet vitam et hauriet salutem a Domino.

Ni arkitzen naunak bizia arkituko du ta Jaunagandik osasuna artuko du.

Idazti Donean. Esaeretako liburuan VIII buruan, 35 esaldian.

Andre Mari'ren Sorkunde Garbi'ko bereiztasun bikain au ongi ulertzeko bear-beaña da lendabizi jatoñizko obena guretzat zer izan zan jakitera eldutzea.

Gaur egunean ez dago gizona luñean Jainko gure Jaunak asieran egin zuan bere artan. Jainko gure Jaunak gizona oso-osorik egin zuan bere izatazunean, soiña bost zentzun bidez egokiturik eta anima adimen eta gogo azkatuaz orniturik.

Onela eratutako gizona, luñeko izakirik bikañena zan, Jainko antzarik geiena zuana. Jainkoak* Adan lenengo gizona egitean, gizadiaren jatoñi-buru egin zu-

an eta aintzakotzat arturik beraren on utsez grazia, goi-argia egotzi zion, bere izakitazunari gañez eragiten zion malara bere izaera ura jasoaz, eta onez gañera gizonari berez et-zegozkion beste bi esker txit bakan eman zizkion, ezagueraren aldetik gorputzeko zentzunetan aginpide ta mendetza osoa ta gorputzaren aldetik ilezkoia izatea, alegia.

Gorputz eta animaz onela eratutako gizonak bere griña ta zaletasunak berekin zituan, baña griña ta zaletasun aiek egoera zoriontsu artan zuzen eta otzanak ziran; et-ziran egundano ezagueraren aurka jeikitzen, ezta gogo zintzoaren aginduai ere, et-zien gogorik egiten. Itz batean gizona gaitzak jo gabe zegoalarik, bere joerak, jaidurak zuzen eta jainkoaganakoak ziran, eta bere gogoa Jainkoanakin bide berekoa izanik bere zentzun eta griñak zearo bere esku ta otzan-otzan zeuzkan. Onela, bada, gizona Jainkoarekin ta bere buruarekin pake eder osoan biziaz, gizona ezerean lañi, kezka ta estuasunik gabe etengabeko barealdi zoriontsuan bizi zan.

Geiago oraindik. Jainkoaren esker bereziz gure lenengo aitak zeukan zoriontza au, bere jatoriko seme ta gizadi guztiari itsasteko ahala eman zion, eta onela belaunez-belaun zetozkikeon seme guztiak sorkundeko unean bere soñarekin batean Jaunaren grazi, goi-argi ta doai auek artuko zituzten.

Baña gure lenengo buru ta guraso Adan jatorizko obenean, pekatuan erori zan eta lengo zuzentasun au guztia goikoz bera aldatu zan. Bere galdukeri onekin goi-argizko bizitza goitara itzaldtu zitzaion eta beste

doai arigariak galdu zituan eta bizitza soil-soilaz gelditu zan.

Onegatik, bada, Jaunak esker bereziz eman zion goi-argizko bizitza galdu zualako, ezin ondorengoai iragazi zezaiekean eta bere semeak bestela izango zuten jatorizko goi-argi ta zuzentasunik ezin izan zezaketen eta onela guztiak sortzen diralarik, ez dira beren sorkundean Jainkoaren seme artuak eta bere begitan eder eta atsegiñak, baizik seme gorotagañi ta ilkoñak. Oñ or jatorizko pekatua zer dan.

Au berau gertabide batez argitu diteke. Jo dezagun eñege altsu batek, bere mendeko bati dion adizkidetasunak eramanda aberiko izen goi, atalgo bat eta luñalde aberatsak ematen dizkiola, bera lasai bizi ta bere semeai ondorentzat utzitzeko. Zaldun au, ordea, gerora eñege ain on eta eskuzabal onen aurka jeikitzen da bera eñegetzako apairutik jaurti nairik, eta onetan dabilela, ari dala eñegek azpiratu ta menderatzen du. ¿Zer gertatzen da orduan? Eñegek kentzen dizkio len ain biotz onez emandako izengoi eta aberastasunak. Semeak ere, noski, onegatik ezin berenganatuko dituzte eñegeren ongina utsez izan zituzten aberastasun aiek eta bere aitaren zorigaitzean eroriak geldituko dira eñegeren auran. Auxe bera da, bada, gertatu zitzai-guna Adan'en pekatuarekin. Adan'ek bere okerkeriaz grazia, goi-argia galdurik, beretzat eta bere ondorengoentzat Jainkoaren seme artua zanaren izengoia galdu zuan eta ondorengo guztiok Adan'en jatoritik jaiorik zerutar grazirik, goi-argirik gabe, zeruaren etsai eta pekatari gerala sortzen gera.

Baña Jainkoak bere eruki azkengabeen gizona-
rentzat kupida izan zuan eta bere naigabearen erdian
argi bat, itxaropen bat piztu nai izan zigun, sube
maltzurari erabat itz auekaz bere asarea erakutsirik:
*Inimicitias ponam inter te et mulierem, ipsa conteret
caput tuum.* Zure ta emakumearen artean etsai-bidea,
auzia sortuko det, berak zure kazka-ezura purukatuko
du ta zuk eziñaren eziñez bere oñazpia lerdekatuko
dezu; itz auekin, Andre Mari'k etsaiaren buru mal-
tzura zanpatu ta menperatuaz egun batean iritxiko
zuan garaipen zoriongaria iragarri ta adierazi zigun.

Egunak, urteak eta gizaldiak joan eta etori, eldu
zan noizbatean mirari argitsu onen gertaune zorion-
tsua ere. Begira dezagun Andre Mari'ren Erugabeko
Sorkundearen lenengo liparño, une done artara. Iru-
tasun donearen esku agurgarrietatik Andre Mari'ren
anima goi-argiz jantzi ta orniturik jeixten da bere
gorputzarekin bat egitera. Une zoragaria. Etsaia aur-
eratzen danean bere lerde likitsa egotzitzera, Jaunak
atzera eragiten dio ta anima lerdin-zoriontsua dizdi-
ratsu sartzen da Andre Mari'ren soñean, eguzkiaren
argi-izpiak itsaso garden-urdiñaren sabelean idargitsu
sartzen diran bezela. Adan'en jatoritik guztiok dakar-
gun erua ez du kutsutu Espiritu Donearen jauregi
ura, ez du goñiak jo lorategi ikusgarri ura, ez du aretu
ituñi garden-dizdiratsu ura, ez du ikutu ta zimeldu
elura baño garbi ta zuriagoko lili eder ura. Etortze-
koa dan Jesukristo gure Jaunaren aunditasunaren be-
giramen eta itzalez, Jainko gure Jaunak esker bakan-
berezi-bereziz jatorizko erurik gabe sortzen du. Une

zoriontsu artan goi-argizko ikara gozoak bizikortu zuten, Jainkozko argi pařazta biziak dizdirazi zioten, zerutar margo sořilez apaindu zan. Berebiziko une zoriontsua, lenengo gurasoen erorialdi negargaři ar-tandik ikusi et-zan alakoa.

Une artan bertan Jainko gure Jaunak onbidez eta zerutar edertasun amaigabez pitxitu, liraindu ta aberastu zuan Maria'ren anima. Begira zenbat diran zeru goietako izařak, itxas ondartzatako ondar aleak, udabeřian baso, oyan eta zugaztitan dauden ořitxoak eta lorategitako lore-landareak; guztiak batean alkar-turik ere ez dira ezer Jainko gure Jaunak Andre Ma-ri'ren animara ixuri zituan atergabeko goi-argi, on-bide ta goitar argi-pitxi pařazta ikusgařien aldean. Onegatik Idazti Doneak bere lenengo uneko doneta-tasun bikain-bikain ura itz bitan bildumatu ta guztion begi auřean trinko ezaři nairik labur eta mamitsu dio: *Fundamenta ejus in montibus sanctis*. Bere oñařia, bere asiera donetasunezko mendi gaiņetan ezaři zuan, bere lenengo uneko, bere asierako, bere Sorkunde Garbiko donetasuna luřeko done ařigaři ta zeruko aingeru, goi-aingeru, serapin eta mařa guzitako ain-geruen eta goitasunen erpin-erpiņean ezaři zuala, alegia.

Bikaña izan bazan donetasunez Andre Mari'ren Sořera, et-zan noski makalagoa izan Andre Mari'k bere bizitzan eramán zuan goi-argizko auřerapena. On-gi jakiņik lur onetan zeukan eginkizunaren beři, unetik unera goruntz eta goruntz joan zan donetasun bidean Jainkoaren Amari zegokion goitasunera eldu arteraño.

Ora bada, apur bat ikusi, eguna uratzean eguzkiaren lenengo argi txirinta zurizkak odei ilunen irikitutik agertzean bezelaxe, eguerdiko eguzki dizdiratsua baño argiago dan gure Ama Andre Mari'ren Sorkunde Garbi'ko edertasun berdingabea.

Bere antzekoak izatea da gure bearkizun nagusia. Agertu gaitezen, bada, alde guzitan garbiak eta goragañiak, Andre Mari'ren antzera. *Exhibere vos sanctos, et immaculatos et irreprehensibiles.* Alegindu gaitezen, Andre Mari'ri donetasun bidean jaraitzen batez ere bere Seme Jainkoaren gorputz eta odol donea, bere anima ta jainkotasuna Andre Mari'k bere eñai garbietan artu zuan antzera jaunartzearen bitartez gure barunean artzen degula, onela donetasunean aurera ta goruntz igo gaitezen.

¿Eta zer ortarako ezer oberik Andre Mari'ri bere Sorkunde Garbi'ko egun onetan bere laguntza indartsua eskatzea baño? Bai, beragana zuzendu gaitezen gure biotz eta animako gañik bizienaz beti gure bizitzako egunetan gure alde egon dedin eta gure aultasun eta argaltasunetan bere eskuaren indañoak babestu gaitzan, bai, Ama, zure jargoi eder, loratsu oretatik entzun gure eskari goriak.

Lagundu guztioi zure eskuaren almen goi-goi oregaz, lagundu zure alaba maiteai, urtxindoñoak bezin txinta zoliakin beren abots ozenaz abestu dizuten zure alabai, zure egegintzako apairu eder ori maitakiro apaindu ta loreztatu dizuten zure alabai, beren biotz eta arimak bizitzako egun eta ibilera guzitan zure garbitasun eta zintzotasunaren lore usaitu ta eder zale

izan ditezen; lagundu gure mutil bikañai beren bulañ-
ak sinismenaren alde trinko ta ausartsu dituztela iraun
dezaten, eta beren alegin kementsuaren bidez gure
eria gure aureko arkaba ta arbaso zañen sinismen ira-
zeki, oitura garbi ta kristau biziera sendo artara beñi-
ro itzuli dezaten; lagundu gure etxekoandre ta etxe-
jaunai beren etxetako zuzentzak zure oñetan jañi duten
argizai piztu oñen argitan, zure garbitasun dizdira-
tsuaren irudi bizia dan argi oñen erañutan egiten jañ-
aitu ta iraun dezaten, era onetan zure Seme Jainkoa-
ren egizko bide bakañetan bizi ondoren amairik ez
duan zoriondegiko egun argi artan zure ta zure Seme
guzialdunaren gorapen eta aintzak abesteko zorion
betea izan dezagun.

Ala izan bedi.

Pelayo Donea

*«Labora sicut bonus miles Christi
Jesu».*

Kristo'ren gudari leyal onari da-
gokionez lan egizu.

Pablo bidali doneak Timoteo'ri egin zion
bigarren eskutitzaren II buruan 3'garren esal-
dian.

Ilunpean, bizitza on eta zuzenaren bide jakin gabe, erakuspen eta oitura nastutan galdurik bizi zan gizadi guztia gure Eleiza Ama Donearen argitasun berdin-gabeak bere urrezko printza ederak izpitu ta edaturik gizonen adimenak argitu, egiz jantzi ta ornitu zituan arteraño. Et-zuan arkitzen gizadiak biotz beteko zorionik gizonen bidetan; baziran jakintsuak eta erakus-tzale bikañak, garai artakoak ziran Aristóteles, Pla-tón, Cicerón eta beste gizon jakintsu ta izlari asko ta asko, baña auek bide argi ta erakuspen dizdiratsuen artean utsegite aundi ta oker ilunak erakusten zituz-ten eta orela gizadia beren erakuspenai jaraituaz bein jeiki ta bein erori, nasturik eta itxumustuan bezela ze-

bilien bere zorion osoaren erdiunea ta ardatza arkitu eziñik.

Lur zabal onetako gizadia nastura onetan galdu-rik bizi zala, agertu zan Kristo gure Jauna'ren Eleiza Ama Donea, berak ekañi zion gizadiari ainbestera-ñoko egañiz ta gogoz nai zuan bere biotzaren zoriona. Jesukristo gure Jaunaren bidali, ikasle ta jañraileak bañ-eatu zuten jainkozko sinismenaren bidez gizonen adi-menak bideratu ziran, beren sinisgai okeretatik egia-ren argi bizi-diztikoñera atera ziran eta beren biotzak zimurkeri ta loikeriaren ordoi ta goñiaz joak garbitu, txukundu ta indarberñitu ziran, Kristo'ren sinismenean beren pakea, beren zoriona ta itxaropen guzia jañirik eta oñela gizartean sortu ta suspertu ziran oitura berñi, bigun eta tolesgabeen bidez luñak arpegi berñi bat artu zuan.

Eleizaren zugatz eder onetatik sortu ziran, Kristo gure Jaunaren gizarte berñi ari bidea argitzen zioten ainbeste ta ainbeste aitorle, martiri, birjiña, jakintsu ta mixiolari; ta gaur egunean Eleiza Donearen argita-suna lur zabalaren lau egaletara eldu dan egun aue-tan, alde guzitan ikustñen ditugu suspertzen Eleizaren kimu berñiak, Kristo'ren bizitza berña, gure biotzen pake ta zoriona dakarguten erakuspunen ondoren go-zoak.

An urütitan dabilta beltz eta sinisgabeen artean mixiolariak beren erñi ta etxetako gozamenak utzi ta gi-zajo aien zoriona landutzen, alde guzitan ageri dira Kristo'ren bidetan bizi diran jakintsu ta erakusleak be-ren ikasbide ta itzarekin gure zorion bideak iriki ta

erakusten. Ikastetxe, erukietxe ta eritegitan daude zabaldurik Kristo gure Jauna bakarrik beren maitetzat daukaten lekameak, mojatxoak, aurtxoai ta aziagoai ere beren bizitzan bearko dituztenak erakusten, umezurtz eta aiton-amona beartsu ta zorigabeai laguntzen eta era guzitako eri, gaxo ta mindunik naskagarrienak beren eraman aundizko biguntasunez gozatzen. Or eta emen daude bakartegietan Kristo'ren añeska edo birjiña ta lekaide, praie doneak, gure pekatu ta bezkeriakatik Jainkoa asareturik eta zigorkada zorotza bialtzeko eskua jaso daukan Jainkoa'ren biotza beren otoitz eta eskari irazekiaz samurtu ta baretzen. Eta Eleiza Ama Donearen edesti edo kondairari jaraituaz, or ikusten ditugu gaur egunean ere Mejiko erian, eundaka gotzai edo obispo, apaiz eta kristau soilak ere beren bizia, beren zañetako odola ematen eta beren aberastasun eta ondasun guztiak galtzen Kristo'ren sinismenari eustearen eta Kristo'ren sinismenean irautearen.

Eleiza Ama Doneak, luereko gorabera, arazo ta eginbearen artean oztu, epeldu ta aultzen zaigun gure biotz au berotzeko, gure sinismena beritu, kemendu ta indartzeko, egunero bere seme bikain, done oieta-koren bat jartzen digu begien aurrean ta gaurko egunean era onetan azaltzen zaigu bere gain gañeko sinismena ta garbitasuna erakutsirik gure erianen zaindari gaztea dan Pelayo Donea.

Ikusi dezagun, bada, bere bizitza, batu gaitzen gure biotz eta adimenaz done gazte onen gogoarekin, gure biotzetan erne, loretu ta eldu ditezen bere onbi-

de sendo ta bikañak, bere ikasbide eder eta garbiak; baña bear bezela nere eginkizun au betetzeko, goazen lendabizi laguntza eske zeru-luñen Eregiñagana, be-launikatu gaitezen Andre Mari guztiz garbiaren oñetan goi-aingeruaren itz goralgarí aiekin agurtuaz.

Agur Maria.

«Labora sicut bonus miles Christi Jesu».

Kristo'ren gudari leyal onari dagokionez lan egizu.

Pablo bidali doneak Timoteo'ri egin zion bigarren eskutitzaren II buruan, 3'garren esaldian.

Gure zaindari Pelayo donea, edeslariak diotenez, Galizi'ko Tuy deritzaion erian jaio zan. Bere gurasoak, kristau txit leial eta eleizkoiak, alegin aundiaz arduratu ziran beren seme Pelayo'ri Kristoren sinismeneko egi ta oitura onak txiki-txikitandik erakusten, eta berez mendu onekoa ta esanartua zan gaztetxoa, urtetik urtera edertzen joan zan, eluía baño zuriago zeukan bere gogo edo animaren jantzi zuri-erugabea. Udarako egun diztikor zoragaríaren ondoren, gau urdiñean izañen argi biziak luñeko ur bare-garbitan lerdentasunez agertzen joaten diran bezela, Pelayo donea'ren gogo edo anima garbian ere erne ta susper-tzen zijoazen zeruko apainduri argiak bere gaztearoaren aureneko urtetan.

Garai artan gudate gogoña sortu zan. Abderaman mairuen eñegeak bere mendeko gudaritalde aun-

diaz Gazteleña su ta gar artu ta auñera zetoñen. Na-
pañoa'ko eñegeak au ikustean Galizi'ko eñege Ordoño'
ri laguntza eskatu zion bere indañoak uñiak ziralako
mairu beltzai arpegi emateko, ta onela biak bat egiñik
alkaen auñez-auñe arkitu ziran mairu beltzakin Balde-
junkera deritzaion Auñemendi'ko zelaietan. Egin zio-
ten alkañi gogor eta iru orduan jo ta ausi alkar austen
jardun ondoren, beltzen gizatalde aundiaren etoñi
ugariari eutsi eziñik, ematen asi ziran eta azkenean al
zuten bezela aldegin eta igesi egin bear izan zuten be-
ren mendean utzirik gudako izkilu, tramakulu ta jana-
ri pila aundiak eta beren eskuetan eroririk baita ere
gudari asko ta asko ta auen artean Hermojo, Tuy'
ko gotzai edo Obispo jauna, aldi artan oi zanez guda-
ri taldearen buruan zijoana.

Abdeñaman eñegea garaipen aundi aren ondo-
ren, ingurumai aietan bere nai ta asmoak bete zitua-
nean, bere eñi nagusi Kordoba'ra itzuli zan eta berekin
eraman zuan Hermojo gotzaia ere.

Orduan Hermojo gotzai jaunaren eñialdeko a-
gintariak gogoz eta bero arduratu ziran bere bizia ta
azkatasuna irixteko ta oñetarako Abdeñaman eñegea-
rekin izketaratu ondoren, Hermojo gotzai jaunaren az-
katasun orde z beren mendean zeuzkaten mairu beltz
guztiak Abdeñaman'i itzuli ta urte batzutan oñenbeste-
ko zor bat urtero Abdeñaman'i ordaintzea erabaki zu-
ten, eta zor au ordaindu bitartean Pelayo, Hermojo
gotzaiaren iloba eñegeren mendean uztea.

Erabaki auek ontzat artu ta berai bide emateko
garaia eldu zanean, asi zan baita ere Pelayo gaztea-

ren bizitzaldi latza. Eregek Pelayo giltzapean, baitegian sartu zuan eta bere erialdeko eginbear eta arazo- en erdian aztu zitzaion Abdeñaman'i Pelayo zaanik ere. Bitartean ona emen Pelayo giltzape zar artan, azkatasuna galdurik, kate gogoñez lotuta, kirinka aundia ateraaz irikitzen zan ate tzar aundi batetik sartzen zioten jaten txar pixkat janaz ta lagunik gaixto ta biurienaz inguraturik.

Zer egiten du Pelayo gizajoak egoitz onetan? ¡A zein gozoak zitzaizkion orduantxe bere aita ta amak erakutsitako otoitz edeñak! ¡A nola indartzen eta kementzen zioten biotza Kristo'ren egi sakonak bere neke ta naigabe gañatz aiek onez eta biotzez eramateko!

Len eluñ baño zuriago euki bazuan bere animaren garbitasuna, orain eguzkia baño diztikoñago azaltzen zan giltzape ilun artan bere gogoaren argitasuna. Bere eginkizun guzitan bigun azaltzen zan, izketan maratz, lagun artean gozo, alai, eratsu ta laister artu zioten guztiak begirune ta maitasun berezi bat. Lagunak beren artean izketa zatar eta loietan ari zirala Pelayo gaztea beren artera azaltzen bazan, bapatean ixiltzen ziran eta izketa beñi bat artzen zuten, ibilera eragabetan zebiltzala bera etortzen bazan, berealaxe zuzendu ta bideratzen ziran bere garbitasun eta begiruneak eramanda. Eta ain ona, zintzoa ta garbia zalako guztien maitagañi ta begikoa zan.

Eñi batean mutil gazte bat txit zuzen, garbi ta eleizkoia danean, laister zabaltzen da eñi guztian bere bizitzaren usai gozoa; era onetan, bada, Pelayo done-

aren bizitzaren usai gozoa ere zabaldua zegoan éregeren jauregi guzian. Egun batean bazkal-jai aundi baten ondorean érege ta bere aundizkiak izketan ari zirala, aundizki auek érege txurikatu naian ta leun-keririk atsegiñena egiteko asmoan Pelayo gaztearen mendu egoki ta yayotasunaren beñi itzegin zioten.

Éregek orduan berealaxe bere aurera ekañi zezatela agindu zuan. Éregeren aginduak berealako batean bete bear izaten dira ta une berean joan ziran moñoiak eta laister ekañi zuten Pelayo giltzapetik éregeren aurera jantzi beñi eder batez apaindurik.

Éregek ikusi zuanean gazte ain lirain ta edera, añera gozoa egin zion ta Pelayo'ren izketako egokitasun ta yayotasuna ikusirik bere aundizkide egin ta agintarien arazoetarako azikera berezi bat emateko asmoak artu zituan; baña onetarako nai ta naiez bere biotzarentzat goñotagañi zan Kristo'ren sinismena utzi ta ukatu beañean zegoan.

Oñela, bada, asmo auetan, éregeak Pelayo donea bere eskuetara ekañirik, begiratu gozo ta pozkari bigunak egin zizkion esanaz: Neretzat bear zaitut, nere alboan, nere jauregian eta aunditasunen artean bear zaitut; nere jauregiko galairik apain, atsegin ta argiena izango zera, nere ibileretan ta garaipenetan beti nere aurretik izango zera, baña badakizu, auren gauza txiki bat egin beañean zaude, Kristo'ren sinismena utzi ta ukatu bear dezu.

Ez, ori ez, erantzun zion Pelayo gazteak, ezin dezaket egin oñelakorik, ezin dizaioket egin oñelako bezkeririk Jesukristo gure Jaunari, beti izan dioñan maitasuna ukaturik.

Badakizu, esan zion orduan éregeak, nere aberastasunak, nere jauregiak, uré, zilar, lorategi ta nere esku dauden edertasun guztiak zure mende egongo dirala; orain nere adizkide kutun eta gero nere agintarien buru izango zerala ta zure izena érialde guzitan ezaguna, sonatua izango dala, baña óratarako zure sinismen eta sorginkeri oiek nai ta naiez utzi bear dituzu.

Zure aberastasun, aunditasun, agintaritza ta azalez guri ta dizfikoñak diran zorion oiek, erantzun zion Pelayo doneak, arantza zoñotzez minduak daude azpitik, arak joak daude barundik, érege jauna; zure edertasun oien zoragaritasunak ogei, berógei, geienez eun urtean iraungo dute ta gero lore zimel bat bezela auts eta aize biurtuko dira. Nere maitearen zoriona, Kristo ilen artetik zorionez piztuaren lairona ta zoriona, beriz, iraunkoña da, amaigabea, betikoa, ta zoriondegi eder artako edertasunen bikaintasunak gure adimenaren indarari gañez eragiten diote, gure mingañak ezin aitatu ere egin ditzake ta Jainko beraren argitasunez bakarrik ezagutu ditzakegu, Pablo bidali doneak dion bezela; óregatik bada, ezin ontzat artu ditzaket zure eskeintzak, ezin ontzat artu ditzaket zure zorionaren ezti tanto oiek, biotza betean gozatzeko asmoa deten betiko zorion oparoaren orde.

Mindu zuan erantzun onek éregeren barua, baña bere asarea éraietan gorderik, leun eta zuritasunez itzegin zion; oraindik ez bazan ere geroagoan beñe-pein bereganatuko zualakoan, bere ñiñitako argia baño maiteagoa egin zitzaion gaztea.

Ona emen N. E. M. Pelayo maiteak ematen digun ikaskizun edeña, éregeren beraren aúrean sendo iraunik eta érege aundiaren eskabide gaiztoai ezezko bikaña erantzunaz eta bere gañetik Kristo'ren sinismena jañiaz.

Sinismenaren indaña N. E. M. neuñi gabea da, luñeko indañik bikañenak ere ezin makurtu ta menderatu dezake ta oñela Pelayo doneak sendo irauten du éregeren maltzurkeri ta alegin guztien aúrean. Sinismenaren indaña gure begiai adierazteko, itsasoaren erdian dagoan arkaitz baten iduri egiten dute, itsasoak bere sabela urez aunditu ta ugin edo olatu añoaz oñuka arkaitzera eldutzean gogor aztintzen du ta olatu, ugin koska aundi ura lertu ta apaña dariola goietaraño igotzen da, baña arkaitzak beti trinko, sendo irauten du bere lekuan. Era onetan Éregeren alegin eta joera guztien aúrean sendo irauten du Pelayo doneak ere Kristo'ren sinismenean, sinismenak ematen dion indar eta sendotasunaz.

Askotan badirudi Kristo'ren etsai gaiztoak beren esanketa, gaizkika txarakin Kristo'ren sinismena azpiratzen dutela, baña erakutsi txar oiek beren emari ta ondoren galduak ematen asten diranean krakatu ta luñera jausten dira, ta Kristo'ren sinismenaren argia, aparpeko arkaitz bikaña bere lekuan zutik bezela, beñiro agertzen da len baño ere bizi ta ditzikoñago argi egiñaz. Au bera ikusten degu N. E. M. gaur egunean ere Pelayo donearen bizitzara begiratu ezkeru. ¿Nun dira orain érege aren aunditasun eta arotasunak? Joan ziran guztiak, igaztu, amaitu ziran guztiak aztarnik ere

utzi gabe; Pelayo donearen goitasuna, beriz, bizi da ta lerdan eta zutik irauten du Pelayo donearen izenak eta eñi guztiak ao batez bedeinkatzen dute Pelayo gaztearen sinismenaren bikaintasuna, gure sinismenaren argi ta zuzenbidetzat jañirik.

Sinismen au N. E. M. ez da gure bañuan, gure biotzean eukitzeko bakañik, sinismen onek gure lan, eginkizun eta bizitza guztian azaldu bear du, beti ta alde guztian Kristo'ren jañailleak generala aitortu ta adierazi bear degu, batez ere gizon ajolagabe, maltzur eta beren buruak aundi ta jakintsu egiñaz ez jakiñen aurrean sinismenaren aurka itzegin eta kalte aundia egiten ari diranean. Au egiten duanarentzat Kristo gure Jaunak agindua dauka bere saririk mardulena itz auetan: *Omnis qui confitetur Filium et Patrem habet.* Kristo gure Jauna bere sinismenaz aitortzen duanak bere Aita Betikoaren zoriona ere beretzat izango du. Kristo gure Jaunaren itzak dira auek eta ezin ditezke bete gabe gelditu.

Baña geiegi luzatu gabe goazen beriro Pelayo'ren bizitzara. Ereegek Pelayo gaztea bereganatu naian bide guztiak jo ta neuri guztiak artzen ditu. Ereege maltzurari otu, gogoratu zitzaion Pelayo gaztea loikerizko pekatuetara eraman eta bertan eroriazi ezkerro laister ukatuko zuala Kristo'ren sinismena. Asmo onekin, bada, oparotasun eta guritasunik aundien erdian jañi zuan, adizkide apain eta gaiztoz inguraturik, beren izketa zabar eta ibilera galduaz pixkanaka loikerira eraman zezaten. Baña Pelayo gazteak lizunkerizko eraso labain aien artean bakañune bat arkitzen zuan

bezin zorian bere biotza Jainkoa'gana jasotzen zuan, bere laguntza ta argia eskatuaz sare gogor eta galdu aietatik zearoko garbitasunez atera zezan; eta al zuan bezin laister beren artetik igesten zuan.

¡O zein erakutsi edeña gure bizitzarako N. E. M.! Guk ere bageneki zein edeña dan garbitasunezko onbidea, egi-egitan esaten det, lurbira guztiko gizadiak baleki ondo zein edeña dan garbitasunezko onbidea, lurbira guztian ez litzake arkituko bat bakañik ere loikerizko pekaturik egiten ausartuko litzakenik.

Ez dago biotzik N. E. M., egiazko maitasunaren biguntasun eta gozotasunaz berazkatu ta biguntzen ez danik. Biotzaren bizia maitasuna da. Ta biotz batek oartzan duanean beste biotz batek bere bizia, bere maitasunaren su guztia, alegia, beretzako daukala, berealaxe piztu ta irazekitzen da ta bere biotz maite oñeri erantzuteañen nekerik aundienak eramateko gertu jartzen da. Au, N. E. M., gizadi guztiak bere biotzean ezañita daukan berezko legea da ta ederki dator adierazteko garbitasuneko onbidearen edertasuna.

Jesukristo gure Jaunaren biotza garbia zan; et-zan sortu bere garbitasun ura lausotuko zuan matxura, beñar, simur eta beltzunerik; Jesukristo gure Jaunaren biotz garbi jainkozko onek gizonaren maitasunez beterik eta bera befiko ondamenetik ateratzeañen aurtxo egiñik nekerik aundienak eramaten ditu ta bizitza guztian bere alde lanean igaro ondoren azkenean gurutze latz batean zauri bat egiñik eta lantza, aztamakil gogoñaz biotza lerturik, iltzen da gizonen maitazunez; eta ¿ez da edeña izango biotz oñeri, biotz oñen maita-

sun garbi-eder oñeri gure maitasun oso-osoaz, maitasun garbi-garbiaz erantzutea? ¡Emendik atera dezakegu pixka bat garbitasunezko onbide oñen edera ta sofiltasuna!

Jesukristo gure Jaunak ongi zekialako zein zoragarria zan onbide onen apainduria, ardurarik bizienaz zaitu zuan bere bizitzaldi guzian. Mila aldiz bere etsai pilosoak, zimatsuak, asaretuak beren ao zakaretatik gaizki-esaka jardun ziran, baruan deabrua zeukala ta esatekorik beltzenak esanaz; baina bein bakarrik ere ez da ikusten, ez da azaltzen inon eta inongo liburuetan bere garbitasun edera lausotzearen esandako itz baten izpirik ere. ¿Eta zergatik au? Onbide ta birtute guztien apainduria ta edertasuna dan onbide berezi onetan Jesukristo gure Jaunak bere jainkotasuna gezuzerik ikutzerik nai izan et-zualako.

Si vis pacem para bellum, dio esaeretako liburuak. Pakea nai badezu, gertu zaite gudarako. Garbitasunaren onbide onek gure biotzaren pake, baretasun eta gozamena ekartzen ditu, N. E. M.; baina pake ta gozamen au iritxi nai badegu beñ ernai bizi ta ardura aundiaz alegindu bear degu bizitza guztian. Garbitasuna guztiok eta bakoitzak bere malan gorde beñean gaude, ta Jainkoaren laguntzarekin guztiok iritxi dezakegu, baina irixten zala da, liburu doneak dioten bezela, gure baruko griñak pekatura garamazkilako ta oregatik beti txit ernai bizi bear degu ta egundaño ez degu gai onetan gure buruaren uste geiegiarik artu bear, uste geiegi au izan da, bada, garbitasuneko onbidean ondamenik aundienak egin ditu-

ana. ¡Zenbat eta zenbat Jainkoaren maitasun eta done-
tasunean goi-goietako maletaraño eldu ziranak, atzera
ondo-ondoraño amildu ote dira une batean loikerizko
griña makuñak itxutu ta eramanda. Au gogoratzean
ulertu ta entenditzen dira Pablo bidali doneak artzen
zuan ardura bere gorputz mendekaitza zigorkatzen;
Jeronimo doneak bere bulaña ari biribilaz zartakatzea,
Bernardo doneak bere gorputza ibai izoztuan zearo
sartzea eta Asis'ko Prantzisko doneak bere gorputz
goria lar eta sasitan zañaztaka uratuaz eta odolduaz
ibiltzea griña galduen eztenkada maltzuñak ixilazteko.

Griña gaizto onek ondamenera eramateko duan
biderik labañenetako bat, liburu doneak diotenez, be-
giratu lasaiak dira. Begiratuak artzen dituan irudiak
irudimenean gelditzen dira ta bertan irauten dute lu-
zaroan. Eta ardurarik artzen ez badegu gure begiak
ezitzen, gure irudimena ikuskizun zatañez bete ta gri-
ña txarantzat sua piztu ta piztutzen joango da, azke-
nean geure burua itxutu ta pekaturako zorian jañi arte.

Eta begiratu ta ikuskizun auek aitatu ditudan ez-
kero ezin auñera joan ninteke gaur eguneko gertaera
negargañi bat bere lekuan jañi gabe nere N. E. M.

Orain ogei urte, zortzi, amar, amabi, amalau ta
geiago urtetako ume ta gaztetxoak Jaunaren aingeru
ederak ziran, beren biotzetan griña gaiztoaren suster-
ak lo zeuden, esnatu gabe zeuden eta beren begi eder-
etan Jainko gure Jaunak jañi zien erugabezko mintza
garbia zeukaten gizonaren jatorri ta bizitzako mirariak
estaltzen; baña gaur egunean N. E. M. zine madari-
katuak aur oien buru ta biotz askotan esnatu, erne ta

zirikatzen ditu griña makur oiek; beren erugabezko begien mintza zuri-garbia uratu ta loitzen du ta beren biotzak ondaturik asko ta asko loikeriz deabruaren atzaparetan eroriazten ditu. Oregatik N. E. M. alegin guztiak egin eta aldiran bide guztiak jartzea ere beti gutxi izango dira aur erugabe oiei, aingeruzko apainduriz jantzirik dauden aur oiei ustelkeri ta loikerizko bide oretatik zearo aldegiñazteko.

Begiratu dezagun Pelayo Doneak zer egiten duan eraso auetan; une txiki bat arkitzen duan bezin laister Jainkoagana biotza jaso ta bere laguntza ta argia eskatzen dio deabruaren sare gaizto aietatik ateratzeko ta alduan bezin laizter igesten du pekaturako apuko, egokiera txar aietatik.

Pelayo Donea luzaroan onela bizi ondoren eregek etsirik loikerizko pekatuetan ezin jausiazi zuala, deitu zion bere aurera onez ala txarez Kristo'ren sinismena ukatuazteko asmoan; baña Pelayo Doneak beñiro ere sendo iraun zuan bere sinismenean. Orduan erege asareturik bere agindu ta naikeriak oñazpiratzen zitualako, sumindu zan, bere maitasuna goroto bizi biurtu zitzaion, bere eraiak eziñaren amoroz irakin zioten, bere arpegia goritu ta bere begiak txingarturik gaña dariola jañi zitzaiozkion eta exerita zegoan urezko alkiari dardar eragiñaz eta aotik pitza dariola itzak etenka, tofelka esanaz agindu zuan: matxarde edo tenaza aundi batzuekin eldu ta gora ta bera ibili zezatela, zartadaz gorputz guztia ego ta zeatu arte, sinismenik ukatzen et-zuan bitartean; eta ikusirik eregek ala ere bere artan jañaitzen zuala, azkenez agintzen du

bere gorputz guztia, bere beatz, esku, beso, belaun eta soin guztia zati-zati, ebaki-ebaki eginda ibaira bota zitzatela ta alaxen eman zuan gure zaindari Pelayo Doneak bere bizia ta zañetako odol guztia.

Ona emen Pelayo doneak Kristo'ren maitasunean irazekirik zer egiten duan. Bere biotz guztia Kristo'ren maitasunari erantzuteko du, bere sinismenari oso-osorik eusten dio, bere garbitasuna erü ta kutsurik gabe eder eta sofil zaitzen du beraren usai gozoa Kristo'rentzat bakañik duala ta azkenez maitasunezko eskeintzarik aundiena, bere bizia eskeintzen dio Kristo gurutziltzatuari, bere egite bikain onen ordezt aingeruen buruztai, koroï edeña ta betiko alaitasun eta atsedenaz zeruan artuaz.

¡O Pelayo zorientzua! ¡O Pelayo martiri gazte bikaña, zaude orain lairontsu betiko zorionean! Zure nekeak amaitu dira, zure min, oñaze ta negar samiñak, guztiak joan ziran, zaude orain poz, alaitasun eta gozamenez beterik Jainkoaren seme leyalen zoriondegi zoragarían.

Baña gogora zaitez Pelayo donea, gu, zure zaindaripeko kristauak erbesteko ibar onetan gabiltzala, lanez beterik geure buruari gogor egiten, gure griña makuñak ezitzen eta Kristo'ren onbide ta birtuteak gure biotzetan indartu ta loretzen; añen Pelayo donea eman egiguzu zure laguntza ugaria, añen eman egiguzu zure indaña, kemena ta argia batez ere etsai-belatzak bere seta gaiztoaz gure biotzak gogor erasotzen ditunean, eta gure anima pekatuan erortzeko zabuka ta eloríoan dabilenean, beti Kristo'rekin bat egiñik eta

bere biotza ta gurea beti maitasun batez irazekirik irau-
un dezaten.

Eta Kristo zorientsuaren ondoan neurigabeko pozez bizi zeran ezkerro eskatu zaiozu guretzat bedeinkapen ugari ta oparo bat, guztiok zu bezela bere sinismen eta garbitasunean bizi ta il gaitezen; bedeinkatu itzazu Pelayo zorienttua apaiz agurgariak beren biotzak Kristo'ren maitasunez garturik animak zerurutzen lei biziak jarai dezaten; bedeinka itzazu nere eriko agintari leyalak eta argitu itzazu beren buru ta adimenak Zarautz'ko eri kristautsu au beti Kristo'ren legepean zintzo ta zuzen bideratu dezaten; bedeinka itzazu arantzaleak, bai eguzki galdatan eta bai goiz-goizeko izotzetan dardar egiñez dabilzanean, arantza ugariak egin ditzaten eta ugin, olatu kaskaen artean bein goiko ur tontorerano igo ta urena ondorano jetxian bere biziak galtzeko elorion eta ikara larian dabilzanean, Pelayo, bialdu egiezu oraingo eskaera onen orde zure laguntza ta argia, osasunez bere emazte ta semeakana itzuli ditezen ta berai eguneroko janaria eman dizaieten; bedeinka itzazu baita ere nekazariak eta beren lur eta bazterak, beren etxeak ornitzeko janari oparoa izan dezaten eta goialdean kazkabararen kozka ilunak azaltzen diranean eten itzazu ta bialdu itzazu beren besoak kalterik egingo ez duten lekuetara; bedeinka itzazu Zarautz'ko ola ta lantegiak eta bertan lan dagiten buru ta mendekoak, Eleizaren bide ta erakutsitan alkaeri berea dan ura opa izanaz pakean bizi ditezen eta alkaeren begiramen on au, zuzentasun eta onginaian oña, jatorria

duna izanik, beren biziera zintzoa erosotuko dien lanaren iturri ugalkoia izan dedin; bedeinka itzazu Zarautz'ko aur erugabeak beren begiak Jainkoak jaritako mintza erugabeaz itxirik eta beren biotzak barretasun eta pake ezfian egon ditezen, era onetan beren gurasoen poz eta alaigari bigun eta gozoak izanaz, erabat erriaren inguru guztiak aingeruzko jantzi garbiaz loretu ta apaindu ditzaten eta azkenez bedeinka ezazu, Pelayo donea, zure azkenengo jaraile au ta sutu ezazu bere biotza animak zerura eramateko leian, era onetan zure sinismenean eta garbitasunean bizi ondoren egun batean zurekin egundo amaituko ez dan Kristo'ren zorionean bizi gaitezen.

Ala izan bedi.

OARA.—Eleiz-itzaldi au 1928'fen urtean Zarautz'ko Zaindariaren jaiean egiña da.

Laus Deo

ATALEGIA

	<u>Oñalde</u>
Beñogenaro'ko lenengo Igandea.....	7
» bigarren » 	20
» irugarren » 	29
» laugarren » 	39
Lazaro Igandea.....	50
Abar Igandea.....	59
Pizkunde Igandea.....	64
Pasko urango Igandea.....	74
» ondoko bigarren Igandea.....	86
» » irugarren » 	96
» » laugarren » 	106
» » boskaren » 	113
Igokundearen zortziurarenpeko Igandea.....	122
Askundea (Pentekostes).....	131
Askunde urango Igandea.....	140
Pentekostes ondoko bigarren Igandea.....	147
» » irugarren » 	157
Azalkundea (Epiphani).....	165
Andre Mari'ren Sorkunde Erugabea.....	174
Ama Beñargea.....	184
Pelayo Donea.....	192

